ASTELEHENEKO
# Goienkaria
2010eko irailaren 13a > Astelehena > VII. urtea > 289. zenbakia > 1,10 euro
Goiena 10 URTE Komunikazio Zerbitzuak www.goiena.net TOKIKOM



"Etorkizunari aurrea hartzeko, ingeniari globalak eta eragileak hezi gura ditugu"
**Bixente Atxa**
Goi Eskolako zuzendaria > 08

**G2a** Donostiko Zinemaldian, baina lanean > 29

**BERGARA**
**San Martin jaien hasiera ospatu dute bergararrek** > 12

**ARETXABALETA**
**Herritar asko 'Ixadebalde' azokan aukera onenaren bila** > 13

**KIROLA**
**Maider Unda bosgarren sailkatu da Munduko Txapelketan, Moskun** > 24

**AUTOAK** > RALLYSPRINTA

## Zapirain Aramaion azkarrena

Joseba Zapirainek hirugarren aldiz irabazi du Aramaioko proba > 22-23

**JENDARTEA** > AISIALDIA

## Herriz herri jarraitu dugu pintxo pote fenomenoa

Pintxo poteoak harrera ezin hobea izan du gurean.Horren adierazle da dagoeneko ibarreko lau herritan jarri dutela ekimena martxan, azkena Eskoriatzan, eguenean.

Eta, fenomeno hori gertutik jarraitu dugu. > 02-03

**AURKIBIDEA**

**Debagoiena** > 02-07
**Elkarrizketa** > 08
**Iritzia** > 10
**Herriak** > 11-20
**Kirola** > 21-27
**Kultura** > 29-31
**Sailkatuak** > 32-33
**Denbora-pasak** > 34
**Telebista-irratia** > 35
**berri-zakua** > 38-39



**SAGARDOGILEAK** Aramaioko hamabi sagardogilek -argazkian- bat egin zuten Txirritolako lagunek antolatutako jaiarekin. JOSETXO ARANTZABAL

**ARAMAIO** > TXIRRITOLA EGUNA

# Euskara ahoan eta sagardoa eztarrian ibili dute Aramaion

**HAMABI** Aramaioko hamabi sagardogilek hartu zuten esku Txirritola euskara elkarteak antolatutako jaian

**TXOTX IREKIERA** Herriko bertso eskolakoak izan ziren Aramaioko sagardoa edaten lehenak, txotx irekieran

**GIRO ONA** Inguruko herrietako jendea ere hurbildu zen Aramaiora, sagardoa edan eta taloa jatera > 11



Amutxastegi, Mitxelena, Munilla, Mendizabal eta Molina, atzo Bergaran. GOIENKARIA

**ERLIJIOA** > PARROKO ALDAKETAK

## Agur beroa 'Kakux'-i eta Mitxelenari

Txiki geratu zen atzo San Pedro eliza orain arte Bergara eta Antzuolako parroko izan direnak agurtzeko. Munilla gotzainak esan zuen meza eta bertan egon ziren Iñaki Amutxastegi eta Jon Molina parroko berriak. > 07

Goiena kluba
Esait-eko Euskal Herria maillota opari. Nahi?


Zoaz 3. orrialdera

JENDARTEA > AISIALDIA

# Pintxo poteoa astero bete beharreko ohitura bilakatu da askorendako

**ESKORIATZA, AZKENA** Gainerako herrietan duen arrakasta ikusita eta herritarrek hala eskatuta, joan den eguenean martxan jarri zuten esandako ekimena Eskoriatzan

**EGUAZTEN ETA EGUENEAN** Gurean, Aretxabaletan izan ezik, gainerako hiru herrietan eguenetan izaten da; lehenengoan, Arrasaterekin bat ez etortzeko, eguaztenean egiten dute



Bergarako Ariznoa tabernako Juan Etxabarri, joan den eguenean; jendez lepo zegoen taber

**MIRIAN BITERI** > BERGARA

Pintxo poteoak harrera ezin hobea izan du gurean. Horren adierazle da dagoeneko Debagoieneko lau herritan jarri dela martxan esandako ekimena; azkena Eskoriatzan, eguenean.

Arrasate izan zen hori abian jartzen lehena, Arrasate Bizirik plataformako tabernen (Dublin, Irish Pub, Monte taberna, Iturriotz, Zuk Nahi, Hotel Mondragon, Hilarion eta Lora) eskutik. Kaleko giroa eta txikiteoa berreskuratu eta, bide batez, tabernetako irabaziak hobetu nahi zituzten ardo ondua eta pintxoa euro batengatik eskaintzen. 2008. urtea zen.

Bi urte pasa dira ordutik hona eta Lora tabernako Markel Goikoleak nabarmendu du bete-betean asmatu dutela horrekin; pintxo poteoarekin jendea irteten hasi delako eta "izugarrizko giroa" sortzen duelako eguenetan. Datu bat: taberna horietan eguenero 700 botila ardo ondu baino gehiago zabaltzen dira. Azken horren harira, gaineratu du arrasatearrez gain inguruko herrietakoak ere etortzen direla: "Oñatitik, esaterako, autobusak beteta etortzen dira horretarako".

Bada, horretaz jabetu dira Debagoieneko beste hainbat herritako tabernariak, eta Arrasateko eredua jarraitzea erabaki dute. Bergaran otsailean hasi ziren eta Ariznoa tabernako Juan Etxabarriren esanetan, "harrera ezin hobea izan du. Apurka joan da kopurua igotzen eta uztail amaierakoak eta irail hasierako pintxo poteoak ikusgarriak izan dira. Jendea oso pozik dago eta ondo erantzuten ari da".

**Pintxo poteoaren harira, Arrasateko tabernetan, astero, 700 botila ardo ondu baino gehiago zabaltzen dituzte**

**Bergaran, asteon, aurreratu egin dute hitzordua; martitzenena izango da, eguenean jai-eguna delako**

**BERGARAN, CAVA**

Bost taberna hasi ziren: Etxagi, Biko, Ariznoa, Euxebio eta Deportivo. Joan den eguena ezkero, baina, seigarren batek parte hartzen du: zabaldu berri duten Bule, hain justu. Ez da berrikuntza bakarra. Ardoa hartu beharrean, hemendik aurrera, cava hartu ahal izango da pintxoarekin batera Bergaran, prezio berean: 1,5 eurotan.

**ASTEON, BERGARAN, BIHAR**

Horrekin batera, Etxabarrik aurreratu digu asteon martitzenera aurreratuko dutela pintxo poteoa, eguenean jai-eguna da-eta herrian.

Bergararen ondotik, Aretxabaleta iritsi zen. Eguaztenean egitea erabaki zuten, Iosuko Juan Gaztañagaren esanetan Arrasaterekin bat ez egiteko: "Badakigu herriko jende asko Arrasatera doala eguenetan, eta, hortaz, eguaztenean egitea erabaki genuen". Hemen ere bete-betean asmatu dute: "Eguraldiak zeresan handia baldin badu ere, jende asko dabil. Esaterako, egunero 50 pintxo saltzen baditugu, eguaztenetan 350 eta 400 pintxo artean banatzen ditugu; askotan, gainera, barik geratu gara, eta urdaiazpikoarena jarri behar izan dugu".

Taberna Berri, Gurea, Iosu, Arlutz, Txakoli, Paulaner, Artano eta Orlyk parte hartzen dute horretan. Herri horretan Bodegas Domecq enpresako Alkorta

GUZTIAK POZIK



**Eba, Pakita eta Izaskun**
Eskoriatzarrak

"Oso ideia ona iruditzen zaigu, etxetik irten gaitezen ideia ezin hobea da. Ez dugu kalera ateratzeko ohiturarik eta gaur irten gara pintxo poteoa dela-eta. Nik, esaterako, zuritoa eskatu dut eta horrekin batera tapa bat debalde eman didate; 85 zentimo ordaindu ditut. Badakit Aretxabaletan eta Arrasaten ere egiten dela, baina gu ez gara joaten; herrian delako irten gara gaur".



**Eneritz, Alaitz eta Enara**
Antzuolarrak eta elgetarrak

"Gu batzuetan bakarrik ibiltzen gara, baina jende asko astero irteten da. Harrituta nago, izugarrizko giroa egoten da azkenaldian eguenetan Bergaran, jaietan gaudela ematen du. Jendea animatzeko ekimen paregabea dela iruditzen zaigu, eta, gainera, eguraldi ona egiten duenez, terrazetan lasai hartzeko aukera dago. Bestalde, esan beharra dago pintxoak ederrak direla; oso goxoak dira".



**Itsaso Errasti**
Eskoriatzako Inkernuko arduraduna

"Oso balorazio ona egiten dugu, espero genuena baino askoz hobea. Eguenetan gazteak ibiltzen dira, baina oraingoan askoz jende gehiago ibili da. Ea horrela jarraitzen duen".



...nan zazpi lagun ibili ziren lanean. MIREN MANIAS

ardoa eskaintzen dute. Gaztañagak azaldu digu enpresa horrek egiten diela eskaintza onena eta, hortaz, kontratua sinatuta dutela horren harira.

**ESKORIATZAN, OSO HARRERA ONA**

Ondoko herrietan izandako arrakasta eta herrikoek hala eskatuta, joan den eguenean pintxo poteoa estreinatu zuten Eskoriatzan. Oso erantzun ona izan zuen lehenengo hitzorduak. Inkernu tabernako Itsaso Errastik azpimarratu du betiko bezeroez gain eguenean jende berria ere badutela. Debagoieneko gainerako herrietako tabernariak ere bat datoz Errastiren adierazpenekin.

Errastik azaldu du pintxo poteoa egiteko ideia aspaldikoa bada ere, oporren ostean animatu zirela martxan jartzera. Herriko taberna gehienak daude sartuta: Mirentxu, Inkernu, Toki Alai, Urrestilla, Zarauztarra, Akeita, Benta Motz, erretiratuen egoitzako taberna eta Azkoaga Enea hotela.

Logikoa denez, gainerako astegunetan baino lan handiagoa dute egun horietan ostalariek. Aretxabaletarrak dio eguaztenetan arratsaldeko lehen orduan sartzen direla pintxoak gertatzen joateko eta botila ardoak zabaltzeko. Bi lagun ibiltzen gara horretan eta arratsalde partean hirugarren lagun bat sartzen da, zerbitzari lanak egiteko. Bergaran ere antzera dabiltza. Ariznoan, esaterako, zazpi lagunek egiten dute lan, bost tabernari eta sukaldari bi.

Pintxo poteoan edariek garrantzi handia badute ere, jatekoak ez dira gutxiago. Pintxoei dagokienez, denetarik dago. Aretxabaletako Iosun, esaterako, hostore beteak eta txistorra ateratzen dituzte gehien; Arrasateko Loran ere txistorra ateratzeko ohitura dute; baina astero pintxoak aldatzen saiatzen dira. Goikolearen arabera, "jendeak eskertzen du aldatzen joatea. Frijituak, maziak eta txistorra ateratzen ditugu". Bergarako Ariznoan ere aldatzen joaten dira; hegaluzea maionesarekin, gazta, langostinoak edo okela gisatua, esaterako.

Bestalde, Debagoienean pintxo poteoak izan duen arrakastaz jabetuta, Gipuzkoako beste hainbat herritako ostalariak gurean izan dira ekimena ezagutzen. Beasainen, antza, gustuko izan dute, martxan jarri berri dute-eta.



**Mikel eta Joxean**
Bergararrak

"Ez dugu hutsik egiten. Aitzakia ederra da lagunekin elkartzeko. Txikiteoan ibiltzeko ohitura galtzear zegoen herrian, eta, hortaz, aspaldiko ohiturak berreskuratzen gabiltza ekimen honen bidez. Eguenetan askoz jende gehiago irteten dela igartzen da; tabernak beteta egoten dira. Ekimena oraindik martxan jarri barik duten gainerako herrietan ere animatuko direla uste dugu".



**Juan Gaztañaga**
Aretxabaletako Iosuko arduraduna

"Pintxo poteoak lan handia dauka; askotan estresatu egiten gara, plater, edalontzi eta pintxo barik geratzen garelako. Baina merezi du. Hasieran, 16 botila ardo zabaltzen genituen; orain, 30 eta 32 artean".

Abantailaz betetako kluba!
Goiena kluba
IRAILEKO ZOZKETA
Telefonoa: 943 25 05 05
e-posta: *kluba@goiena.com*
Kuota: 45 euro

LIBURU SORTA BAT
Bidali KLUBA LIBURUAK [Bazkidearen zenbakia] 5195 zkra.
PAMIELA argitaletxea

ARRIKRUTZERAKO BI SARRERA
Bidali KLUBA SARRERAK [Bazkidearen zenbakia] 5195 zkra.
ARRIKRUTZ oñatiko kobak

ESAIT-EKO MAILLOTA
Bidali KLUBA MAILLOTA [Bazkidearen zenbakia] 5195 zkra.
esait

UMEENTZAKO PUZZLEA
Bidali KLUBA PUZZLEA [Bazkidearen zenbakia] 5195 zkra.
Ikastolen Elkartea

SARI NAGUSIA
UZTAILA-URRIA
PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA
WII SPORTS RESORT PACK TXURIA

Ukabi informatika
Sistemen salmenta eta mantenua
TPV eta enpresak kudeatzeko aplikazioak
Webguneen diseinua.
Domingo Irala z/g (Ariznoa aurrean)
BERGARA Tel.: 943 15 01 01

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: *kluba@goiena.com*

**EKONOMIA** > EHUNGINTZA

# Tavex taldeak Txileko fabrika itxi du, 370 langilerekin

Lantegia ixteko arrazoi nagusia estrategikoa dela diote taldeko arduradunek; balio erantsia duten ehunak egitera zuzenduko dute produkzioa

**I.M.** > BERGARA

Txilen, Chiguayante hirian duen lantegia itxiko duela iragarri du Tavex taldeak. Balio Merkatuen Batzorde Nazionalari erabakiaren berri eman zion Tavexek egubakoitzean bertan. Taldeko iturrien arabera, Txileko lantegia ixteko arrazoia nagusiki estrategikoa da, izan ere balio erantsia duten ehunak egitera zuzenduko dutelako produkzioa. Tavexen erabakiak Txileko lantegiko 370 langileri eragingo die, haien kontratuak desegitea ekarriko baitu atzetik. *Denim* ehuna (bakeroa) eta *workwear* deiturikoa (lanekoa) egiten jarraituko du Tavexek Brasil, Mexiko eta Argentinako lantegietan.

Tavexek 50 bat herrialdetan ditu bezeroak eta exportazioek %80 suposatzen dute. 2010eko lehen sei hilabetekoan %39,5 handitu sarrerak eta horri esker galerak (6,9 milioi euro inguru) %70,5 gutxitu dituzte.



Irudian Tavexek Bergaran, Elorregin, duen lantegia. TXOMIN MADINA

**LAPURRETA**

## Antzuolan hamar autotan sartu dira

Lapurrek autoetako alboetako kristalak apurtu zituzten aparailuak hartzeko

**J.B.** > ANTZUOLA

Azkenaldian Debagoienean errepikatu izan diren autoetako lapurretak Antzuolara ere heldu dira. Abuztu hasieran izan zen lehenengo eta joan den astean errepikatu egin dira. Izan ere, hamar autotan sartu ziren lapurrak eguen gauean. Lapurrek teknika bera erabili zuten auto guztietan aparailu elektrikoak –GPS nabigatzaileak eta musika erreproduzigailuak batez ere– eramateko: alboetako kristalak apurtzea.

**HERRI OSOA ZEHARKATUZ**

Lapurrek Antzuola osoa zeharkatu zuten, ahalik eta aparailu gehien eramateko .

Horren adierazle da herriko hiru auzotan ostu zutela; Antigua, Sagasti eta Beheko auzoetan, hain zuzen.

**SUTEA**

## Etxeko sukaldea sutan, Musakolan

Egubakoitz gauean Sailuente plazako etxe baten susto galanta hartu zuten

**J.B.** > ARRASATE

Ezbeharra izan zen egubakoitz gauean Arrasateko Musakola auzoko Sailuente plazan. Udaltzaingoak jakinarazi duenez, 21:20an piztu zen sua etxe bateko sukaldean. Zartagin batek su hartu eta sukaldeko kanpainara zabaldu zen. Zorionez, ez zen zauriturik izan, baina kalte materialak izan ziren. Lekuko baten arabera, etxebizitzaren jabea "lur jota" zegoen ezbeharra gertatu ostean.

**GAUA SENITARTEKOEN ETXEAN**

Suhiltzaileek sutea kontrolatu arte eraikineko bizilagunak etxetik irtenarazi zituzten. Sua ez zen zabaldu eta bizilagun guztiek euren etxeetan egin zuten lo, sutea eman zen etxekoek ezik. Horiek senitartekoen etxean pasa zuten gaua.

ARRASATEKOBASERRIKO PRODUKTUENAZOKA
09:00 -14:00
HILEKO 3. ZAPATUAN
irailak 18
urriak 16
azaroak 20




Antolatzailea: ARRASATEKO UDALA AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN
Enplegu eta Garapen Ekonomikoaren Saila
Laguntzailea: ibai-arte
Arrasateko baserriek eta merkatariek **konfiantza, hurbiltasuna eta kalitatea** eskaintzen dizkizuete.



Angiozarko Larrañaga baserrikoa jaiotzez, Serapi Arantzabal Arrasaten bizi da gaur. JOSETXO ARANTZABAL

**Serapi Arantzabal** > Afagi elkarteko Debagoieneko arduraduna

# "Asko maitatu behar den umetxo bat bezalakoa da Alzheimer gaixoa"

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

**Alzheimerraren gaineko Nazioarteko Eguna ospatuko da irailaren 21ean, eta hori dela eta Gipuzkoako Afagi elkarteak hainbat ekitaldi egingo ditu Arrasaten. Serapi Arantzabalek gertutik ezagutu du Alzheimerra; senarra gaixo izan zuen bost urtez eta 2001ean hil zitzaion arren, Afagin jarraitzen du oraindik ere. 77 urterekin, adorea ez zaio falta.**

**Serapi, baduzu meritua...**

Ez dakizu zenbat preziatzen nuen laguntzen zidaten apurra! Horregatik jarraitzen dut, beharra duten guztiei ahal dudan neurrian laguntzen. Ez naiz sekula damutu Afagin jarraitzeaz.

Arrasateko ekitaldiak antolatzeko sei lagun elkartu gara eta, horrez gain, beti dago zer egin: aholkuak eman beharra duenari, elkarteko loteria banatu... Elkarteak Arrasate Pasealekuko 3. zenbakian duen lokalean egoten ginen familiarrekin lehen, hamabostean behin, baina hori bukatu zen, eta orain psikologoa bidaltzen dute Afagitik eguaztenero. Aita Mennin ere banabil boluntario; martitzenero joaten naiz hango gaixoekin egotera; kafetxoa hartu, jokalditxo bat egin... bi ordu inguru egiten ditugu. Lanak aurrera jarraitzeko indarra ematen dit.

**Alzheimerraren kasuan, zer izan zen gogorrena zuretako?**

Gizona gaixo zegoela onartzea. Garai hartan Eibarren bizi ginen eta neurologoarekin zortea izan genuen; gizonari gaixotasuna diagnostikatu ondoren, oso gomendio baliagarriak eman zizkidan niri. Inoiz ez diot entzun beste inori halako gomendioak eman dizkiotenik, eta oso garrantzitsuak dira halako egoera baten aurrean denok galduta gaudelako. Gainera, umerik ez genuen izan eta Eibarren gu biok bakarrik ginen; akordatzen naiz Afagiko ordezkari batek eman zidan gomendioa, telefonoan dirua gastatzeko. Izan ere, asko eskertzen da norbaitekin berba egitea eta gauzak konpartitzea. Horixe izan zen Arrasatera etortzeko arrazoi nagusia, hemen familia genuelako. Ahizpak, koinatuak, koinatak, ilobek eta lagunek pilo bat lagundu zidaten. Asko maitatu behar den umetxo bat bezalakoa da Alzheimer gaixoa, eta 24 orduz zaintzea oso gogorra da. Azkenerako nik ere ezin nuen; gizonezko altua zen senarra, jausi egiten zitzaidan etxean... Zortzi hilabetez Eguneko Zentrora eraman genuen eta azken hiru hilabeteak Aita Mennin egin zituen.

**Denon artean gaixotasuna geratzea eta gaixoen zein zaintzaileen bizitza kalitatea hobetzea aldarrikatzen duzue orain.**

Bai, *Elkarrekin ahal dugu* da Gipuzkoan zehar egingo ditugun jardunaldien leloa. Diputazioa, udaletxeak, gizartea, komunikabideak..., denak inplikatu behar dira. Oraindik ere ezjakintasun handia dago gaixotasunaren inguruan; espezialistek gehiago dakite baina... Informazio gehien batzea ezinbestekoa da gaixotasuna ondoen eramateko. Ea Arrasaten egingo ditugun jardunaldiek gutxienez sentsibilizazioa pizteko balio duten.

**"Telefonoan dirua gastatzeko gomendatu zidaten; asko eskertzen da norbaitekin berba egitea"**

**"Oraindik ere ezjakintasun handia dago Alzheimerrarekin"**

## Mahai-informatiboak zapatuan eta jaialdia eta bazkaria domekan Arrasaten

Gipuzkoan zehar Afagik antolatutako ekitaldietako batzuk Debagoienera, Arrasatera iritsiko dira. Zapatuan, irailaren 18an, mahai informatibook jarriko dituzte herriko hainbat tokitan eta domekan, hilaren 19an, trikitilarien, dantzarien eta otxote baten saioak izango dira Arrasateko plazan, 12:30ean. Egun berean, 14:00etan, bazkaria antolatu dute Sara jatetxean. Izenematea (25 euro) Kutxan egin daiteke, bihar martitzenera arte. Bestalde, irailaren 22rako, hitzaldia iragarri dute Afagikoek: Maria Victoria Lucero psikologoak *Alzheimer y demencias* hitzaldia egingo du. Afagi elkartearekin harremanetan jartzeko interesa dutenek 943 29 71 18 telefonora edo *www.afagi.org* webgunera jo dezakete.

**etxeko leihotik**



**Ubane Madera** > arrasate@goiena.com

## Iluntasunaren beltza argiagoa da orain

Ba ni pozik nago. Eta hori, entzun eta irakurri ditudan erreakzio gehienak oso ezkorrak diren arren. Halakoak izateko arrazoiak ere badira, noski, hori badakit. Historia beti da irakasle ona.

Hala ere, oraingo honetan optimista izateko arrazoiak ere badaudela uste dut. Batetik, eskaera politiko baten ostean etorri delako ETAren iragarpena. Bestetik, gizartean bertan ikusten den jarrera aldatu egin delako urteekin, eta uste dut horrek ere zelanbaiteko eragina izango duela gaur egun sortu den egoeran.

Baina jakina, usteak erdiak ustel, dio esaerak. Bale.

Horrek %50eko aukerak uzten dizkigu. Eta zergatik ez ikusi edalontzia erdi beteta?

Pausoak emanez egiten da aurrera, pausook txikiak izan arren. Bidaiarik handiena pausorik txikienarekin hasten da. Hori ere badio beste esaera batek. Beraz, batean eta bestean, segi pausoka. Erantzukizun handiarekin jokatzea tokatzen da orain. Besterik ez bada ere, egoera honengatik sufritzen dabiltzan eta sufritu duten horiengatik guztiengatik: mehatxatuta daudenak, presoak, biktimak, ihesean daudenak eta, jakina, familiak.

**"Sufritzen dabiltzan guztiengatik pausoak ematen segitu behar da"**

Hasierako pausoa emanda dago. Zenbat eta aurrerago egin, orduan eta zailagoa izango da jatorrizko puntura bueltatzea. Eta jatorrizko puntua zenbat eta atzerago egon, konponbidea orduan eta gertuago izango dugu.

**> Oztopoak. Beti salatu izan da azken 50 urteotako egoera ez aldatzeko interes handiak dituzten asko daudela; horiek oztopoak ipintzen ahaleginduko dira orain eta beti, baina denborarekin sekula baino ageriago geratuko dira guztien gainetik.**

**> Gutxi baina zerbait. Exijentzia ugari entzun ditugu ETAren suetenaren ondotik, egin dutena gutxiegi dela iritzita; hala izango da, akaso. Baina gutxi beti da ezer ez baino gehiago, eta Euskal Harriko gizarteak merezi du gutxi horri eustea.**

**EUSKARA** > 'BIDAIDE' EGITASMOA

## Topaguneak eta Jaurlaritzak hitzarmena sinatu dute

Aurtengoan 70.000 euroko dirulaguntza jasoko du euskara elkarteen federazioak

**E.M.** > BERGARA

Mintzapraktika egitasmoak sustatzeko 2010 urteko *Bidaide* egitasmoa aurrera eramateko hitzarmena sinatu zuten Topaguneak eta Eusko Jaurlaritzak egubakoitzean, Bilbon. Jasone Mendizabal Topaguneko zuzendaria eta Lurdes Auzmendi Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea izan ziren sinatze ekitaldian. Herriz herri mintzapraktika proiektuetan parte hartzeko erabakia hartu duten lagunak nabarmendu zituen Mendizabalek, beraien euskaraz bizitzeko nahiak eraman baititu euskaraz aritzeko guneak sortzera. Euskara elkarte, euskaltegi eta bestelako eragileen lana ere azpimarratu zuen. Bosgarren urtez sinatu den hitzarmena da hau eta aurtengoan 70.000 euroko dirulaguntza jasoko du Topaguneak.



## Dukiena jatetxea

Azkoaga auzoa / ARAMAIO
945 44 50 86

**Eskaintza**
- Menua eta karta
- Jaunartze eta bataioak
- Enpresa bazkariak
- Lagun eta familia arteko ospakizunak

**Berezitasunak**
- Arrain freskoa laban erreta
- Etxeko postreak

**Astelehenetan itxita**



## Erreka jatetxea

Zerrajera 4, behea / ARRASATE
943 53 32 72
*www.errekajatetxea.eu*

**Eskaintza**
- Eguneko menua
- Menu bereziak astebukaeretan
- Ezkontzak
- Jaunartzeak
- Enpresa bazkariak

**Igande gauean eta astelehenetan itxita**



## Etxe-Aundi

Torre auzo 9 / OÑATI
943 78 19 56
*www.etxeaundi.com*

**Eskaintza**
- Ezkontzak
- Karta
- Asteburuetarako menu bereziak
- Eguneko menua
- Enpresentzako harrera gelak
- Aparkalekua

**Egunero zabalik**

Larrinetxe
JATETXEA

## Larrinetxe

Udala auzoa / ARRASATE
943 79 22 15
*www.larrinetxe.com*

**Eskaintza**
- Aukera zabaleko karta eta astebukaeretan menu bereziak
- Sasoiko okelak, arrainak eta etxeko postreak
- Bokatak eta plater konbinatuak ordu guztietan.

**Martitzenetan itxita**

# *Jatetxe Gida*



## Lasa jatetxea

Ozaeta jauregia, Zubiaurre 33. / BERGARA
Tel.: 943 76 10 55
*www.restaurantelasa.com*

**Eskaintza**
- Jangela: 250 lagunendako.
- Karta.
- Eguneko menu bereziak asteartetik ostiralera.
- Kongresuetarako aretoa.
- Parking.

**Gipuzkoako bankete-jatetxe onenaren Mas Gastronomia 2009 saria.**



## Unzueta sagardotegia

Zabola z/g /ARAMAIO
945 44 50 95

**Eskaintza**
- Sagardoa txotxetik urte osoan
- Sagardotegiko menua
- Karta
- Eguneko menua
- Parking eta terraza
- 70 lagunendako tokia
- Bataio, jaunartzeak eta kintadak

**Egunero zabalik**



## Zotz jatetxea

Zubillaga auzoa / OÑATI
943 78 35 45

**Eskaintza**
- Eguneko menua
- Ogitartekoak
- Hamarretakoak

**Berezitasunak**
- Menu bereziak egubakoitz eta zapatuetan

**Igandeetan itxita**



Kalitate turistikoa

## Zumelaga jatetxea

San Antonio 3 / BERGARA
Tel.: 943 76 20 21
*www.zumelaga.com*

**Eskaintza**
- Enpresako bazkari eta afariak
- Despedidak, ezkontza eta bataioak
- Karta eta menu berezia
- Elbarriendako sarrera eta irteera egokituak

**Igande eguerdietan zabalik**
eta astelehenetan itxita

Jose Inazio Munilla Donostiako gotzainaren presentzian burutu zen elizkizunean agurtu zituzten Juan Kruz Mendizabal eta Iñigo Mitxelena parrokoak

**ERLIJIOA** > PARROKO ALDAKETAK

# Agur beroa egin zieten Bergarako eliztarrek orain arteko parrokoei

**TXOMIN MADINA** > BERGARA

Zutik jarraitu zuten askok atzo Bergarako San Pedro parrokian ospatutako elizkizuna. Izan ere, elizkizuna berezia izan zen: bertan esan zitzaien agur azken urteotan Bergarako parroko izan diren Juan Kruz Mendizabal eta Iñigo Mitxelenari. Jose Inazio Munilla gotzainak esan zuen meza.

Sermoian, Munillak erlijiosoen libre egoteko betebeharra aipatu zuen, eta azpimarratu aprobetxatu beharreko luxua dela Bergarako parrokoen gaztetasuna. Hainbat une hunkigarri bizi izan ziren mezan zehar, besteak beste Juan Kruz Mendizabalen agurra eta meza amaieran eliztarrek bi parroko ohiei emandako opariak. Meza ostean asko eta asko izan ziren agurra aurrez aurre ematera hurbildu zirenak.

**BIDE BERRIAK**

Parroko ohiek bide berriei ekingo diete. Mendizabal Munillaren bikario izango da, eta Mitxelena Leireko Monastegira da kontenplazio-biziera egitera. Atzoko mezan egon ziren Jon Molina eta Iñaki Amutxastegik hartuko dute euren lekua. Antzuolako parroko ere izango dira.

**ARRASATEN ERE, PARROKO BERRIA**

Jon Molina izan da, hain zuzen ere, orain arte Arrasateko parroko. Zapatuan herriko parroko berria aurkeztu zuten, Imanol Prieto.



Atzoko elizkizuneko une bat. Ezkerretik eskuinera, Iñigo Mitxelena, Iñaki Amutxastegi, Munilla gotzaina, Jon Molina eta Juan Kruz Mendizabal. T.M.

ESANAK

**"Ez genuen uste hain denbora gutxi egongo ginenik Bergaran, baina oso esperientzia aberasgarria izan da"**
**Iñigo Mitxelena** > Parroko ohia

**"San Pedro eliza konpontzea, gazteak eta elizako hainbat ebanjelizazio gune zaintzea daude gure erronken artean"**
**Iñaki Amutxastegi** > Parroko berria

**"Gaztetasunaz aparte, talentu eta fedea ere behar dira, eta saiatuko gara gauzak ahalik eta txukunen egiten"**
**Jon Molina** > Parroko berria

**"Malkar berri bati aurre egingo diot orain, eta ilusioa galdu gabe orain arteko karta berberak erabiliko ditut"**
**J. Kruz Mendizabal** > Parroko ohia

**AZPIEGITURAK** > TREN SAREA

# Hamazazpi enpresa aurkeztu dira Zumarraga-Eibar trenez lotzea ikertzeko

Iraila amaieran emango dute jakitera zein enpresak egingo duen ikerketa.

Bertan, besteak beste, Debagoienean geltokirik jarri edo ez aztertuko dute.

**TXOMIN MADINA** > ARRASATE

Hamazazpi izan dira denera Zumarraga eta Eibar artean trena jartzearen bideragarritasuna aztertzeko Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio sailak deitutako lehiaketara aurkeztu diren enpresak.

Aurreikuspenen arabera, iraila amaieran emango dute jakitera zein enpresak irabazi duen lehiaketa eta honek 350.000 euroko aurrekontua eta urtebeteko epea izango du bideragarritasun azterketa aurkezteko.

Eusko jaurlaritzaren asmoa Gipuzkoa osoa zeharkatuko lukeen "tren biribilgune" bat egitea da, hain zuzen ere Eibar-Donostia-Zumarraga-Eibar ibilbidea egingo lukeen linea osatzea.

**GELTOKIAK DEBAGOIENEAN**

Manu Rueda Eusko Trenbide Sareko ordezkariaren esanetan, bideragarritasun plan honekin jakin gura dena da ea posible den Zumarraga eta Eibar artean trena egitea, eta baita interesgarria den edo ez erabakitzea.

Ruedaren esanetan, planak trenbide horren geltokiak ere aztertu beharko lituzke eta gaineratu du posible dela hauetako bat Debagoienean egotea. Bergara eta Arrasaten dagoen enpresa eta biztanle kopurua aipatzen ditu horretako ETSko ordezkariak. Gaineratu du era berean, trenbide horrekin bat egingo luketen adar posibleak ere jasoko direla azterketan.

**ZUMARRAGA-MALTZAGA LINEA**

Ruedak gogoratu du baita ere 1975era arte martxan egon zela Zumarraga eta Maltzaga arteko trenbidea eta trenbide berria egingo balitz, posible dela trena bera lehengo trazatutik igarotzea.

Esan bezala, enpresa irabazleak urtebetean aurkeztu beharko du ikerketa. Ruedak zehaztu du baina, horrek ez duela esan gura trenbidea egingo denik. Lehenengo aztertu egingo dute interesgarria den edo ez, zein den kostu ekonomikoa eta horretarako momentu egokiena den.

DATUAK

**350**
**MILA EURO**

Aurrekontu horixe izango du ikerketa egiteko lehiaketa publikoa irabazten duen enpresak, eta urtebeteko epean izango du trenbidearen bideragarritasuna baloratuko duen azterketa.

**35**
**URTE TREN BARIK**

1975 urtean geratu zen bertan behera Zumarraga-Maltzaga linea, eta orduz geroztik ez da Debagoienean trenik egon. Zumarraga-Eibar linea eginez gero, posible da gure ibarrean geltokia izatea.

> IRTEERA

### Behaketa astronomikoa Ulma Fundazioarekin

ULMA Fundazioak Ilatargi Astronomi Elkartearekin batera Torrealdera (Oñati) irteera bat antolatu du behaketa astronomikoa egiteko.

Egubakoitzean, hilaren 17an izango da hori, eta 20:00etan izango da hitzordua. Arropa eta oinetako erosoak eramatea aholkatu dute.

> HERIOTZA

### Elgetako Joakin Gastesi apaiza hil zen zapatuan

Atzo egin zituzten zapatuan hil zen Joakin Gastesi apaizaren aldeko hileta elizkizunak.

Jaiotzez orexarra, ia bizitza osoa egin zuen Elgetan. Oso ezaguna zen Bergaran ere, hainbat auzotan esaten zuen-eta meza.Oskarbi kultur elkarteari lotuta egon zen eta ezagunak dira Elgetako elizari eta hainbat kultur ekimeni egindako dohaintzak.

MUren eredu berriaz, eredu propioaz, dihardu Bixente Atxak. Ikaslea eta praktikak protagonista diren ereduaz, talde lanaz, unibertsitatearen eta enpresen arteko elkarlanaz... "Enpresek ikusi behar dute ikerketaren garrantzia eta guk ikusi behar dugu enpresaren garrantzia; ikerketa gehi berrikuntza edo transferentzia", dio. Eta etorkizunaz: sistema txertatuez.

**Bixente Atxa** > Goi Eskola Politeknikoko zuzendari nagusia

# "Etorkizunari aurrea hartzeko, ingeniari globalak eta eragileak hezi gura ditugu"

ENEKO AZKARATE > ARRASATE

**Joan den astelehenean egin zuen MUk ikasturte hasiera ekitaldia Garaia ikerkuntza gunean. Ekitaldi hartan inauguratu zuten Goi Eskola Politeknikoaren ikerkuntzaren eta transferentzien zentro berria. Horren gainean jardun dugu Bixente Atxa (Oñati, 1966) Goi Eskola Politeknikoko zuzendari nagusiarekin.**

**Zentro berria inauguratu duzue, baina dagoeneko ikerlariak bertan daude?**

Bai, joan den astelehenean inauguratu genuen zentro berria, baina irailaren lehenetik dabiltza bertan lanean ikerlariak. Hauek joan dira Iturripetik Garaiako campusera. 35-40 ikerlari inguru, gehienak informatikakoak eta elektronikakoak. Gero, hasieratik, integratu ditugu informatikako doktoretzak eta baita informatikako prestakuntza-zikloak eta ingeniaritzako gradu ikasketak.

**Ikerketa zentro berri horretako sistema txertatu mota txikiak, ezezagunak eta, askotan, ikusezinak dira, baina bizitzako eta eguneroko arlo guztietan erabiltzen dira, ezta?**

Bai. Gaur egun, pertsona bakoitzak 100 bat sistema txertatu erabiltzen ditu egunero. Auto bakar batean 60 bat sistema txertatu aurki ditzakegu: leihoak zabaltzeko, balaztak edo argiak kontrolatzeko…

**Zer da sistema txertatu bat?**

Sistema elektroniko inteligente bat. Batetik, irakurtzen edo jasotzen daki informazioa: fenomeno fisikoak, hala nola tenperatura, hezetasuna, abiadura, e.a. Informazio horrekin, sistema txertatu horrek ateratzen ditu ondorio batzuk eta ondorio horiek beste sistema bati bidaltzen dizkio. Eta erabaki batzuk hartzen ditu. Esaterako, auto batean, abiadura handiegian bagoaz, abiadura hori moteltzeko erabakia; edo, eskuko telefono batean, sakatzen ditugunean tekla batzuk, dei bat egitea erabakitzen du sistema txertatu horrek… Sistema txertatu batek integratzen ditu informatika, telekomunikazioak eta elektronika.

**Ze garrantzia du zentro horrek unibertsitatearen garapenean?**

Jauzi kualitatibo handia da. Baina, lehenik eta behin, aipatu gura dut zein den gure unibertsitatearen helburua: ezagutza sortzea eta jendartera zabaltzea. Ezagutzarako biderik onena formazioa da. Eta sistema txertatuen teknologia oso garrantzitsua izango da hurrengo urteetan gure enpresak lehiakorrak izan daitezen. Horretarako, gure ikasleak arlo honetan ondo formatzeak dauka erabateko garrantzia. Bestalde, sortzen dugun ezagutza jendartera zabaltzen dugu enpresekin batera. Elkarlanean ikerketa proiektuak egiten ditugu. Gero eta garrantzi handiagoa dute sistema txertatuek gure enpresetako produktuetan. Esaterako, Mondragon Taldean bertan, auto markendako modulu asko egiten ditugu, auto barruan integratzeko. Baina horietako asko ez dira modulu inteligenteak eta geroago eta gehiago baloratzen da inteligenteak izatea. Bada, guk laguntzen diegu enpresei modulu inteligenteak fabrikatzen.

**Espainia mailan alor honetan erreferente nagusi izan nahi duzue?**

Eta baita Europa mailan ere. Enpresa asko dauzkagu inguruan, elektronika eta sistema txertatuen alorrean punta-puntakoak direnak. Egia da, hala ere, alor honetan munduan beste batzuk ere asko mugitzen dabiltzala. Horregatik, inguruan ditugun enpresekin elkarlanean jardun gura dugu, batetik, eta baita ikasleak alor honetan hezten eta ikertzen ipintzea, bestetik.

**MUren ikurretako bat izango da ikerketa zentro hori. Baina hor daude baita ere Oñatiko Enpresagintzaren fakultate berria, Aretxabaletako campus berria, urrutirago joanda Basque Culinary Center…**

Bai. Aurten apustu sendoa egin dugu unibertsitatea indartzeko, eta, betiere, gure eredua jarraituz.

**Ikasturte honetan, beste erronkarik nabarmenduko zenuke?**

Goi Eskola Politeknikoari dagokionez, azkeneko urtean hasi gara auto elektrikoarekin Mondragon Automocionekin batera. Apustu sendoa da auto elektrikoa, Citycar izenekoa, goitik behera diseinatzea. Boloniari dagokionez, gure hezkuntza propioari esker hiru urte daroatzagu Europara egokituta. Emaitzak oso positiboak dira.



Bixente Atxa, Arrasateko Goi Eskola Politeknikoko lorategian. ENEKO AZKARATE

SISTEMA TXERTATUAK

**"Sistema elektroniko inteligenteak oso garrantzitsuak dira gure enpresak lehiakorrak izan daitezen"**

ENPRESA ETA UNIBERTSITATEA

**"Enpresek ikusi egin behar dute ikerketaren garrantzia"**

Hirugarren erronka da MU Plus deitzen dioguna. Prestakuntza iraunkorraren garapena gure plan estrategikoan ondo markatuta dago eta gabiltza gure prestakuntza hiriburu guztietan eskaintzen.

**Zelan prestatzen dira etorkizuneko ingeniariak krisi garaian?**

Azkeneko urteotan ereduz aldatzen gabiltza. Izan ere, lehen, edukiak lantzen ziren gehienbat. Gaur egun, edukiez gain, jarrerak ere hezten gabiltza. Ingeniari proaktiboak hezi gura ditugu. Aurrera egiteko, berritzaileak izateko tenorea edo jarrera dutenak. Mundu osoan daude gure lehiakideak eta gaurko eta etorkizuneko ingeniariak mundu osora zabalik izan behar dute. Bestalde, hizkuntza oso garrantzitsua da. Lehen, gaztelania bakarrik lantzen zen; gero, euskara sartu zen; eta egun, gure ikasketen %70 euskaraz ematen ditugu, baina aurrerantzean ingelesa behar-beharrezkoa da. Ingeniariek hiru eletakoak behar dute izan. Edukia, jarrera eta hizkuntza. Horiek dira gure hezkuntzaren gakoak. Ingeniari globalak eta eragileak.

**Eraginik eduki du horrek ikasketetan?**

Bai, jakina. Eredua goitik behera aldatu dugu. Ez ditugu ikasgaiak ebaluatzen, kurtso osoa baizik. Ikasleak subjektu ia pasibo izan dira, ez dira protagonistak izan. Aurrerantzean, berriz, ikasleen papera indartu gura dugu, irakasleena txikitu barik. Talde lana eta proiektuak oso garrantzitsuk dira.

**Txina, Brasil, India, gorantz doazen herrialdeak dira. Zer egin hemen lehiakorrak eta punta-puntakoak izaten jarraitzeko?**

Batetik, garbi dago gure ikasleek eduki behar dutela esperientzia nazioartean eta gure helburua da ikasleak atzerrira eroatea, lehiakorrak izateko beste batzuek zela egiten duten lana eta ze kulturakoak diren jakin behar dugulako. Bestetik, gure enpresak punta-puntan jartzeko bide bakarra elkarlana da. Enpresek ikusi behar dute ikerketaren garrantzia eta guk ikusi behar dugu enpresaren garrantzia; ikerketa gehi berrikuntza edo transferentzia.

**Ze paper dauka Arrasateko Goi Eskola Politeknikoak Mondragon Taldean?**

Oso garrantzitsua. Izan ere, lehenengo-lehenengo, bidaltzen ditugu gure ikasleak Mondragon Taldeak atzerrian dituen enpresetara. Ikasturte amaierako proiektua gure ikasle askok egiten du Fagorrek Polonian duen lantegian edo Turkian, Txinan… Bestalde, gure unibertsitateak atzerrian lankidetza hitzarmenak ditu 100 bat unibertsitaterekin eta sare hori erabiltzen dute gure enpresek, negozioak egiteko, produktuak garatzeko…

Abantailaz betetako kluba!

Goiena kluba

# Atera etekina txartelari!




## Abantailak

- Goienkaria astelehenetan eta ostiraletan etxeko postontzian jasotzea
- Goienak antolatutako ekitaldi eta ikastaroetan prezio berezia
- Goienak kaleratzen dituen produktuetan prezio berezia: DVD kopiak, CDak, kamisetak, Goienkaria-ko Sailkatuak, eskelak, ekitaldietarako sarrerak... eta orain, opari eta deskontu paregabeak lortu ditugu zuretzat

**Eta gainera, Goiena Klubeko zozketetan parte hartzeko aukera izango duzu.**

## Deskontu bereziak

LILURA EDERTZE INSTITUTUA

**BERGARA (Bazkidearentzat eta lagunarentzat)**
- Laser depilazioa: hanka osoa + izterrondoa **-%15** + opari besapekoak (axilak).
- **-%20** elikagai-intolerantzia proban.
- **-%10** mikropigmentazioan: begietan, ezpainetan edo bekainetan.
- **-%10** fototerapia bidezko aknearentzako tratamenduan.

RENAULT AUTOBERRI

**ARRASATE/AZPEITIA/ELGOIBAR/IRUN/TOLOSA**
- **-%5** konponketetan, ez bada prezio itxia edo promozioa.
- **-%25** saltzen ditugun pneumatikoetan, urte osoan.
- Ordezkapeneko autoa 20 euro.
- Erosketetaren momentuan, goian aipatutako deskontua baino handiagoa badago, bezeroari deskontu handiena eskainiko diogu.

IKER SUKALDEAK

**ARRASATE/OÑATI**
- Sukalde osoa erosita, etxetresna elektriko bat opari.

Barceló BIDAIAK

**BERGARA/ARRASATE**
- **-%5** pakete konbinatuetan 600 eurotik gorako erosketagatik (eskaintza berezietan izan ezik).

ESTACIÓN DE SERVICIO ARRASATE (MECA) AVIA

**ESTACIÓN DE SERVICIO ARRASATE (MECA)**
**ARRASATE**
- **-%2** gasolindegian erregaia erosita.
- **-%2** dendako produktuetan.

MONDRAGON LINGUA

**ARRASATE /OÑATI (18 urtetik gorakoentzako bazkideentzat)**
- **-%15** ingeleseko eta euskarazko ikastaroetan, SISTEMA KONBINATUAN. Ikasturte osoan.
- **-%15** aurrez aurreko eskoletan.
  Eskaintzaren epemuga: 2010/03/01

naren FISIOTERAPIA ZENTROA

**ARETXABALETA**
- **-%15** zerbitzu guztietan.

CLINICA DENTAL BERGARA

**CLINICA DENTAL BERGARA**
**BERGARA (Bazkidearentzat eta familiako batentzat)**
- **-%10** zerbitzu guztietan
- **-%15** inplanteetan.
- 120 eurotik gorako tratamenduetan garbiketa doan.

TXURI-URDIN Donostia

**DONOSTIA**
- Bi erosi eta bat ordaindu ostiraletan, ez bada jaiegun, jaiegun bezpera, zubia edo oporraldia.
- **-%20** larunbatetan eta igandeetan, ez bada zubia edo oporraldia.
- **-%10** zubi eta oporraldietan.

AQUARIUM DONOSTIA-SAN SEBASTIAN

**DONOSTIA**
- Bi erosi bat ordaindu (sarrera garestiena ordainduko da).

LARRAÑAGA AUTOESKOLA

**BERGARA**
- **-%15** inskripzioa ordaintzean.

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA

**DONOSTIA**
- Bi erosi eta bat ordaindu (sarrera garestiena ordainduko da).

**Enpresendako: Zure enpresa Goiena Klubean eskaini nahi baduzu jarri gurekin harremanetan.**

**Telefonoa: 943 25 05 05 | Posta-e: *kluba@goiena.com***

**kale inkesta**

# Kaleko altzariak-eta nahikoa zaintzen ditugula uste duzu? Zein da zure iritzia?



**Diego Murillo**
Bergara



**Nerea Aperribai**
Bergara



**Sorkunde Zubizarreta**
Bergara



**Mikel Azkarate-Askasua**
Bergara

Uste dut orokorrean nahiko ondo zaintzen ditugula kaleko altzariak. Gertatzen da jaietan eta halako egunetan, zoritxarrez, izaten direla kalteak. Dena dela, Bergaran ez dut arazo handirik dugunik.

Txukun ikusten ditut kaleko altzariak. Txakurrendako txiza-lekuak, berriz, ez, umeendako infekzio guneak dira, txakur batek erabiltzen badu, beste txakurrik ez doalako, eta umeak hurbiltzen direlako.

Ez dut txarto ikusten, jendeak orokorrean errespetatzen ditu kaleko altzariak, ala? Baliteke festa egunetan eta kalte gehiago izatea, baina aparteko gauzarik ez, niri behintzat ez zait ikustea tokatu.

Egunez nik uste dut jendea zintzo ibiltzen dela, Beste gauza bat da parranda egunetan eta horrelakoetan... Orduan, bai, gazteek gehiegikeriak egiten dituzte igual... Baina ez dut uste arazo larria denik.

**irakurlearen txokoa**

# 943 25 05 05

goienkaria@goiena.com

ANTZUOLA

**> Jendea hasi da horrenbeste lapurretekin nekatzen**

Asteburuan hamar auto zabaldu dituzte Antzuolan, eta aspaldian geroago eta gehiagotan gertatzen diren kasuak dira: "Horrelakoak gertatzen zirenean bazirudien garajeak zituztenek buruhauste bat gutxiago zutela, baina garaje barrutan ere lapurretan dihardute". Antzuolako lapurretak bakarrik ez, ibarretik gertu, Soraluzen, enpresa batean lapurretan harrapatu zituen Ertzaintzak bi lagun.

ARRASATE

**> Txikitxu Arrostaitzekoen jaian giro ederra**

Zapatuan jai giro ederra egon zen Arrasaten, Txikitxu Arrostaitz dantza taldekoek ondoen dakitena egiten ospatu zutelako jaia, dantzan. "Dantza taldean ibilitakoak eta gaur egun taldean dabiltzanak elkartzea oso idea ona izan da".

ARAMAIO

**> Rallysprintaren ostean, bazterrak negargarri**

Inoiz deitu izan du jendeak haserre lasterketen aurretik jendea entrenatzen ibiltzen delako. Oraingoan ez dugu horrelakorik jaso, baina bada lasterketa ostean bide bazterrak zikin geratu direlako haserre dagoenik: "Antolatzaileek kartelean garbi adierazten dute mendian zaborrik ez botatzeko, eta kontenedoreak ere jartzen dituzte. Baina, jendeak ez ditu erabiltzen, gainean eseritzen dira lasterketa erosoago ikusteko".

**usteak uste**

**Jokin Bereziartua**

# Elbako piratak, Debaraino?

Elba ibaiko piratak. Hiru hitzok gazteleraz Internetako bilatzaileetan sartuz gero, St. Pauli klubarekin egingo duzue topo. Futbol talde bat dela konturatuko zarete lehen begiratuan. Baina edozein loturatan klik eginda ohartuko zarete ez dela edozein talde. Hala balitz ez litzateke Arrasaten lagunarte bat sortuko, *Beste bat!* lagunartea, hain zuzen. Futbolaren negozioaren desertuan oasi bat dela esatea larregi da agian, baina futbolaren artalde erraldoian ardi beltza direnik ez dago zalantzarik.

Emaitzez haratago, bizitza eredu alternatibo baten aldekoa da zalegoaren gehiengoa: faxismo, arrazakeria eta homofobiaren aurka eta okupazio mugimendutik eratorria. Euren ikurra ezaguna egin da mundu osoan: piraten ikur zen garezurra. Bada, Elbatik Debaraino heldu dira, antza: adi egon, zapatuan da-eta abordatzea!

**zorroztailea**



**Markos Balentziaga**

# Tolerantziaren keizpia

"Musulmanentzat sakratua da Korana, eta Gainesvillen (Floridan) hura errez gogoratu asmo zituen 2001eko New York, Washington eta Pennsylvaniako atentatuak Terry Jones apaiz protestanteak".

**Garikoitz Udabe**
Berria > 2010-09-11




Luze-luzia da "tolerantzia" berbia esateko, baña motz-motza, motzegitxua be bai, aukeran, jarduera bihurtzeko. Joan dan astian Floridako Jones artzain protestantiak iraillaren 11n Koran-suak egitteko planak aurreratuta zeuzkala izan dabe berriketagai mundu zabaleko komunikabidiak.

2001eko iraillaren 11ko New Yorkeko triskantziaren oroigarri, Koran-erreketak egittia nahi zeban Floridako Jones artzaiñak, triskantza haura eragin zebenak musulmanak zirala eta. Mundu erdiko agintarixak errogatibak egin zotsen Jones artzainari esanez, kirtenkeixa bat proposatzen zebala eta musulman estremistrak, erantzun moduan, han eta hemen egingo zittuztenak demasekuak izango zirala, eta mesedez, Koranik ez erretzeko. Azkenian, Floridako Jones artzainak atzera egin zeban: Koran-erreturak bertan behera laga zittuan.

Behin eta berriro, askotxotan, jazoten da erlijiñuarekin lotutako erabagittan eta debekutan... mutureko diran pentsaeren eta oiñarrixen aplikaziñuak ezartzia. Horren adibide dira emakumiak abade egin ahal izatiak eragitten diharduan hasarrek eta zatiketak protestantien artian; edota Iranen orain bizpahiru aste Sakineh andria, ezkontzia hautsi izanaren akusaziñopian, harrika hiltzeko hartu zeben erabagi haluzinantia, momentuz etenda dauana.

**"Mundu erdiko agintarixak errogatibak egin zotsen Jones artzainari esanez, kirtenkerixa bat proposatzen zebala"**

Tolerantziak keizperik emoten ez dotsen praktikak dira. Bistan da norbait (harrika) hiltzetik liburu bat erretzera bittarte haundi-haundixa dauala. Intolerantziaren sokan ez dira malla bereko koskak. Baña intolerantziaren soka horretan berorretan koska gehixao be badao.

Hara: musulmanak aittatu dittut edota Floridako Jones artzaña, tolerantziaren kontra eredu moduan. Baña eta, etxian zer barri da ba? Bestela dira gauzak gure artian? Hemen, etxian edo etxeinguruan, badogu Munilla monsiñore bat antimusulmanismuan Floridako Jonesengandik milla betera egongo dana... (edota milla laenera baño ez) baña seguru-segurua da Munilla hori Euskal Literaturako "Garoa"ko Joanes artzañaren patxada eta tenpletik urrintxo, urriñegi be bai, dabillela.

Goienkaria
ASTELEHENEKO

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • E05 Basabe Poligonooa • 20550 ARETXABALETA
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi
**Asteburuko erredakzioaren arduraduna** Xabier Urtzelai **Erredakzioa** Jokin Bereziartua, Txomin Madina, Edu Mendibil, Miren Manias **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Diseinu arduraduna** Iñaki Iturbe **Maketazioa** Kepa Martelo **Publizitate arduraduna** Mireia Larrañaga **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazio arduraduna** Agurtzane Gaintzarain

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Ibarra kalea 6 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-0088/04 • **ISSN:** 1697 3542 • **Tirada:** 5.000 ale • **Difusioa:** 4.383 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

ASTELEHENEKO GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA orrialdean edo kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

**Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria**

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria**



**> ARRASATE**
Jendea hasi da urriaren 1ean izango den Maritxu kajoi egunerako prestaketak egiten **> 14**



**> BERGARA**
Agorrosingo kanpoko igerilekuan gauez apurketak egin dituztela salatu dute **> 16**



**> ARETXABALETA**
Copreciko eraikin berriaren lanak aurrera doaz, 12 milioi euroko aurrekontuarekin **> 19**

**ARAMAIO** > JAIAK

# Euskarak eta sagardoak bat egin zuten Aramaion, Txirritola Egunean

**HAMABI**
Aramaioko hamabi sagardogilek hartu zuten parte

**TXOTX IREKIERA**
Herriko Bertso Eskolakoek egin zuten txotx irekiera

**GIRO ONA**
Inguruko herrietako jendea ere hurbildu zen Aramaiora atzo



Herriko hamabi sagardogileren sagardoa dastatzeko aukera izan zen atzo eguerdian Aramaion. Jende dezente batu zen. JOSETXO ARANTZABAL

**EDU MENDIBIL** > ARAMAIO

Goizean zerura begira ziren Aramaioko Txirritolako lagunak, euriak elkarteko jaia zapuztuko ote zuen beldurrez. Eguerdi partean, berriz, lainoak bai baina euririk ez. Ordurako Ehiztari Txiki elkartean eta kanpoaldean lanean ziren sukaldariak eta talogileak. Jendea gerturatzen hasi zen poliki-poliki eta 12etan puntuan Xabier Herrarte Txirritolako presidenteak hartu zuen hitza. Aramaioko Bertso Eskolak egiten duen lana nabarmendu zuen. Izan ere, eskolaren 13. urteurrenean, haiei egokitu zitzaien txotx irekiera egitea. Urte borobila izan dute aurtengoa gainera, besteak beste, Aramaioko Koadrila arteko Txapelketa eskuratuta. Herrartek txirritola bat eman zien oroigarri modura Xabi Igoa eta Peru Abarrategi ikasleei. Eta bertsoen ondoren, txotx irekiera egin zuten gazteek. Igoak bertsoetako baten bota zuenez, ahoan euskara eta sagardoa batuz, ez da kexarik, mingaina pozik delako.

**HAMABI SAGARDOGILE**

Eta horixe frogatu ahal izan zuten Aramaiora hurbildutakoek. Antolatzaileen arabera, beharbada, beste urte batzutan baino jende gutxiago batu zen atzo. Andra Mari Kofradiaren eguna ere bazen atzo, eta horrek jendea gutxituko zuen agian. Edozein modutan, Arrasateko jendea edo Aretxabaletakoa ere ikusi genuen. Txirritolakoek bi eurotan saldu zituzten edalontziak eta nahi beste sagardo edateko aukera zegoen. Aramaioko 12 sagardogilek parte hartu zuten Txirritola Egunean, eta basoa eskuan, bata eta bestearen arteko ezberdintasunen gainean jardun zuten gazte eta nagusiek. Bazegoen non aukeratu. Umeendako henna tatuajeak eta ileapaindegi tailerra jarri zuten Txirritolakoek. Paulino Ibabek, Mikel Kortabarriak eta konpainiak sagardoa egiteko prozesua erakusten zuten eta sagar zukua ematen zien txikienei probatzeko. Etorkizuneko sagardozaleak zaindu beharra dago. Ordu batak aldera batu zen jende gehien; ilara luzeak taloa erosteko... Eta euskara eta sagardoa ahoan, giro alaian eman zioten amaiera jaiari.



**Xabi Herrarte**
Txirritolako presidentea

"Euskara sustatzea eta, aldi berean, gure hizkuntzaren gaineko kontzientziazioa piztea dira gaurko helburuak. Bide batez, herritarrei egiten dugun lana erakusten diegu. Badira hamar bat urte Txirritola Eguna ospatzen dugula eta balantzea positiboa da".



**Enrike Gardoki**
Untzena baserrikoa

"Orain dela 15 bat urte hasi ginen sagardoa egiten, baserrian. Emazteak, seme-alabek eta amak laguntzen naute. Txirritola Egunean ez dut hutsik egin orain arte, giro polita sortzen da. 32 botila ekarri ditugu gaur. Aurtengoa sagardo gozoa atera zaigu".



**Yolanda Sillero**
Herritarra

"Gureian bizi gara eta domekero jaisten gara herrira. Txirritola Eguna ospatzeko ohitura ere badugu eta gaur umeekin etorri gara, sagardoa dastatzera eta taloa jatera. Lau sagardo dastatu ditut orain arte eta horietako bi oso onak...".

**BERGARA** > SAN MARTINGO FERIA

# Giro eguzkitsua, jende ugari eta uztaldi oneko produktuak ferian



Ferian saritutakoak, eskuratutako trofeoekin, Bergarako Munibe plazan, Agurne Barruso alkatearekin eta antolatzaileekin. JOSETXO ARANTZABAL



Bittor Rodriguez, Noelia Aldai eta gainerako epaimahaikideak, gaztak dastatzen. E.M.




Pikunietako gazta egileak. J.A.



Barazkietan 11 postu izan ziren lehian. E.M.



Eguerdian 150 kilo odoloste gertatu zituzten plazako txoznan. J.A.



Talogileak Seminarioan lanean. Jende ilara luzeak sortu zituzten. E.M.

## Barazkietan 11 lehiakide, fruituetan 6 eta gazta lehiaketan 35 izan ziren. Kalitatea nagusi

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

San Martin ferian urtetan antolatzaile lanetan ibiltzen den Regino Vallek lasaitu ederra hartu zuen barazki, fruitu eta gazta lehiaketako sari banaketaren ostean. Dena ondo atera zen, aurten ere. Goizeko seietan hasi zen lanean eta ordu batak eta erdiak pasatxo ziren sariak banatu zituztenean. Gazta lehiaketako bederatzi epaimahaikideek izan zuten beharbada lanik gogorrena (edo atseginena askorentzat): 35 gazta dastatu behar izan zituzten irabazlea erabakitzeko. Asteon Ordiziako lehiaketa ospetsuan txapeldun gertatutako Juanjo Aranburu bigarren postuarekin konformatu behar izan zen oraingoan. Kontuak kontu, aurpegi ezagun asko saritutakoen artean, lehendik ere trofeoak jasotakoak. Itxura ikusgarria erakusten zuen San Martin plazak goizean goizetik. Trikitilariek jardun zuten giroa alaitzen baina jendea ez zen saltzaileek espero bezain beste animatu erosteko orduan. Halaxe zioten baserritar batek baino gehiagok.

**ODOLOSTEEN ARRAKASTA**

Eguerdian partean, azken urteotako ohiturari jarraituz, herriko hainbat harakinen odolosteak dastatzeko aukera izan zen San Martin plazan. Jende ugari hurbildu zen tabernara. Arduradunek 150 bat kilo odoloste gertatu zituztela adierazi ziguten. Seminarioan, berriz, taloak hartzeko jende ilara ere ez zen makala. Bazkal ordurako jendea etxeratzen hasi zen eta gutxi batzuk izan ziren Iralako *txomingeroen* bazkarian. Eguzkiak gogor jotzen zuen. Arratsalderako eta gauerako indarrak gorde beharra zegoen. Eta eguaztenean, danbor hotsak iritsiko dira.



**Kontxi Izagirre**
Bidaurre baserria, Antzuola

Kontxi Izagirrek lehen saria eraman zuen fruituetan. Beteranoa da San Martingo ferian, 21 urtetan etorri baita. Zapatuan, gehien, sagarrak saldu zituela zioen; pozik zegoen eskuratutako sariarekin.



**Sonia Isasi**
Trazaola baserria, Iurreta

Karmen amarekin etorri zen Sonia. Harro-harro erakusten zituen etxeko txakolinarekin irabazitako sariak. Gipuzkoako feriatan gutxiago ibiltzen diren arren, gustuko du Bergarakoa. Saria eraman zuten.



**Urtza Sarrionandia**
Iuribarrigoikoa baserria, Igorre

Igorretik etorri eta fruituetan bigarren saria jaso zuten Urtzik eta haren hiru lagunek. Saltzeko orduan krisia zertxobait igartzen dela zioen. Edozein modutan, plazako giroaz gozatu zuten zapatuan.



**Jose Mari De Borja**
Ibarreko Nekazaritza bulegoa

Gazta lehiaketan epaimahaikide ibili zen Jose Mari De Borja bergararra. Gazten kalitatea eta, orokorrean, aurtengo San Martingo feriaren maila nabarmendu zituen.

## Saritutakoak

**BARAZKIAK**
1. Jose Manuel Zabalegi (Martutene)
2. Tomas Larrañaga (Antzuola)
3. Ezozi Etxeberria (Soraluze)

**FRUITUAK**
1. Kontxi Izagirre (Antzuola)
2. Urtza Sarrionandia (Igorre)
3. Sonia Isasi (Iurreta)

**GAZTAK**
1. Puy Arrieta (Araia)
2. Juanjo Aranburu (Idiazabal)
3. La Leze (Ilarduia)



herritarrek ondo erantzun zioten dendarien ekimenari. JOSETXO ARANZABAL

**ARETXABALETA** > I. 'IXADEBALDE' AZOKA

# Herritar ugari zapatuan eskaintza onenaren bila

'Ixadebalde' azokaren lehenengo edizioak piztu zuen interesa aretxabaletarren artean.

**TXOMIN MADINA** > OÑATI

Arropa eta zapata dendak, liburu zein janari dendak, belar-denda, taberna eta baita UDA eta Loramendi elkarteen postuak ere. Hamalau izan ziren zapatuan 'Ixadebalde' azokan euren produktuak kalera atera zituzten denda eta elkarteak, eta Mitarte kalean jarritako postuetan ibili zen jendetza ikusita, esan daiteke lehen edizioak harrera ona izan zuela.

Alberto Asensio Aretxarteko presidenteak azaldu zuenez, ekimenaren asmoa zen herriko merkataritza sustatzea eta horretarako dendetako produktuak kalera ateratze otu zitzaien. "Arriskatzea pentsatu genuen, eta badirudi momentuz ondo irten zaigula", esan zigun.

**PREZIO MURRIZTUAK**

Arropak 10 edo 15 euroren truke, zapatak gehienez 20 eurotan... Prezioen murrizketa handiek lortu zuten jendea erakartzea. Txikienendako gainera, Udalak lagunduta bi puzgarri jarri zituzten azoka egin zen kalean.

Asensioren esanetan, aretxabaletarrek badute ohitura erosketak kanpoan egiteko, eta horregatik saiatzen dira elkartetik zapatuko azoka bezalako ekimenak antolatzen. Azoka berezi honek jarraipenik izango duen ala ez galdetuta, Aretxarteko presidenteak esan zuen oraindik ez dutela baloraziorik egin, baina izandako arrakasta ikusita, posible izango dela aurrerago bigarren edizio bat egotea.

**ARRASATE** > TXIKITXU ETA ARROSTAITZEN URTEMUGAK

# Ehun dantzaritik gora dantza-taldeen festan

Urte hauetan guztietan Arrostaitz eta Txikitxu taldeetan ibilitako dantzariek hartu zuten parte urtemuga festan



Hainbat belaunalditako dantzariak ibili ziren elkarrekin. JOSETXO ARANZABAL

**TXOMIN MADINA** > ARRASATE

Dantza aspaldi utzitakoak, egun dantzari direnak eta lehen urratsak ikasten dabiltzanak. Ehundik gora dantzarik hartu zuten parte zapatuan Txikitxuren 40. eta Arrostaitzen 20. urteurrenak direla eta plazan egindako erakustaldian, denak ere bi taldeei lotuta egondakoak.

Askotariko dantzetan adin guztietako jendea batuz, ikusle piloa erakarri zituzten.

Festa ez zen dantzariekin amaitu. Giokelaren eskutik saiheski pintxoak egon ziren, baita dantza taldeetako gurasoek prestatutako taloak ere. Gosearen kontzertuak borobildu zuen eguna.



TXOMIN MADINA

**OÑATI** > GAU GURTZAILEEN MENDEURRENA

# 43 taldetako kideak elkartu ziren mendeurren ospakizunean

Urtetan hara eta hona ibili eta lagun onak egin izanaren seinale, beste 43 gau-gurtzaile taldetako ordezkariak izan zituzten lagun Oñatikoek herriko gau-gurtzaileen mendeurrena ospatzeko.

Agustindarren elizan talde ezberdinetako banderei harrera egin ostean, parrokiara abiatu ziren prozesioan eta han burutu zituzten elizkizunak Jose Ignacio Munilla Donostiako gotzainaren presentzian.

**sane** fisioterapia zentroa

Ane Remedios Sanchez
Ane Coranti Gabilondo

Ibargarai 35
20570 Bergara
Tel.: 943 25 24 40
*sanefisioterapia@hotmail.es*

- **Errehabilitazio uroginekologikoa eta biszeral-digestiboa.**
- **Tratamendu traumatologikoak.**
- **Erditze aurreko prestaketa.**
- **Erditze osteko errekuperazioa.**
- **Gimnasia abdominal hipopresiboa (GAH). Hilero talde berriak.**
- **Etxez etxeko fisioterapia.**

**OSPAKIZUNAK** > MARITXU KAJOI

# Badator Maritxu Kajoi eta denek gura dute egon dotore

Jantzi eta jatetxeak Maritxu Kajoi kutsuarekin beteta daude dagoeneko; Maritxu Kajoi Komisiñue ere badabil mirari eta bestelakoak antolatzen



Meher dendako Tobias Hernandezek hainbat estilo, kolore eta telatako jantziak ditu salgai aurtengo Maritxutarako. U.M.

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Pare bat aste besterik ez da falta Maritxu Kajoi egunerako; astebete gutxiago, jakina, txikiteroen zaindariaren nobenaixorako (irailaren 24an da hori, 18:30ean hasita). Eta jaiaren gertutasuna agerikoa da Arrasateko kaleetan eta arrasatearrean artean. Esaterako, kolore beltzak hartu ditu jantzi-dendetako erakusleiho gehienak, beltza da-eta, Maritxu Kajoi egunean agintari. Eta saltzaileek eskaintza bereziekin iragartzen dituzte, gainera, jai berezi horri begira ekarri dituzten traje eta soinekoak, egun bakarreko jaia dela kontuan hartuta eta bezeroen eskaerak aintzat hartuta.

**AURTENGO KOLOREAK**

Tobias Hernandezek, San Andres auzoko Meher jantzidendako ugazabak baieztatu egin du hori guztia. Dendako erakusleihoan jantzi dotoreak ditu ipinita, eta denda barruan luxuzko soineko eta trajez betetako pertxak dira nonahi: "Agintzen duena beltza da beti, nahiz eta hasita ere badauden kolore berriak sartzen: urdin kobaltoa, grisak, gorriak, morea... Eta gainera, ekartzen ditudan soinekoak dira prezio oso baxuekin, eta, jakina, berriak. Jantzi dotoreak, kalitate onekoak eta ohi baino merkeago izan behar dira. Nik baditut 10 eurotik hasita, 40-60 eurokoak...".

**JANTZIEN TENDENTZIAK**

Jantzi motari dagokionez, denetarik ikusiko dugu aurten: motzak, luzeak, zetazkoak, tertziopelozkoak... hori bai, tirantedunak gehienak ere, "jaian horrek agintzen du". Hori horrela, apurtxo bat estaliago joateko eta beltzari kolore apur bat sartzeko orotariko osagarriak ere badituzte saltzaileek: "Txalak, tulak, gasak, txaketatxoak, torerak, boleroak... denetik apur bat, hotzarengatik ere babesteko", dio Hernandezek. Eta osagarrien artean, bitxi , poltsa eta zapi eta denetarik onartzen da Maritxutan; hori bai, betiere, dotoreak baldin badira: "Nire amaginarreba Anitak egiten dizkidan telazko loreak ditut nik" .

**GIZONETAN, TXALEKOAK**

Jakina, gizonezkoak ere hartu dituzte aintzat Maritxutarako; mota guztietako eta prezio guztietako alkandorak daude, adibidez: "Aurten gorputzera pegatzen diren horietakoak etorri dira.. eta txalekoak ere asko ikusiko ditugu, dotoreak, bodetan senargaiek eramaten dituztenen modukoak", dio Hernandezek.

**KOMISIÑUE, LANEAN**

Arrasatearrak eta etorriko diren bisitariak badabiltza bada, Maritxutarako guztia prestatzen. Eta horretan dihardu, baita ere, Maritxu Kajoi Komisiñuek. Oraindik, baina, sekretuan gordeta dute guztia. Bi aste barru gehiago.

JANTZIAK LEHEN ETA ORAIN

## Antzinako jantziak 8.000 pezetatan

Maritxu Kajoi hasi zenetik (70eko hamarkadako hasiera) gaur egunera arte jaia aldatu dela agerikoa da; bereziki, jantziei dagokienez. Meher dendako Tobias Hernandezek ondo daki hori: "Lehen, antzinako jantziak janzten ziren, jostunek egiten zituzten, telak-eta saltzen zituzten saltokietan. Ni behin Madrilgo saltoki handi batzuetara joan nintzen, halako antzinako jantziak ikusi, mordoxka bat erosi eta ekarri egin nituen, 70-80 bat soineko. Badira erraz 20 urte harrezkero. Tulak, kasketeak, pamelak... osagarri guztiekin. 8.000 pezetatan saldu nituen. Berehala saldu, gainera. Eskuetatik kendu egin zizkidaten. Bizpahiru urtean ibili nintzen halakoak saltzen, gero ez nituen gehiago lortu. Horrez gain, bezeroak beste jantzi batzuk eskatzen hasi ziren; ez zuten antzinako jantzirik nahi. Poliki-poliki joan da hori aldatzen. Frak-ak eta esmokinak ere izan ditut, kapela eta guzti. Baina hori ere galtzen joan da. Gaur egun ezkontza baterako janztea bezala da".

JATETXEAK

## Afariak gutxituz, bazkariak indartuz

Jantziak dira Maritxu Kajoi egunaren ezaugarrietako bat. Duda barik, koadrilen arteko bazkari eta afariak dira beste ikur nagusiak. Koadrilek badakite adi ibili behar dutela jatetxean lekua hartzeko, bete-beteta egoten dira-eta, asko aurreko urtetik hartuta. Hala ere, jantziekin moduan, jatetxeetan ere tendentziak aldatzen doaz. Hori da, esaterako, Garagartzan dagoen Arteaga jatetxean ikusi dutena, Igor Ezpeleta sukaldariaren esanetan: "Eguerdia beteta dugu, gaua oraindik ez. Urteotan oso azkar aldatu da, gainera. Arrazoiak izan daitezke eguna luzatu nahia (oso motz geratzen da), edo kooperatiben kontua. Izan ere, kooperatibek ordutegi berezia dute eta jendea eguerdirako libre egoten da". Ezpeletak kontatu du 230 bazkari-afari ematen dituztela egun horretan, menu bereziarekin, eta eguerdian, batez ere, gazteek hartzen dutela jatetxea eta gauean, berriz, 45 urtetik gorakoek. Hori bai, guztiak ere koadrilatan, Maritxu koadriletan ospatzeko jaia da-eta.

**txaloak eta txistuak**

## Lekua egon arren, zaborra kanpoan

Hainbat herrikideren jarrera salatu eta agerian utzi gura du gure irakurle batek, hark ateratako argazkiak erakusten duen moduan: "Askotan ikusi dut zaborra edukiontzietatik kanpo. Baina argazkia atera nuen egunean barruan begiratu nuen, eta edukiontziak hutsik zeuden. Hala ere, jendeak nahiago du kanpoan utzi". Zerrajerako beste auzokide batek ere bat egin du salaketarekin: "Bai, bai, halaxe da. Eta askotan egoten dira, gainera, edukiontziak hutsik".




IMANOL SORIANO

>OSOKO BILKURA

### Abaroa berria noiz zabalduko duten zehaztuko dute gaur

Gaur, astelehena, ezohiko osoko bilkura egin behar du udalbatzarrak, uztaila ezkero egingo duten lehen batzarra. Ordua ere ezohikoa da: 09:00ak. Eta baita landuko duten gai zerrenda ere, pare bat besterik ez duelako: batean, gaur erabakiko dute zein arduratuko den Abaroa berriko tabernarekin datozen urteotan. Behin hori erabakita zehaztu ahal izango dute, baita ere, noiz zabalduko duten zaharren egoitza berria. Gaur landuko duten bigarren gaia, berriz, ekonomia gaiekin lotutakoa da; izan ere, aurtengo aurrekontuaren kreditu aldaketaren espedientea izango dute mahai gainean ordezkari politikoek.

> GARRAIO PUBLIKOA

### Ordutegia aldatuta Garagartzarako garraio publikoan

Garagartza eta Gesalibar auzoetara doan 15:00etako taxi-bus zerbitzua kendu egingo dute. Arrazoia da aurrerantzean urbanoa ez dela auzo horietara iritsiko, taxi-busak bakarrik egingo du joan-etorria. Hori horrela, 16:45ean orain arte autobus urbanoak ematen zuen zerbitzua bere gain hartuko du aurrerantzean taxi-busak, ikusi dutelako erabiltzaileak baditela ordu horretako. Baina diruak agintzen du, eta zerbitzu hori mantentzeko beste bat kendu beharra zuen Udalak. Hala, erabiltzaile gutxiago dituen 15:00etako zerbitzua kentzea erabaki dute. Funtzionamendu berria gaurtik (astelehena) sartuko da indarrean.

JENDARTEA > ELKARTEAK

# 'Beste bat!' taldea, St. Pauli klubaren filosofiaz bat eginez

## Hanburgoko St. Pauli klub bereziarekin bat egiteko lagunartea sortu dute herrian; zapatuan ezagutzera emateko jaia egingo dute, gaztetxean

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

Lagunarte berri bat sortu da Arrasaten. Futbol talde baten lagunartea da, baina haratago doa. Hasteko, Alemaniako Bundesligan –hango Lehen Mailan– lehiatzen den kluba da. Baina ez da edozein talde, eta horregatik heldu da gureraino. Hanburgo erdialdean kokatuta dagoen Sankt Pauli auzoko taldeaz ari gara, St. Pauli klubaz, hain zuzen.

**KLUB BAT BAINO ASKOZ GEHIAGO**

1910ean sortu zen, portu ondoan kokatutako auzo txiki eta langile batean. Auzo umila, ikasle eta etorkinez josia, 1980ko hamarkadan Alemaniako mugimendu alternatiboaren ikur bihurtu zen auzoa, *Hafenstrasse* deritzon okupazio mugimenduaren ildotik. Hala, futbol taldeak berak estatutuetan jaso zituen orduan defendatzen zituzten ideiak: faxismo, arrazakeria, sexismo eta homofobiaren aurka altxatu ziren. Egun, esaterako, klubak garapen bidean dauden herrialdeetako biztanleek ur edangarria izateko proiektuak laguntzen ditu.

Futbolean emaitzek agintzen dutela esan ohi da. Bada, horretan ere salbuespena da St. Pauli. *Beste Bat!* lagunarteko kide eta Alemanian jaio baina Arrasaten bizi den Dirk Morenweiser-ek dioenez, St. Pauli klubeko garrantzitsuena kirol arrakasta balitz, ez legoke talderik: "Hirugarren Mailan jokatzen zutenean ere 12.000 zale izaten zen etxeko partidu bakoitzeko, maila horretako bataz bestekoa 200 zale direnean". Galdu zein irabazi, giro "bakarra" izaten da Millerntor estadioan, Morensweiser-ek dioenez: "Eta mendeurrenean igotzea lortu dutela jakinda, Bundeslisga abordatuko dute, ziur!".

**300 LAGUNARTE MUNDU OSOAN**

Bestalde, Hanburgoko taldeak jaso duen babesak ez du mugarik. Taldeko zaleek, *underground* kulturak eta klubaren filosofiak mundu osoan sortu ditu jarraitzaileak. Hala, egun ia 300 lagunarte daude mundu osoan eta goi mailako hamaika musikari igo dira *Elba ibaiko piraten* ontzira: Bad Religion, Turbonegro, Asian Dub Foundation...



Egun 40 bazkide inguru dira *Beste Bat!* lagunartean. Irudian, ekainean egindako lehen batzarra. BESTE BAT!




Logotipoa egiteko St. Pauliren ikurra erabili dute, *Elba ibaiko piraten* ikurra. BESTE BAT!

### 'St. Pauli jaia', taldea ezagutzera emateko

'Beste bat!' dute izen, musika munduan oso famatua den esaera. Egun 40 bazkide inguru dira eta gehienak arrasatearrak izan arren, Bizkaia, Nafarroa, Irlanda eta Alemaniako kideak ere badaude. Euren asmoa da urtean behin St. Pauliren fenomenoa bertatik bertara ezagutzea. Zapatuan, hasteko, jai berezia egingo dute gaztetxean taldea ezagutzera emateko: punk rockak eta garagardoak bat egingo dute beste behin.

JENDARTEA > MUGIKORTASUNA ASTEA

# Beste era batera mugitzen irakatsiko digun astea dator; aurten, irailaren 16tik 22ra

## Birzikleta azokak, zirkuituak, erakusketak, tailerrak eta ikus-entzunezkoek osatuko dute Mugikortasun Astearen egitaraua

J.B. > ARRASATE

Irailaren 16tik 22ra ospatuko da aurten Mugikortasun Astea. Egun horietan autobus urbano zerbitzua doakoa izango da. Aukera paregabea, beraz, herri barruan autoa hartu barik mugitzeko.

**HAMAIKA EKINTZA ASTEBETEAN**

Urtero moduan, autoz beharrean beste era batera mugitzea posible dela erakutsi digun asterako hamaika ekintza antolatu ditu Udalak. Bigarren eskuko bizikletan azokarekin –Birzikleta azoka– hasiko da astea hilaren 18an; martitzena eta eguena izango dira materiala Udal azokan uzteko azken egunak: 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara. Egun berean, Seg way, Trikke eta Roller zirkuitua izango da Biterin, baita emisio txikiko ibilgailuen gaineko erakusketa ere. Era berean, hilaren 19rako bizikleta bira antolatu dute Arrasatetik Eskoriatzara: 11:00etan Seberotik. Datorren martitzenean, irailak 21, bide hezkuntza zirkuitua izango da Laubide plazan eta amaitzeko, irailaren 22an, tailerrak izango dira Seberon (17:00), eta *Ipar Gazi-Hego geza* ikus-entzunezkoa Kulturateko Jokin Zaitegi gelan (19:00).

> ZERBITZUAK

### Musakolako kanpoko igerilekuak beste astebetez zabalik

Musakolako kiroldegiko kanpoko igerilekuak atzo, hilak 12, itxi behar zituen Aukeak hasiera baten. Baina barruko igerilekuetan obretan dihardutenez –Aukearen asmoa da bi hilabete barru lanok amaituta egotea– eta hasi berri dugun asterako eguraldi ona iragarri dutela kontuan hartuta, beste astebetez izango dira zabalik kanpoko igerilekuak.

Beraz, azken orduko aldaketarik ezean, irailaren 19ra arte kiroldegiko eremu hezea erabili ahalko dute kiroldegira joaten direnek.

> MUSIKA

### Pascal Briggs eta Asier Salaren saio akustikoa domekan, Ferreriasen

Orhipean kultur eragintza taldearen eskutik, kontzertu akustikoa izango da datorren domekan, hilak 19, Ferrerias kaleko plaza berrian, hots, Arrotza plazan. Alemaniako The District taldeko kide den Pascal Briggs musikariak lagun duen Asier Sala musikagile arrasatearrarekin batera joko du. Enboskada talde ohiko kide, Dirty Brothers taldean jotzen du egun Salak. Beraz, punk-rock doinuak izango dira nagusi. Emanaldia 18:00etan hasiko da eta eguraldi txarra egiten badu Irati tabernan joko dute.



**JENDARTEA** > GERTAKARIAK

# Kanpoko igerilekuan gauez apurketak egin dituztela salatu dute

Behin baino gehiagotan kaka ere egin izan dute uretan zein txirristan

Agorrosingo arduradunen esanetan, "maiz" sartzen dira

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

Hainbatek gustua hartu dio, antza, gauez, kanpoko igerilekua itxita dagoela sartu eta trauskilkeriak egiteari. Unai Asurmedi Kirol teknikariaren esanetan, "hiru egunetik bitan sartzen dira". Baina lotsagarriena barruan egiten dituzten "astolanak" dira, haren esanetan: "Sorosleen aulkiak, hamakak eta halakoak uretan azaldu izan dira; kristalezko botilak uretan zein berdegunean apurtuta agertu dira eta kaka ere egin izan dute uretan, txirristan... azkenekoz aurreko asteburuan gertatu zen". Domekan gertatu zen, hain justu ere, eta horren ondorioz, ordubete beranduago zabaldu zuten igerilekua, guztia garbitu eta gero.

Asurmendik garbiketa horiei dagokienez azaldu du, igerilekuko ura berritzeko behar izaten dutela ordubete: "Uraren %80 berritu behar izaten dugu, kopuru hori berrituta osasun baldintza guztiak betetzen dituelako berriz urak. Baina horri egiteko, ordubete inguru behar izaten da, eta horrek dakar denbora tarte horretan igerilekua itxita izatea. Gutxiengo batek, gehiengo bati eragiten dion kaltea".

Horrez guztiaz gain, azpimarratu du spagunearen gainean dauden eguzki plaketako bat apurtuta dagoela, "Smirnoff botila bat bota eta harekin apurtu zutelako".

**SEGURTASUN NEURRIAK**

Agorrosingo kanpoko igerilekura gauez sartze hori ez da aurtengo kontua. Iaz ireki zuten kanpoko igerilekua eta orduan hasi ziren trauskilkeriak. Eta Kirol teknikari Asurmendik gehitu duenez, batez ere uztail hasieran eta abuztu amaieran gertatzen dira.

Ipintza institutura ematen duen hesia salto eginda sartzen dira kanpoko igerilekura. Hala, iaz jaso egin zuten hesiaren altuera: 2 metrotik bi metro eta erdira igo zuten hesia: "Saihestu genuen egunez jendea ordaintzeke sartzea, baina gauekoa ez", esan du Asurmendik. Hala, hesiaren gainean alanbre arantzaduna jartzea ere burutik pasa zitzaiela gehitu du, baina ez dela legala.



Smirnoff botilarekin teilatuko eguzki plaka apurtu dute. GOIENKARIA

**JENDARTEA** > OSASUNA

## Mendekotasuna duten pertsona nagusiak zaintzen ikasteko ikastaroa martxan

Irailaren 21etik urriaren 28ra izango da eta dagoeneko zabalik dago izenematea, Miguel Altunan

**M.B.** > BERGARA

Mendekotasuna duten pertsona nagusien zaintzaren gaineko ikastaro teoriko-praktikoa antolatu du Bizikasi zerbitzuak.

Irailaren 21ean hasi eta urriaren 28ra bitartean izango da, martitzen, eguazten eta eguenetan, honako ordutegian: irailaren 21ean eta 22an, 16:00-20:00 ordutegian izango dira eskolak eta irailaren 23tik urriaren 28ra, 15:00-18:30 ordutegian.

Izenematea dagoeneko zabalik dago eta horretarako zein informazio gehiagorako jo behar da Bizikasi zerbitzuak Miguel Altunan duen bulegora, *info@bizikasi.com* helbidera idatzi edo 943 76 93 94 zenbakira idatzi (Miren Errasti).

**HOBETU ETA ERRAZAGO ZAINDU**

Ikastaroaren atal praktikoan irakatsiko dituzte mugikortasun arazoak dituzten pertsonak mugitzeko teknikak, garabiak egoki erabiltzen eta ohean egoteko postura egokienak bezalako ikasgaiak. Teorikoan azalduko dituzte komunikazio teknikak eta gaixoaren jokabide aldaketen aurrean nola jokatu, esaterako. Eskolak emango ditu Leire Yarzak, Matia Fundazioko terapeuta okupazionalak.

> HITZALDIA

### Zahartzaroak garunean duen eraginaren gaineko hitzaldia egubakoitzean San Joxepe elkartean

*Cerebro y envejecimiento* delako hitzaldia antolatu dute San Joxepe erretiratuen elkarteak eta NIBE elkarteak –Nagusi Izanez Bizi Elkartea– datorren egubakoitzerako. Hitzaldia izango da 17:30ean, erretiratuen egoitzako areto nagusian, eta egingo du Marti Masso Donostiako ospitaleko neurologia departamentuko arduraduna.

Zahartze prozesuan barrena hainbat aldaketa jasaten ditugu; aldaketa morfologiko zein funtzionalak. Eraldaketa funtzional horiek, batik bat, garunaren fluxuei eragiten diete. Adituek diote garunaren zahartzea hasten dela 30 bat urtetik aurrera. Bada, horretaz guztiaz egingo dute berba hitzaldian.

> HEZKUNTZA

### 2010-2011 ikasturtearen gaineko hitzaldi informatiboa egingo du etzi UNED zentroak

UNED zentroak ikasturte berrirako duen eskaintzaren gaineko hitzaldi informatiboa egingo du etzi, eguaztena, 19:00etan, Donostiako Koldo Mitxelena kulturunean. Bergarako zentroak eskaintzen dituen titulazioen %100 Bolognako Planera egokituta ditu. Hala, ikasketa sistema berri horren alderdi nagusienak eta adierazgarrienak azalduko dituzte hitzaldian. Era berean, sistema berri horrek ikasleen artean sorraraz ditzakeen galderei ere erantzungo diete eguaztenean. Ekitaldia bukatu ostean, interesa dutenek ikasketa eta sail desberdinetako buruekin modu pertsonalean batzartzeko aukera izango dute.

## oharrak

SALMENTA

**> Mizpirualde zaharren egoitzak baserri bat jarri du salgai**

Mizpirualde zaharren egoitzak Irazabal-aundi baserria saldu nahi du. Informazio gehiagorako deitu egoitzara (76 13 68 zenbakia) edo jo *www.bergara.net* helbidera.

HEZKUNTZA

**> Udal Euskaltegian matrikula egiteko epea zabalik dago**

Maila guztiak eskaintzen dituzte eta ordutegi zabala dute. Izena emateko edo informazio gehiagorako deitu 943 76 44 53 zenbakira edo idatzi *berg.eusk@udal.gipuzkoa.net* helbidera 08:30-18:30 ordutegian.

BATZARRA

**> TAO zerbitzuaren gaineko batzarra gaur, astelehena**

Hilaren 20an abiaraziko duten gaineko batzarra deitu du Udalak. 19:30ean izango da, osoko bilkuren aretoan.

KINTADA

**> 1960an jaiotakoek afaria egingo dute Tartufon hilaren 25ean**

Izena emateko 30 euro sartu behar dira Euskadiko Kutxako 3035 0009 19 0091136509 kontu zenbakian. Afari egunean 20:30ean abiatuko da autobusa Fraiskozuritik. Bestetik, antolatzaileek eskatu dute aurreko garaietako argazkirik izanez gero *quintossesenta@hotmail.com* helbidera bidaltzeko edo plazan dagoen estankora eramateko kartazal batean eta izena ipinita.

UDALA

**> Kultura taldeendako laguntzak eskatzeko epea zabalik dago**

Irabazi asmorik gabeko kultura taldeei dirulaguntzak emateko oinarriak kaleratu berri dituzte. Taldeok 2010. urtean garatuko dituzten jardueretarako laguntzak dira. Hilabeteko epea dago eskaria egiteko.

KINTADA

**> 1942an jaiotakoek (63ko kintoak) bazkaria egingo dute**

Irailaren 25ean egingo dute, Azpeitxin –gizon zein emakume–, 14:30ean. Izena ematerakoan 20 euro aurreratu behar dira Edel dendan edo Azpeitxin, hilaren 21a baino lehen.

**Nerea Mendizabal eta Maitane Arizabaleta** > Jardun elkarteko teknikariak

# "Aurten 3. mailakoek ere izango dute aukera asteburuko aisialdian parte hartzeko"

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

**2010-2011 ikasturtea hastear du Jardun euskara elkarteak. Urriaren 2an hasiko dute, hain justu ere, eta ikastaroetarako izenematea zabalik dago. Aurreko ikasturtearen balorazio positiboa egin dute hango teknikariek eta hasteko dutena halakoxea izatea nahiko luketela ere gehitu dute.**

**Urriaren 2an hasiko duzue ikasturtea. Dagoeneko zabaldu dituzue asteburuko aisialdiko eta dantza, trikiti eta bertso eskolako izenemateak.**

Bai, aste honetan banatu ditugu eskuorriak ikastetxeetan eta izenematea dagoeneko zabalik dago irailaren 24ra arte.

Urriaren 2an aisialdia jarriko da martxan eta ate irekien jardunaldia egingo dugu, interesa duten guztiek Arrizuriza etorri eta hura ikus dezaten.

Gainontzeko ekintzak urriaren 4an hasiko dira.

**Ze berrikuntza egongo dira aurten? Egitasmo berririk abiaraziko duzue?**

Hasiera batean, iazko eskaintza berarekin abiatuko gara, baina ikasturtean barrena egitasmo berriak abiaraztea aurreikusten dugu.

Bestalde, Txapligu aisialdi taldean aldaketa bat egongo da; hau da, 3. mailakoek ere aukera izango dute asteburuko aisialdian parte hartzeko.

**Hortaz, Berriketan egitasmoa kudeatzen ere jarraituko duzue.**

Bai, egitasmo hori Udalarena da eta aurten ere Jardunetik kudeatzen jarraituko dugu.

Hori horrela, jendea parte hartzera animatu nahi dugu eta deialdi berezia egi nahi diegu urtetan euskara erabili ez dutenei eta berreskuratzea nahi duten guztiei.



Nerea Mendizabal eta Maitane Arizabaleta. M.B.

**"Urriaren 2an eta 3an ate irekien jardunaldia egingo dugu Arrizuri jauregian"**

**"Bereziki, euskara berreskuratu nahi dutenei egiten diegu dei Berriketanera etortzeko"**

**"Elkartearen asmoa da ikasturtean barrena egitasmo berriak abiaraztea"**

**"Ateak irekita ditugu eta ideia berriak edo proposamenak gustura hartuko ditugu"**

**Zein dira Jardunen egutegian faltako ez diren hitzorduak?**

Jolasleku ibiltariak, ikastaroak, hitzaldiak eta egun bereziak; Santa Ageda bezpera, Euskararen eguna, kurtso bukaerako jaialdia eta Gaztaina Erre Eguna bezalakoak.

**Dirulaguntzak, oro har, jaitsi egin direla eta zuek ere jasoko duzue diru gutxiago? Zertan eragingo du horrek zuen egunerokoan, baldin eta eraginik izango badu?**

Egia da dirulaguntzak orokorrean jaitsi egin direla. Baina Jardunek ekintza guztiekin aurrera jarraitzeko apustua egin du. Egoera horri aurre egiteko gastuak murrizten eta diru sarrera berriak lortzen saiatuko gara.

**Iazko ikasturtearen ze balorazio egiten duzue?**

Balorazio positiboa egiten dugu. Ikasturte oparoa izan zen; hainbat ekintza berri egin genituen, jostailu truke azoka eta irakurzaletasun kanpaina, besteak beste..

**Eta nola aurreikusten duzue izango dela hasi berri duguna?**

Bide beretik jarraitu nahiko genuke. Ditugun egitasmoak indartuz eta berriei tartea eginez, azken batean.

**Beste ezer gehitu nahi duzue?**

Jendea parte hartzera animatu nahi dugula. Ateak irekita ditugula herritar guztientzat nahi dutenerako. Ideia berriak edo proposamenak gustura hartuko ditugula.

**JENDARTEA**

## Lanaren eta familiaren bateratzea aztergai

Dirulaguntzak nola tramitatu irakatsiko dute KZgunean hainbat ikastarotan

**M.B.** > BERGARA

Lana eta familia bateragarri egiteko Jaurlaritzaren dekretu berria dela eta, *on line* tramita daitezke eskabideak. Horretarako jarraibideak KZguneek ematen dituzte eta Bergarakoak gai horren gaineko ikastaro sorta antolatu du irailerako, doan. Egubakoitzean izan zen lehena eta hurrengoak izango dira irailaren 16an, 18:00-20:00; 24an, 11:00-13:00; eta 30ean, 16:00-18:00. Guztiak doan.

Ikastaro horietan dekretuaren gaineko informazioa eta tramitazioak egiteko laguntza eta prestakuntza emango dute.

**LAGUNTZA HOBEAK**

Hala dio Jaurlaritzak; lana eta familia bateragarri egiteko laguntza gehiago eta hobeak eskaintzen dituela. Besteak beste, gizon zein emakumeendako laguntzak handitu eta berdindu egin dituzte; eszedentziak hartzeko dirulaguntzak jaso ahal izango dira seme-alabek hiru urte bete arte, edo lanaldi murrizketak zortzi urte bete arte, eskola oporrak metatuz; haurraren adina sei urtetik zortzi urtera igo da lanaldi murrizketarako, eta diru laguntza jasotzeko epea zabaldu egin da 36 hilabetetik 42ra, besteak beste. Informazio hori guztia kontsultagarri dago *www.euskadi.net/falimia* webgunean.

**JAIAK** > SAN MARTINAK

# Eguenean 300 ume arituko dira haurren danborradan

18:30ean abiatuko da eta herrian barrena ibili eta gero, plazan bukatuko da. Han txokolatea egongo da guztiendako

**M.B.** > BERGARA

Eguenean, hilak 15, umeen danborrada izango da San Martin jaietako protagonista. Herriko 300 bat umek hartuko dute parte; herriko hiru ikastetxeetako umeek zein beste hainbatek, euren kontura.

Ikastetxeei dagokienez, aurten Aranzadikoak izango dira gudari japoniarrak eta zaldunak; Mariaren Lagundikoak izango dira danbor-jole japoniarrak; eta San Martin ikastetxekoak izango dira karrozan joango diren pertsonaiak eta barrika-joleak. Musikari dagokionez, Musika Eskolako Bandak lagunduko du danborrada.

Kultura etxetik abiatuko da danborrada eta erdiguneko kaletan barrena ibili eta gero, txokolatea egongo da guztiendako San Martin plazan. Aurten San Martin ikastetxeari egokitu zaio txokolatea banatzea.

**ENTSEGUEK JARRAITZEN DUTE**

Gaur eta bihar haur zein nagusiendako danborradetarako azken entseguak egongo dira. Haurrena 19:00-20:00 ordutegian izango da; nagusiena, 20:00-21:00 ordutegian, biak ala biak Seminarioan.



Irudian iazko umeen danborrada. GOIENKARIA

**Ibon Elgarresta** > Tutorea

# "KZgunea 25 lagunek erabiltzen dute egunero, batez beste"




Ibon Elgarresta, Oñatiko KZgunean. MIREIA BIKUÑA

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

**Ibon Elgarresta (Zumarraga) da KZguneko tutore berria uztaila ezkero. Irailerako askotariko ikastaroak antolatu ditu; batzuk bi ordukoak eta beste batzuk 20 ordukoak. Kultura etxean ematen duen zerbitzuari buruz egin digu berba.**

**Iritsi berria zara Oñatiko KZgunera. Zer topatu duzu?**

Ba, leku txiki baina dotorea dela, eta herritarrek badakitela KZgunea dagoela Oñatin.

**Zenbat lagunek erabiltzen dute zerbitzua?**

Egunero, batez beste, 20-25 bat lagunek erabiltzen dute. Batzuk etortzen dira nabigatzera, beste batzuk egunkariak irakurtzera, beste asko lanak egitera... Atzerriko ikasleek euren posta begiratzen dute.

**IT txartelak ateratzeko probak ere egiten dituzue.**

Bai, hala da, eta orain, gainera, lagun askok dihardute azterketak prestatzen.

**Adinari dagokionez, ze adin tarteko pertsonek erabiltzen dute KZgunea?**

30 urte inguruko lagun asko dabiltza. Baina pertsona nagusiak, 60 urtetik gorakoak ere etortzen dira eta gustura ibiltzen dira nabigatzen.

**Hilero hainbat ikastaro egiten dituzue. Nolako erantzuna dute?**

Ikastaroak ez dira betetzen. Batzuetan pertsona bakarrak dihardu, baina eman egiten ditugu. KZgune handiagoetan ez diote ikastaroa ematen pertsona bakar bati. Oñatin bai. Gehienetan ikastaro pertsonalizatuak egiten ditugu.

**Bi orduko eta 20 orduko ikastaroak dituzue.**

**"30 urte inguruko lagun asko dabiltza, baina erretiratuak ere etortzen dira"**

**"Ikastaroak egiten dihardugu ikasle batekin; pertsonalizatuak egiten ditugu"**

Gehienak, 30 bat, bi orduko ikastaroak dira. Dena den, hilero 20 orduko lau ematen ditugu, oinarrizko Interneten gainekoa. Halakoetara jende gehiago animatzen da. Gehienak Internet ezagutzen ez dutenak dira.

**Ikastaro ezberdinak ematen dituzue hilero?**

Bai. Oro har, gehienak aldatu egiten ditugu. Ikastaro zerrenda bat dugu KZgune guztietan, eta horretara mugatzen gara. Alor gehienak lantzen ditugu eta erabiltzaileek badute non aukeratu. Dena den, ikastaroen gaineko informazio gehiago gura dutenak bulegora etor daitezke.

**Ze ordutegi duzue?**

KZgunea kultura etxeko bigarren solairuan dago. Zerbitzua ematen dugu astelehenetik egubakoitzera 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.

Bigarren solairuan ditugu ordenagailuak eta hirugarrenean ikastaroetarako gela.

**Nortzuk erabil dezakete KZgunea?**

Guztiek erabil dezakete zerbitzua. Doakoa da.



Iaz *Friendship* programan parte hartu zuten ikasleak eta herritarrak Gernikako Batzar Nagusien aurrean. GOIENKARIA

**JENDARTEA** > HEZKUNTZA

# 'Friendship' programan parte hartzeko izenematea zabalik

## 20 bat ikaslek egingo dute masterra Nazioarteko Lege Soziologia Institutuan apirilera arte

**M.B.** > OÑATI

Iazko esperientzia ikusita, Lege Soziologia Institutukoek *Friendship* programaren beste deialdi bat egin dute. Egitasmoan parte hartu gura duten herritarrendako izenemate epea zabalik dute. Atzerritik masterra egitera etorriko diren ikasleak ezagutu gura dituztenek 943 71 88 85 telefonora dei dezakete (Susana Arrese) edo *susana@iisj. es* helbidera idatzi.

Bada, 20 bat ikasle helduko dira datozen egunotan Oñatira: Nepaldik, Italiatik, Txinatik, Kolonbiatik, Indonesiatik, Argentinatik, Errumaniatik, Perutik eta Kamerundik, besteak beste.

**HELBURUA**

*"Friendship* programaren helburua da atzerriko ikasleen integrazioa erraztea. Hori horrela, herritarren laguntza ezinbestekoa da", esan digute antolatzaileek. Iaz 17 ikaslek eta 23 herritarrek parte hartu zuten egitasmoan.

**KIROLA**

# Tenis txapelketako izenematea zabalik

## Zapatuan hasiko dute San Migel txapelketa kiroldegian

**M.B.** > OÑATI

San Migel tenis txapelketako izenematea zabalik dute kiroldegian. Interesatuek bulegotik (943 71 63 75) pasa behar dute eguaztena baino lehen edo *zubikoa@oinati.net* helbidean eman dezakete izena. Oñatiko eta Debagoieneko kirol txartela dutenek 12 euro ordaindu beharko dituzte eta gainerakoek, 15 euro. Partehartzaileek baldintza bakarra bete behar dute: 16 urte beteta edukitzea.

**LIGAXKA ETA KANPORAKETAK**

Jokalariak taldeka banatuko dituzte eta lehen fasea ligaxka modura jokatuko dute. Jokalari onenak kanporaketa bidez lehiatuko dira finallaurdenetatik aurrera.

## oharrak

DEIALDIA

**> 1970ean jaiotakoek kintada egingo dute**

Bazkaria egingo dute Etxe Aundi jatetxean urriaren 16an. Interesatuek 30 euro sartu beharko dituzte lehenbailehen Euskadiko Kutxaren 30350005340051042653 kontu zenbakian.

MUSIKA

**> Ruper Ordorikaren kontzerturako sarrerak salgai**

Kultura etxean dituzte salgai txartelak, egunero, 16:30etik 20:30era, hamar eurotan.

DEIALDIA

**> Hitzaldia egingo dute Pake Lekun bihar**

Raquel Muñozek *Participar es vivir* delako hitzaldia egingo du bihar, martitzena, 17:00etan.

DEIALDIA

**> Igeriketa ikastaroetako izenematea gaurtik**

Egubakoitzera arte eman daiteke izena kiroldegiko bulegoetan: astelehenetan eta egubakoitzetan 09:00etatik 13:00etara; martitzenetan eta eguenetan 16:00etatik 20:00etara; eta eguaztenetan 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.

**ARETXABALETA** > LANAK

# Copreciko eraikin berriaren lanak aurrera doaz

Abuztu bitarteko salmenta bateratuak 110 milioi euro baino gehiago izan dira, iaz baino %34 gehiago


Copreci lantegiaren handitze lanak. GOIENKARIA

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA
Abuztuan hasi zituzten Copreci lantegiaren handitze lanak; hain zuzen, aparkalekuan egingo duen eraikin berriaren lanak. Eta uste dute instalazio horiek datorren ekitaldiaren lehenengo hiruhilekoan egongo direla martxan.

**12 MILIOI EUROKO INBERTSIOA**
Mondragon Korporazioan dagoen lantegiari oraingo eraikina txiki geratu zaio. Hala, azalera produktiboa 4.000 metro koadro baino gehiagorekin handituko dute. Hori, baina, inbertsio plan handiago baten zatia bakarrik dela iragarri dute, "planean 12 milioi eurotik gora baitago 2010erako". Inbertsioetan egindako apustu horren bitartez, Coprecik gaur egun duen abantaila lehiakorra blindatu nahi du, eta etorkizunari begira bere merkatu kuota handia finkatu.

Abuztu bitarteko salmenten berri ere eman dute: "Salmenta bateratuak 110 milioi euro baino gehiago izan dira, eta %34ko hazkundea ekarri dute aurreko urteko aldi berdinarekin alderatuta. Berrikuntzaren eta nazioartekotzearen alde tinko egitearen ondorioz, lidergoa finkatu du, zalantza ekonomikoak nagusi diren garai zailean". Aipatu dute hazkunde hori taldeko planta guztietan gertatu dela, baina Aretxabaletako lantegia batez bestekoaren gainetik dagoela, %35ekin.

Aretxabaletan lanpostu kopurua handitzeaz gainera, kooperatiba bat eratu du Altsasun (Nafarroa), Isphording Hispania lantegiko langile ohiak bazkide eginda.

**ARETXABALETA** > GAZTELEKUA

# Gaztelekua kudeatzeko eskaintza bakarra agertu da

Gaurko gobernu batzarrean aztertuko dute eskaintza hori, lehenbailehen jartzeko abian

**M.A.** > ARETXABALETA
Gaztelekua kudeatzeko dei egin zuen Udalak uztailean, eta, behin eskaintzak aurkezteko epea bukatuta, bakarra jaso dute. Gaur egingo duten gobernu batzarrean aztertuko dute eskaintza hori, eta ezustekorik ezean esleitu ere bai.

Aretxabaletako nerabeendako zerbitzua emango dute Atxagazte gaztelekuan orain arte legez. Zerbitzu horren ardura bi urterako hartuko dute, eta, bi aldeak konforme egonez gero, kontratua urtez urte luzatu ahal izango da lau urte arte. Kontratu hori irailaren 23an sartzea indarrean dauka aurreikusita Udalak; hortaz, iraila bukatu aurretik zabalik izango da Arkupen dagoen gaztelekua.

## oharrak

MENDI IRTEERA
**> Ereatzara egingo du irteera zapatuan Murrukixok**
Egun pasa joango dira Murrukixoko kideak zapatuan, hilak 18, Ereatzara (Bizkaia). Izena emateko martitzenean Durana kaleko egoitzatik pasatu behar da (19:00-20:00) eta 15 euro ordaindu.

ERRETIRATUAK
**> Ile-apaintzailea behar du Basotxo erretiratuen elkarteak**
Egoitzan duen ile-apaindegian lan egingo duen ile-apaintzailea gura dute Basotxoko kideek. Interesatuek telefonoz dei egin dezatela: 680 76 75 97. Azken eguna hilaren 18a da.

BERBALDIA
**> Bertan behera ospitale berria aurkezteko berbaldia**
Eguenean Jose Luis Angulo Arkupen egitekoa zen Debagoieneko ospitalearen aurkezpena bertan behera geratu da.

**ESKORIATZA** > ZOZKETA

# Imanol Etxeberriarendako Aste Zapatistako saria

**M.A.** > ESKORIATZA
Ekainaren 7tik 12ra bitartean Eskoriatzan ospatutako Aste Zapatista barruan txartelak banatu zituzten zozketa baterako. Zenbaki saritua 1.863 izan dela jakinarazi dute antolatzaileek eta dagoeneko agertu da horren jabea, Imanol Etxeberria. Elantxobeko landetxe baten aste bukaera pasatzeko aukera izango du horrek beste hiru lagunekin batera. Argazkian Etxeberria hainbat zenbaki esku artean dituela, tartean saritutakoa.


Imanol Etxeberria. ESKORIATZAKO UDALA

**ESKORIATZA** > KULTURA

# Udari agur esateko 'Zirko Iluna' antzezlana eskainiko du Hortzmugak

Egubakoitzean izango da Herriko Plazan (19:00) zirkua oinarri duen ikuskizuna

**M.B.** > ESKORIATZA
Egubakoitzean, hilak 17, *Zirku iluna* antzezlana eskainiko Hortzmuga taldeak Herriko Plazan (19:00). Udari agur esateko antolatu du ekitaldia Kultura Sailak eta edozein adinetako herritarrek ondo pasatzeko moduko ikuskizuna dela iragarri dute, zirkua oinarri hartuta.

Hala, zirku zahar bateko azken langileek –Jumbo, Kerkus, Mirinda eta Fredo– zirku horren historia kontatuko diete Eskoriatzako ikusleei, izandako bizipenetan oinarrituta. Bidaia sinboliko eta zirraragarria egingo dute, txotxongiloak, zirkuko akrobaziak eta umorea uztartu eta azken saioa eskaini.

**20 URTE ANTZERKIGINTZAN**
Hortzmuga taldeak 20 urte baino gehiago daramatza antzerki kontuetan –bai kalean egiten dena, bai aretoetan– eta hainbat eratako 30 lan egin ditu. "Antzerki aktiboa" izendapen barruan kokatzen da eta "ideietan, emozioetan eta gorputzetan eragitea" gura dutela diote. Egungo gizartea salatu eta pertsonaren sentimendu, emozio eta pasioetan eragin gura du hausnarketarako bidea zabaltzeko.



*Zirko Iluna* ikuskizuneko kartela. HORTZMUGA

Hirusta
Jatetxea
Ilargi plaza 4
943 79 06 57
ARETXABALETA

IRIARTE
Umeen denda
•
Helduen lentzeria
Durana 8
Tel.: 943 79 10 96
ARETXABALETA

BASABE
jatetxea

Basabe bidea z/g
Tel.: 943 77 07 94
Aretxabaleta



Herriko baserritarrek urtean behin egiten dute azoka. L.Z.

**ELGETA** > AZOKA

# Baserritarrei azokan parte hartzeko deia

Azoka hilaren 18an egingo dute, Sagardo Egunarekin batera; postua ipintzeko interesa dutenek udaletxera jo behar dute eguena baino lehen

**LARRAITZ ZEBERIO** > ELGETA
Udalak antolatuta Elgetako baserritarrek euren produktuak Herriko Plazan saltzeko aukera izango dute. Ohikoa denez, Sagardo Egunarekin batera egingo dute azoka, aurten, hilaren 18an. Azken urteotan herriko dozena bat baserritarrek parte hartu izan du azoka horretan; besteak beste, barazkiak, frutak, ogia, eztia, gazta eta aranak ipintzen dituzte salgai euren postuetan. Gehienak herriko baserritarrek egindakoak dira.

Udalak dei egin die baserritarrei aurtengo azokan parte hartu nahi izanez gero izena emateko. Interesatuek udaletxera jo behar dute hilaren 16a baino lehen (eguena). Azokak 11:00etan zabalduko ditu ateak eta 14:00 ingurura arte iraungo du.

Azken urteotako esperientzia polita izan da. Jende ugari hurbildu da azokara eta salmentekin pozik agertu dira, oro har, herriko baserritarrak. Azoka, oraingoz, urtean behin egiten dute.

**VESPAK ETA LAMBRETTAK**
Urteroko beste hitzordu bat, aurten bosgarren aldiz egingo dena, Elgetako Vespa eta Lambretta motorren topaketa da. Domekan, hilak 19, egingo dute eta, urtero legez, Herriko Plazako kontzentrazioa egin ostean, 12:15 aldera 40 bat kilometroko irteera egingo dute. Elgetatik abiatu eta Elorrio aldera egingo dute motorrek. Jarraian, Miñota, Abadiño, Atxondo, Elorrio, Kanpanzar eta Elgetara buelta egingo dute.

Bazkaria ere antolatu dute. Iñaki jatetxean egingo dute. Aldez aurretik izena emateko eskatzen dute. Bi telefono daude horretarako; Iñaki jatetxera deitu daiteke 943 76 82 83 zenbaki telefonora edo Fermin Iribar antolatzaileari 669 107 907 zenbakira. Bazkaria 14:30ean egingo dute.

**ANTZUOLA** > KIROLA

## Mendizabalek Gipuzkoako pilota txapelketa jokatuko du Iruretarekin bikote eginez

Irureta beasaindarrekin egingo du bikote eta Elgeta Kirol Elkartea ordezkatuko dute zapatutik aurrera

**MIREIA BIKUÑA** > ANTZUOLA
Aste bukaeran hasiko dute afizionatu mailako Gipuzkoako pilota txapelketa, eta horretan parte hartuko du Aitor Mendizabalek. Irureta besaindarrarekin egingo du bikote eta Elgeta Kirol Elkartea ordezkatuko dute. "Gipuzkoako txapelketa bikoteka jokatzen da, eta kirol elkarteak ordezkatzen ditugu. Iruretak eta biok Elgeta ordezkatuko dugu".

**GOGOTSU DAUDE**
Gipuzkoako txapelketako pilotariak bi multzotan banatuko dituzte, eta bakoitzean bost bikote egongo dira. Elkarren arteko norgehiagokak joaneko eta itzulerako sistemarekin jokatuko dituzte. Mendizabal gogotsu dago: "Bikote indartsuak daude. Afizionatu mailako pilotari onentsuenak daude. Baina gure asmoa da ahalik eta ondoen jokatu".

**FUTBOL ENTRENATZAILE BERRIA**
Bestalde, Antzuola futbol taldeak badu entrenatzailea. Juan Ignacio Garaik hartu du taldearen ardura. Azken urteotan Urola taldeko entrenatzailea izan da. Garaik ligako lehen partidua zuzendu du aste bukaeran.

**ARAMAIO** > HEZKUNTZA

# Umeen zaintza zerbitzua jarriko dute San Martinen

Gurasoek interesa azaldu dute zerbitzuarekin; pertsona bat izango da lanean eta 08:00etatik 09:00etara eskainiko da, ekainera arte

**E.M.** > ARAMAIO
Umeen zaintza zerbitzua eskainiko dute aurten San Martin ikastetxean. Nekane Arrondo San Martingo zuzendariaren arabera, baliteke hurrengo astean abian jartzea: "Barikuan bukatu zen eskaerak aurkezteko epea eta oraingo astean erabakiko dugu nor kontratatzen dugun. Aramaion bizi izatea, euskalduna izatea eta umezalea izatea, besterik ez dugu eskatu. Pertsona bakarra arduratuko da zaintza zerbitzuaz. Aurretik hainbat saiakera egin izan ditugu, eta, gurasoek berriro ere interesa azaldu dutenez, hastea erabaki dugu".

Zaintza zerbitzua 08:00etatik 09:00etara eskainiko da, ekainera arte. Hasiera baten, 2-5 urte bitarteko bost bat ikaslerekin hasiko dira. Edozein modutan, Arrondok azpimarratu duenez, 5 urtetik gorakoendako ere eskainiko da.

**GASTEIZ BIG BAND, SASTIÑAN**
Barikuetako kontzertuekin jarraituz, Gasteiz Big Band taldeak emanaldia egingo du hilaren 17an Sastiñan. Kontzertua 20:00etan hasiko da.



San Martin ikastetxea. GOIENKARIA

**LEINTZ GATZAGA** > TURISMOA

## Otxandiotik etorritako 100 umek ezagutu dute museoa

Herriaren berri eman eta jaietako ohiturari eutsi gura izan diote ekimenarekin

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA
Oporrak bukatu eta ikasturtea hasi du berriro Eugenio Otsoa gatz museoak. Hala, ohiko ordutegia daukate bisita gidatuek: zapatu eta domeketan: 12:00etan, euskaraz eta 13:00etan, gazteleraz. Gainerako egunetan joateko aurrez egin behar da hitzordua.

Joan den eguaztenean, Dorletako Amaren eguna, esaterako, 100 ume etorri ziren Otxandiotik. Aspaldiko ohitura da irailaren 8an otxandiarrak erromes etortzea Gatzagako jaietara, baina azken urteotan gero eta gazte gutxiago zetorren. Hala, Udalak bitartekari lanak egin eta 2 urtetik gorako neska-mutikoak izan dira aurten; txikienak autobusean eta nagusienak oinez. Gatz museora egin zuten bisita lehenengo eta jolasak ere egin zituzten bertan. Gero, herriko bisita gidatua izan zuten. Hala, sasoi bateko ohiturari eusteko lehen pausoa eman zuten gatzagarrek.

**GATZA ETA GASTRONOMIA**
Museoko arduradun Aitziber Gorosabelek jakinarazi du ekintza bereziren bat antolatzeko asmoa daukala udaberrira begira, "gatza eta gastronomia uztartuko dituen zerbait, seguru asko". Bien bitartean, aste bukaera batzuetan eta San Milixan egunean gatza egingo dute.

Uda lehorra izan da eta museotik pasatzen den errekak ur gutxi daroa. Ondorioz, errotak betetzen duen lana ezin da behar bezala ikusi eta dagoeneko konponduta daukaten maketa erabiliko dute errota horren betebeharra zein zen erakusteko eta gatzaren nondik norakoen berri emateko.



**> AUTO LASTERKETAK**
Joseba Zapirainek hirugarren aldiz irabazi du Aramaion **> 22-23**



**> FUTBOLA**
Mondrak, Bergarak eta Aloñak galdu, eta UDAk irabazi, lehenengoan **> 24**



**> UNDA BOSGARREN**
Munduko borroka libreko txapelketan ezin izan du podiumera igo **> 25**



Zabolan egin zioten omenaldian hainbat opari jaso zituen *Matxain*-ek; hunkitu ere egin zen. JOSETXO ARANTZABAL



Aurreskua dantzatu zioten unean. JOSETXO ARANTZABAL



Opariak jaso ostean, lasaiago. JOSETXO ARANTZABAL

**ARAMAIO** > OMENALDIA JESUS FERNANDEZ DE ARROIABERI

# 'Matxain': "Egin didaten omenaldi hau lagun asko ditudan seinale da"

**PLATER-TIROA**
Omenaldia egin aurretik Kurtzetako gainean batu ziren tirada egiteko

**ZABOLAN**
Gau partean, Zabolan batu ziren lagunak, 'Matxain'-i omenaldia egiteko

**MIREN MANIAS** > ARAMAIO

Kirol ibilbide luze eta dotore bati dagokion errekonozimendua emateko, Jesus Fernandez de Arroiabe eskoriatzarra omendu zuten zapatuan Aramaioko plater-tiro elkarteko lagunek; izan ere, askok izan dute txikitatik *Matxain* irakasle. Enrike Ullibarriarana elkarteko presidenteak azaldu digunez, *Matxain* oso tiradore ona izandakoa da, oraindik ere tiratzen du, eta bizikletan ere munduko txapelketetan jardundakoa da. "Gaztetan hasi ginen gu plater-tiroan eta Kurtzetako gainean ibiltzen zirenen artean *Matxain* zen onena, erreferente izan da guretzat, asko irakatsi izan digu-eta".

**DOMINA ETA KOPA UGARI**

Plater-tiradore moduan, Espainiako eta munduko txapelketa askotan hartu du parte Fernandez de Arroiabek. Horietatik asko irabazi egin ditu, eta, guztietan garaile bilakatu ez bada ere, gehienetan, marka ona egin eta lehenengoen artean kokatu da. Haren ibilbide osoari erreparaztu gero, orri oso bat bete beharko genuke hori kontatzeko. "Eskoriatzako Marulanda auzoko tabernakoa naiz eta bertan dauzkat urtetan irabazitako kopa eta domina guztiak", zioen *Matxain*-ek. Eta kopa asko dira.

Aramaioko plater-tiroko lagunekin oso ondo portatu izan da beti: "Tiradetara askotan ekarri izan ditu berak sariak eta prezio bereziak egin dizkie aramaioarrei bere arma-dendan. Beteranoa izan arren, hari besteei moduan kobratzeko eskatu izan digu beti", azaldu zuten Kurtzetako gainean bildutako lagunek.

**OMENALDI HUNKIGARRIA**

Aramaioko lagunek tirada saioa egin zuten zapatu arratsaldean, *Matxain*-en begiradapean. Omenaldia egin behar ziotela bazekien eskoriatzarrak eta hunkitu samar ikusi genuen: "Lagun on asko ditudan seinale da. Ikusten duzu, jende askoren artean nago gaur eta hori oso ederra da. Egia esateko, hemen beti izan dugu giro ona".

Gauean, berriz, omenaldia egin zioten Aramaioko Untzueta tabernan. Aurreskua dantzatu zioten, eta txapela eta landutako egurrezko oparia eman zizkioten. "Luzerako izango nauzue, ez pentsa!".

ESALDIAK

**"Gaztetan hasi ginen gu plater-tiroan eta Kurtzetako gainean biltzen zirenen artean Matxain zen tiratzaile onena"**
**Enrike Ullibarriarana** > Plater-tiradorea

**"Ni Eskoriatzako Marulanda auzokoa nahiz, eta bertako tabernan dauzkat irabazitako kopa eta domina guztiak"**
**Matxain** > Plater-tiradorea

**AUTO LASTERKETAK** > ARAMAIOKO RALLYSPRINTA

# Vilariñotarrak lasterketara etorri ez iz aprobetxatu zuen Joseba Zapirainek tx

Lehenengo bi txandatan estutu zuen Zapirainek gehien

Zapatuko garaipenarekin hirutan irabazi du Aramaioko lasterketa

**XABIER URTZELAI** > ARAMAIO

Joan den urtean Aramaion –eta aurtengo Euskadiko rallysprint txapelketan– Ander Vilariñok eta haren Subaruak ez zuen kontrariorik izan. Eta bazirudien zapatuan gidoi bera errepikatuko zela, antolatzaileak lasterketara azalduko ez zela enteratu ziren arte –izena emanda zegoen. Antza, zapaturako Vilariñok saldua zuen autoa.

Egoera horren aurrean, garaipenerako bigarren hautagai Joseba Zapirainek (Peugeot 206 WRC) ez zuen kontrariorik izan. Lehenengo bi txandak topera egin zituen (04:07:07, eta 04:07:00) eta arriskatzen ibiltzeak zentzu handiegirik ez zuela ikusita, hirugarrenean hanka altxa zuen (04:12:00) eta txapela jantziko zuela ziurtatu. Guztira 22 segundoko aldea atera zion bigarren sailkatu Joxe Labakari (Mitsubishi EVO).

**LEHIA POLITAK**

Aurrealdean ibili zirenen artean, lehia polita izan zuten Iban Tarsiciok (Escort Cosworth), Aingeru Castrok (BMW M3) eta Txus Jaiok (BMW 320i). Ehunen batzuk gorabehera, hiru txanden ostean Tarsicio nagusitu zen: "Sekulako pikea izan dugu hirurok. Topera joan gara, geneukana emanda, eta azkenean hiruren artean neu geratu naiz azkenengo. Besteei zoriontzea baino ez dago", adierazi zigun aurten autoak aparteko arazorik eman ez dion Txus Jaiok: "Denboraldi polita egiten ari gara. Joan den astean Kantabrian rally zail samarra izan genuen, arazo batzuk izan genituelako, baina orokorrean gustura ari gara".

Pena, konpromiso bat tarteko Jaio ez dela datorren astean Gatzagan egongo, ezta zapatuko irabazle Zapirain ere: "Ez dut denborarik datorren astean Gatzagako igoera prestatzeko", adierazi zigun txapeldunak.

**ARRISKATZEAREN ONDORIOAK**

Askotan, euritan baino istripu gehiago egoten dira eguraldiak laguntzen duenean. Zorua bustita, iaz pilotuak kontuz ibili ziren. Zapatuan, berriz, zirkuituaren goialdeko bide bazterretan lurra altxata utzi zuten pilotu askok, trazatu azkarrena bilatu nahian.

Halaxe erretiratu ziren zortzi pilotu, kolperen bat hartuta –bakarra ere ez larria– edo arazo mekanikoren batekin. Eta, azken hori izan zen Oñatiko Aitor Arnaizen eta David Ardionsen kasua. Arnaiz hirugarren txandan erretiratu zen, eta Ardionsek lasterketa amaitu bazuen ere, arazoak izan zituen azken txandan, eta lehenengo bi txandatan egindako denbora bikoiztuta, sailkapeneko atzealdera joan zen.

**DATORREN ZAPATUAN GATZAGAN**

Aramaioko rallysprintari Leintz Gatzagak hartuko dio errelebua, datorren zapatuan, hilak 18. Antolatzaileen asmoa zen hasiera batean irteera Castañares auzoan jartzea, baina hortik eta Maulandaraino errepide zatia ez dago egoera onean, eta horrenbestez Maulandan gora hasiko dute proba.



Pilotuak auto barruan, hasteko zain. JOSETXO ARANTZABAL



Lasterketako azkarrena, Joseba Zapirain eta haren WRCa. J.A.




Arrixolako auzoan pilotuek adi ibili behar izan zuten, beste urtebetez, baserri hormak jo barik a




Iban Tarsicioren Cosworth-ak lehia estua izan zuen Jaio eta Castrorekin. J.A.




Eñaut Iturriagaren Peugeot 205 GTI autoa, irteeran. J.A.




Inhar Amenabar, txanda hasi baino lehenago J.A.

## "Nire autoarekin aldapa behera joaten naiz ondoen"

Etxean egindako lasterketarekin gustura zen Aramaiokoa: "Bide bazterretan hartxintxarra zegoen, eta auto batzuk bidetik irten dira. Guk ez dugu halako arazorik izan, eta gustura geratu gara".

Amenabarren eta haren kopilotu Agurtzane Zubietaren Renault 5 GT Turbo autoa ez da rallyko azkarrena: "Aldapa gora beste auto batzuk indar askoz ere handiagoa dute, eta gu aldapa behera moldatzen gara hobeto, orduan gozatzen dugu gehien". Hala, datorren astean Gatzagan egongo den galdetu genion Amenabarri: "Aste barruan pentsatuko dut, ibilbidea moztu dute, eta gure autoarendako lehenengo zatia zen onena".

# ana ondo kapela janzteko



urrera egiteko. XABIER URTZELAI

**Joseba Zapirain** > Auto pilotua

## "Goialdean errepidea beste urte batzuetan baino okerrago zegoen"

**X.U.** > ARAMAIO

**Joseba Zapirain izan zen, hirugarren urtez, Aramaioko rallysprintean azkarrena. Baina, hiru lasterketetan huts egin duenez, sailkapen orokorretik kanpo dago.**

**Zer moduz joan da lasterketa?**

Ondo, gustura ibili gara. Arazo txikiren bat izan dugu baina apartekorik ez.

**Vilariño zenuen kontrario gogorrena, baina ez da lasterketara etorri.**

Ez, haren autoa oso azkarra da, eta lasterketara ez etortzeak asko erraztu dizkit gauzak.

**Iaz ez moduan, aurten lehor izan duzue errepidea. Gehiago arriskatzeko aukera ematen du horrek.**

Bai, baina errepidea beste urte batzuetan baino egoera askoz okerragoan aurkitu dut, batez ere goialdeko zatian. Harriak zeuren errepidean, eta kontuz ibiltzea komeni zen.

**Zelan doa denboraldia?**

Beno, lasterketetan gozatzeko asmoarekin nabil, sailkapen orokorrera begira ezin dudalako ezer egin. Dagoeneko hiru



GOIENKARIA

lasterketetan kale egin dut, eta puntu hauek ez dizkidate zenbatzen. Hori jakinda, gozatzea baino ez da helburua, eta ahal bada, ikusleei espektakulu apur bat ematea.

**Datorren astean Leintz Gatzagako igoeran ikusiko zaitugu?**

Ez, pena da baina ezingo naiz joan. Aste barruan ez dut astirik izango lasterketa horretarako autoa prestatzen. Imajinatzen dut Orioko lasterketa atzeratu edo bertan behera utziko dutela, horrenbestez, Donostia Hiria rallya korrituta esango diogu agur denboraldiari.

## Lasterketako Sailkapena

| | |
|---|---|
| Joseba Zapirain | 00:12:26 |
| Joxe Labaka | 00:12:49 |
| Luciano Arrabal | 00:12:51 |
| Ruben Garcia | 00:13:03 |
| Rafa Ateka | 00:13:04 |
| Iban Tarsicio | 00:13:08 |
| Aingeru Castro | 00:13:08 |
| Txus jaio | 00:13:08 |
| Iker Gayoso | 00:13:17 |
| Patxi Hoyos | 00:13:24 |
| Lebeiti | 00:13:25 |
| Jesus Perez | 00:13:29 |
| Rafa Diaz | 00:13:31 |
| Ramon Irigoien | 00:13:31 |
| Eneko Zelaieta | 00:13:32 |
| Ekaitz Ugalde | 00:13:39 |
| Igor Izagirre | 00:13:30 |
| Iñigo Izuzkitza | 00:13:14 |
| Imanol Ozkoz | 00:13:53 |
| Inhar Amenabar | 00:13:53 |
| Jon Arregi | 00:13:56 |
| Kike Perez | 00:13:57 |
| Andoni Blas | 00:14:01 |
| Urtzi Oteiza | 00:14:06 |
| Maikel Iriarte | 00:14:09 |
| Jokin Aiertza | 00:14:10 |
| Enrique Gomez | 00:14:10 |
| Iñigo Etxarte | 00:14:12 |
| Ugaitz Basaras | 00:14:19 |
| Markos Landa | 00:14:23 |
| Eñaut Iturriaga | 00:14:29 |
| Lorenzo Gaminde | 00:14:33 |
| Xabier Agirre | 00:14:35 |
| David Salcines | 00:14:37 |
| Jon Zalloetxe. | 00:14:40 |
| Iker Martinez | 00:14:48 |
| Felix Martikorena | 00:15:04 |
| Urki Peñalba | 00:15:19 |
| Iban Ibarreta | 00:15:27 |
| Asier Larrañaga | 00:15:47 |
| Aaron Robles | 00:15:53 |
| Koldo Santiso | 00:17:00 |
| David Ardions | 00:18:03 |
| Jose Miguel Corres | 00:19:51 |

*Gainontzeko zortzi pilotuak erretiratu egin ziren.



**OHOREZKO ERREGIONAL MAILA** > LEHEN JARDUNALDIA

# Atzean eskas eta aurrean ideiarik gabe, merezimenduz galdu zuen Mondrak

Iaz mailaz jaistear izan zen Ordizia itxura ona emanda gailendu zen atzo Mojategin



**JOKO GUTXI** Lotutako jokaldi gutxi ikusi ziren atzo Mojategin, batez ere etxeko taldearen partetik. Irudian, Iker Lopez baloiaren jabe egiteko borrokan. JOSETXO ARANTZABAL

MONDRA
**0-2**
ORDIZIA

**Mondra** > Ander, Ion, Illart, Iregi, Laspiur, Enrique, Ekain, Markel (Gari 52. min.) Murua, Oier (Lander 67. min.) eta Lopez.

**Ordizia** > Antxon, Ion, Iñigo, Unai, Kepa, Ekain, (Igor 86. min) Iñigo, (Mikel 65.min) Asier (Unai 66.min), Ion, Asier eta Garikoitz (Iñigo 86. min.).

**Epailea** > Alan Pagola jauna. Ez zuen egun onena izan baina ez zituen jasotako kexa guztiak merezi izan. Haren erabakiek ez zuten partiduaren emaitza baldintzatu.

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE

Asko hobetu beharko du Mondrak denboraldi amaieran sailkapeneko goiko postuei begira egotea gura badu. Defentsan kaskar eta aurrealdean ideiarik gabe, merezimendu osoz galdu zuen Ordiziaren aurka. Ordiziarrak jaistear izan ziren iaz baina taldea eraberritu dute eta itxura ona eman zuten atzo Mojategin. Lehen gola partidua hasi bezain pronto sartu zuten; Mondrako defentsak gaizki urrundu ostean etxekoen atezainaren aurrean geratu zen aurrelaria: dribling egin eta baloia sareetara (0-1). Ander Ruiz atezainak ezin izan zuen ezer egin.

Kanpokoak, abantaila lortu arren, ez ziren atzean itxi eta Mondrari asko kostatu zitzaion baloiarekin aurrera egitea. Jokaldiak lotzea ezinezko misioa bihurtu zen atzo etxeko taldearendako. Baloi luzeko jokaldi larregi izan zituen partiduak, eta beraz, baloiaren jabetza nahiko parekatuta izan zen lehiaren azken txanpara arte. Erreakziorako gaitasun falta nabarmena erakutsi zuten Iban Rodriguezen mutilek. Azken txanpan saiatu ziren, bihotzaz gehiago buruarekin baino. 0-2koa jaso ostean –area kanpoko falta batean markaketa akats baten ondorioz heldu zen bigarrena– estutu zuten zertxobait Ordiziako taldea. Baina berandu zen ordurako, eta izandako aukera apurrak ez zituzten aprobetxatu.

Lehiaren ostean lur jota zegoen taldea, ligako lehenengo partidua bada ere.

**OHOREZKO ERREGIONAL MAILA** > LEHEN JARDUNALDIA

# Partidu txarra eginda eta aitzakiendako tarterik gabe galdu zuen Aloña Mendik

ALOÑA MENDI
**1-4**
HERNANI



Mikel Urkia hegaletik aurrera egin guran. JOSETXO ARANTZABAL

**J.B.** > OÑATI

Denboraldiaurre ona egin arren sailkapeneko azken postuan hasi du denboraldia Aloña Mendik, etxean Hernaniren aurka jipoi galanta jaso ostean (1-4). Pablo Diezen mutilek ez zuten euren eguna izan, eta Diezek dioenez, "merezimendu osoz" galdu zuten. Partiduan sartzea izugarri kosta zitzaion etxeko taldeari; bosgarren minuturako 0-2 zihoazen.

Bigarren zatiaren hasieran gola sartu zuen Julen Palaciosek, korner baten. Baina hurrengo jokaldian, aldeko korner baten osteko kontraerasoan, 1-3koa sartu zuten hernaniarrek. Eta hor amaitu zen norgehiagoka, Diezen arabera. Azken gola falta jaurtiketa baten ostean heldu zen, azken minutuan.

> OHOREZKO ERREGIONAL MAILA

## Hiru puntuak Aretxabaletara ekartzea lortu zuen UDAk lehia handiko partidu baten ostean (0-1)

Hirugarren Mailatik jaitsi ondoren, ondo hasi du denboraldi berria UDAk Ohorezko Erregional mailan. Izan ere, lehen jardunaldian Rotetaren aurka 0-1 gailendu ziren Rafael Barrutiaren mutilak. Barrutiak jakinarazi duenez, Herrerako futbol zelai txikian lurretik jokatzea ez da erraza izaten eta etxeko taldeak neurria ondo hartuta dio zelaiari: "Etxean puntu asko lortuko dituzte", haren ustez.

Lehia handiko partidua izan zen, eta aretxabaletarren gola azken txanpan heldu zen: korner batean baloia sareetara bidali zuen Kerman Azkarraga atzelari arrasatearrak. UDAko entrenatzailea pozik zegoen partiduaren amaieran: "Garrantzitsua zen denboraldia ondo hastea, taldearen moralarendako batez ere".

> OHOREZKO ERREGIONAL MAILA

## Puntu bat gutxienez merezi arren, esku hutsik bueltatu zen Bergara Oiartzundik (1-0)

Itxura ona eman arren galdu egin zuen Bergarak Oiartzunen aurka. Oskar Maiztegi entrenatzaileak adierazi duenez, berdinketa litzateke "justuena". Bi zatietako lehen minutuetan ondo aritu ziren mahoneroak, joko ona eginez eta aurkariaren atera helduz. Maiztegik ez du epailearen lana aitzakia moduan erabili nahi, baina, dioenez, ez zuen aldeko penalti argi bat adierazi. Bigarren zatiaren amaieran dezente estutu zuen etxeko taldeak eta gola lehia amaitzeko bi minutu geratzen zirenenean heldu zen, alboko sake batetik. Bergararrek ez zuten erreakziorako astirik izan.

**FUTBOLA** > PREFERENTE MAILA

## Juanina Garai, Antzuola taldeko entrenatzaile berria

### Antzuolarrek atzo jokatu zuten denboraldiko lehen partidua, Urnietan 1-1 berdinduz

**E.M.** > ARRASATE

Juanina Garai entrenatzaile arrasatearrak zuzenduko du Antzuolako taldea hasi berri den preferente mailako ligan. Garaik esperientzia luzea du, izan ere aurreko urteotan Urola, Mondragon eta Bergara taldeak entrenatu ditu. Iban Unanuek eta Igor Larreak utzitako hutsunea betetzera dator entrenatzaile arrasatearra. Bikote antzuolarrak uko egin zion taldea entrenatzen jarraitzeari eta joan den astean bertan izendatu zuten Garai entrenatzaile berria izateko.

Atzo, ligako lehenengo jardunaldian Antzuolak bana egin zuen Urnietaren kontra. Bestetik, Antzuola Futbol Taldeko zuzendaritzan ere aldaketak izan dira. 12 lagunez osatutako taldeak hartu du taldearen ardura eta Tomas Agirre da presidente berria.




Maider Unda oletarrak ezin izan du dominarik eskuratu Moskun. ARTXIBOA

**MENDIA** > KALBARIOKO MENDI LASTERKETA

## Joseba Molinero oñatiarra garaile Kalbarion atzo

**E.M.** > ARRASATE

Joseba Molinero Aloña Mendiko kideak atzo Mutrikun jokatutako Kalbarixoko mendi lasterketa irabazi zuen. Ibilbidea 9,8 kilometrokoa zen eta oñatiarrak 42 minutu eta 40 segundoko marka egin zuen helmugan. 79 partaide izan ziren irteeran. Molineroren atzetik Ruben legazpiarra eta Unai Bengoa itziartarra sailkatu ziren. 100 euroko saria eskuratu zuen Molinerok atzoko garaipenagatik. Kalbarixoko mendi lasterketaren lehen ekitaldia izan zen atzo jokatutakoa.



Joseba Molinero, podiumean atzo.

**DOMEKAN, SAN DONATON**

Euskal Herriko koparen barruan, laugarren postuan dago Joseba Molinero. Domekan, hilaren 19an, azken proba izango du, Uharte Arakilen. Kilometro bertikaleko proba izango da. Aurretik, Anboton, Xoxoten eta Txindokin jokatutako probetan izan da Aloña Mendiko kidea, emaitza onak lortuz. Korrikalari bakoitzari hiru emaitza onenak hartuko zaizkio kontutan azken sailkapenari begira. Hurrengo domekako probak 4,8 kilometroko luzera du, esan bezala, kilometro bateko desnibelarekin.

**BORROKA** > MUNDUKO TXAPELKETA

# Maider Unda borrokalaria bosgarrena izan da Moskun

### Apirilean brontzezko domina irabazi zuen Bakun jokatutako Europako txapelketan

**EDU MENDIBIL** > ARRASATE

Maider Unda aramaioarra bosgarren postuan sailkatu da Moskun amaitu berri den Borrokako Munduko Txapelketan. 72 kiloko kategorian lehiatu da Unda Errusiako hiriburuan. Lehen kanporaketan Puerto Ricoko Dayanara Riverari irabazi zion Oletakoak (2-1, 0-8). Ondoren, final zortzirenetan, txapelketako zilarrezko domina lortu zuen Ohenewa Akuffo kanadarrak finalerako bidea eten zion Undari (0-1,0-3). Gauzak horrela, brontzezko domina zen helburu berria eta gutxigatik egin zion ihes; Azerbayaneko Zumrud Gurbanhajiyeva atzean utzi ondoren (0-1, 0-3), Dan Li txinatarra ere kanporatu zuen borrokaldi estu baten: 1-0, 1-2 eta 1-0). Azkenik, brontzezko domina eskuratzeko borrokaldi erabakigarrian, Kyoko Hamaguchi japoniarra nagusitu zitzaion Maiderri, 1-1 eta 0-2 hain justu.

**EZIN IAZKOA ERREPIKATU**

Apirilean brontzezko domina irabazi zuen Maiderrek Bakun jokatutako Europako borroka txapelketan. Joan den urtean ere hirugarren geratu zen Danimarkako Mundu Txapelketan eta orain, berriz, Pekingo Joko Olinpikoetan gertatu zitzaion moduan, dominen atarian geratu da Unda.

Maider Undak 33 urte ditu gaur eta 9 urte besterik ez zituela hasi zen borroka egiten, Otxandion. Hasiera baten sambo izeneko borroka modalitatean eman zituen lehen urratsak, baina gerora, samboak eskaintzen zizkion irtenbide urriak zirela eta, borroka egitera pasa zen. Luis Crespo da Undaren entrenatzailea 2000. urtea ezkero.

Aurtengo emaitzei dagokienez, otsailean laugarren sailkatu zen Coloradon, AEBetan; Espainiako txapelketa irabazi zuen otsailean; martxoan 9.a izen zen Suedian eta jarraian hirugarren tokia lortu zuen Bakun zein Austrian, ekainean.

Lanbidez artzaina, Idiazabalgo jatorria duen Artzain Gaztaren ekoizlea da Oletan duen baserrian.

### Oñatiko mendi bizikleta martxan 175 lagun inguru batu ziren atzo

Oñatiko BTT taldeak antolatuta, 175 partaide inguru izan ziren atzo Debagoieneko zirkuituko bigarren martxan. Partaideek 39 kilometroko ibilbidea izan zuten: Zubikoa-Lamiategi-Urtiagain-Belar-Duru-Iturrigorri-Bellotza-Arrikrutz, handik berriro Urtiagainera eta handik behera Oñatiraino. Azken zatian ibilbidearekin nahasketatxo bat izan zen arren, antolatzaileak eta partaideak pozik azaldu ziren probak emandakoarekin. Kirolaz eta paisaiaz gozatu ahal izan zuten mendi bizikletako txirrindulariek.





JOSETXO ARANTZABAL


www.danbaka.com
DANBAKA
IV. MUSIKA LEHIAKETA
DEBABARRENA DEBAGOIENA DURANGALDEA
PARTE
HARTU
NAHI?
Debagoiena, Debabarrena edo Durangaldekoa bazara eta taldean zein bakarlari gisa bazabiltza, Danbaka Musika Lehiaketa zain daukazu. Lehiaketako talde onenak disko bat grabatu eta kaleratuko du. Debagoieneko talde onenak bideoklip bat grabatuko du.
Oinarriak eta informazio gehiago:
www.danbaka.com
irailak
17
izena
emateko
azken
eguna

**Iñaki Gallastegi 'Kuxi'**> Beti Busti piraguismo taldeko kidea

# "Gurekin piraguan dabiltzan gazteek ikasi dute ibaiak zaindu beharreko lekua direla"

**XABIER URTZELAI** > BERGARA

**Aste barruan gazteekin entrenatzen ibili ostean, asteburuan piraguak hartu eta hara eta hona ibiliko zen Iñaki Gallastegi *Kuxi*, seguru. Piraguan besteko ordu egiten ditu furgonetan, normalean Frantzia aldera edo Kataluniara joateko. Egunotan, berriz, Agorrosingo igerilekuan dabil, gazteei kirol hau gertutik ezagutarazten.**

**Zelako harrera izan dute Beti Bustikoek antolatu dituzuen ate irekien jardunaldiek?**

Oso ona. Egunotan 27 neska-mutiko dabiltza gurekin piraguan ibiltzen ikasten, eta kirola sustatzearekin batera gure harrobia lantzeko modua ere bada. Gero denek ez dute piraguismoan jarraituko, baina gertutik ezagutuko dute kirol hau.

**Gazte horiekin Deba ibaira joateko goiz da oraindik.**

Lehenengo saioetan bai. Lehenengo piraguarekin ibiltzen ikasi behar da, eta ondoren errekara sartu, ur korronteekin jolas egitera. Horretarako, baina, ibaietako ur korronteak ezagutu behar dira, eta piragua hobeto dominatu.

**Urteak daramatzazue Deba ibaian piraguekin ibiltzen. "Ur zikinetan", esango dute batzuek.**

Ez pentsa, Deba ibaia geroago eta garbiago dago. Eskailu dezente ikusten ditugu, eta beste adibide garbi bat da abuztuan Bergaran aurkitu zuten gerra denborako obusa. Horrek esan nahi du ibaiaren hondoa ikusten hasi garela, ura garden dagoela. Eta, geroago eta gehiago dira Deba ibaira kirola egitera etortzen direnak. Orain momentuan Eibarko koadrila bat ere hasi da hemen piraguan ibiltzen.

Alde horretatik 80ko hamarkadan dezente zikinago zegoen ura, eta hala ere ez dugu azaleko arazorik izan [Barre].



*Kuxi*, egubakoitz arratsaldean Agorrosinen, ate irekien jardunaldian, gazteei eskolak ematen. JOSETXO ARANTZABAL

**Etorkizunean Arrasaten eraikitzen dabiltzan araztegiak ere lagunduko du.**

Ura garbiago etorriko da, eta ez du ur emarian, ezta korronteetan ere inongo eraginik izango. Kontua da, baina, hemen asko igartzen dela gizakiok zelan sartu dugun eskua ibaian: desbideraketa artifizialak, araztegiak…

Hortik zehar bidaiatzen dugunean ikusten dugu eskualde askotan zelan zaintzen duten euren ibaia. Kirol eta aisialdirako gune moduan erabiltzen dute, turismoa erakartzeko baliabide garrantzitsuak dira, eta hori jakinda zaindu eta errespetatu egiten dute. Hemen, berriz, enpresetako eta orokorrean gure zikinkeriak botatzeko erabili izan dugu ibaia.

Kuriosoa da; gurekin dabiltzan gazteek ibaia zaintzen ikasi dute, guk ezer esan gabe.

**Taldean emaitza onak jasotzen ari zarete.**

Bai, oso onak. Baina, Gipuzkoan orokorrean dago piraguismoan oso maila ona. Taldean hamabi gazte ditugu txikitatik txapelketetan dabiltzanak, eta hori igarri egiten da. Aurten Patxi Ugaldek egin du aurrera nabarmen. Kadete mailakoa bada ere gazte mailakoekin lehiatzen dabil, eta Espainiako txapelketan hiru urte nagusiagoekin lehian sailkapeneko hirugarrena izan da. Horrek aukera eman dio Munduko Txapelketara joateko, eta hor emaitza onak batu ez baditu ere, sekulako esperientzia izan da.

**Talde moduan, zer behar du Beti Bustik?**

Gainontzeko kirol taldeek esango luketena, gauza gehiago egin ahal izateko behar den dirua. Instalazio aldetik gauzak hobetu daitezkeela uste dut. Gu ez gara ibaian piraguismoan ibiltzeko lanak egitearen aldekoa, baina araztegiak lanean hasten direnean ur garbiagoa izango dugu, eta uste dugu Deba ibaia aisialdirako gune bilakatu daitekeela.

Hala, orain Labegaraietan entrenatzen dugun tokian baino apur bat gorago uste dugu posible dela piraguan ibiltzeko toki apropos bat egokitzea, entrenatzeko edo txapelketak egiteko balio dezakeena.

Izan ere, ez dezagun ahaztu gutako askok Deba ibaian jolasten genuela txikiak ginenean. Ibaia jolastoki izan da askorendako, eta hori errekuperatu egin behar da.

## Hogeita zazpi gazte piraguan ibiltzen ikasten, Agorrosinen

Bet Busti elkarteak antolatuta, gazteei kirola sustatzeko eta piraguismoa ezagutarazteko ate irekien jardunaldiak egiten dihardute Agorrosinen. Errekan sartu aurretik igerilekuan ibiltzea komeni da, piraguarekin egin beharreko oinarrizko mugimenduak ondo ikasteko, eta aste barruan 27 neska-mutiko animatu dira jardunaldiotan parte hartzera: "Ondoren, gustua hartzen dutenek gurekin jarraituko dute, eta guk ezer esan gabe, eurek ikasiko dute erreka zaindu beharreko lekua dela".



Gazteak piraguekin, Agorrosinen. JOSETXO ARANTZABAL

"Abuztuan obusa aurkitu dute Bergaran; horrek esan nahi du Deba ibaia geroago eta garbiago datorrela"

"Askorendako Deba ibaia jolastoki zen; hori errekuperatu behar da"

**HEZIKETA** > FORMAZIOA

# Eskolaz kanpoko jarduerak zenbateraino dira beharrezkoak?

Jarduerak umearekin aukeratu behar dira, eta garrantzitsua da haren agenda larregi ez kargatzea, jolaserako denbora ere behar duelako



Ume taldea igeriketa ikastaroan. MACMARQUEZ

**LARRAITZ ZEBERIO** > ARRASATE

Badira urte batzuk eskolaz kanpoko jarduerek neska-mutikoen egunerokoa inbaditu dutela. Modan jarri dira eta ia derrigorrezko bihurtu dira. Neurrian onuragarriak dira, baina adituek arrisku bat ere ikusten dute: umeen agenda gehiegi kargatzea.

**KONTUZ GAINKARGAREKIN**

Eskolaz kanpoko jarduerak eraginkorrak dira umeen garapen sozialean zein akademikoan. Sentsibilitatea, autoestimua, autodiziplina, konpromisoa, kontzentrazioa eta jostaketa pizten dituzte. Baina kontuz; izan ere,esfortzu handia ekar dezakete. Gainkargak ondorio negatiboak ekarriko ditu: estresa, neke fisikoa, depresioa eta eskola porrota, besteak beste.

**GEHIENEZ BI JARDUERA**

Gomendioa da umeek gehienez eskolaz kanpoko bi jarduera egitea, eta horietako bat kirol jarduera izatea. Komeni da jarduera horiek eskolatik ekarritako etxeko lanak egin ostean praktikatzea, eta umeak gustuko izatea. Ez da komeni umea gogoz kontra jarduera bat praktikatzera behartzea. Eta ez ahaztu garrantzitsuena: umearen garapenerako jolas librea oso garrantzitsua da. Denbora izan behar du lagunekin eta familiarekin egoteko.

**FAMILIA** > LANA

## Iraileko buruhausteak familia eta lana bateratzeko

**L.Z.** > ARRASATE

Lana eta familia uztartzea oso zaila izaten da. Antolaketa konplexua exijitzen du eta praktikara eramateko denboraren antolaketa zorrotza egitea ezinbestekoa da. Gehiegizko eginkizunek eta antolaketa ez egokiak estresa, nekea, bikote eztabaidak eta abar eragin ditzakete. Horrek guztiak eragina izan dezake seme-alaben garapen psikologikoan eta hori saihesteko garrantzitsua da prebenitzea.



Aita umearekin lantokian. OLMO GONZALEZ

**DENBORA KUDEATU**

Onartu beharra dago ezinezkoa dela uneoro guraso, bikotekide eta langile eredugarriak izatea. Gure buruarekin zorrotzegiak izatea arazo bihur daiteke. Lehentasun zerrenda bat osatzea eta astean zehar errutina bat ezartzea lagungarri izango zaizkigu. Gure eskura ditugun baliabideak ere erabili egin behar ditugu; umezaintza, senitartekoen laguntza, eskola... Eta kontuan hartu behar ditugu seme-alaben erritmoak; ez dira gureen berdinak. Gainera, eurekin ematen dugun denboraren kalitatea zaindu behar dugu. Maitasun eta hitz atseginak, kapritxo txikiak, arauak eta mugak sartzen dira kalitate maila horretan. Sarritan, errudun sentimendua sortzen zaigu, baina jakin behar dugu umeek ere denborarekin ikasi egiten dutela gurasoekin egoteko, jolaserako eta barre egiteko denbora badagoela.

**HEZKUNTZA** > MINTEGIA

## Izenematea zabalik dute Arizmendiko guraso eskolan

**L.Z.** > ARRASATE

Guraso mintegia antolatu du aurten ere Arizmendi ikastolak eta hilaren 22ra bitartean dago zabalik izena emateko epea. Edozein gurasori zabalik dagoen mintegia da; ez dago zertan Arizmendiko guraso izan.

**MOTIBATZEKO TEKNIKAK**

Aurten bi mintegi eskainiko dituzte: 0-12 hilabeteko umeen gurasoei zuzenduta lehenengoa eta 1-5 urte bitarteko umeak dituzten gurasoei zuzenduta bigarrena. Bi atal izango dira: alde batetik, azalpen teorikoa emango dute Arizmendi ikastolako psikologo eta pedagogoek; eta bestetik, kasu konkretuak aztertuko dira gurasoen parte-hartzearekin. Mintegia, iaz moduan, medikuntzan doktore eta haur psikiatrian eta psikologian aditu Rafael Cristobalek zuzenduko du. Hiruhileko prezioa 45 euro da.

**PSIKOLOGIA** > HEZKUNTZA

## Gezurretan hasi da; zerk bultzatzen du horretara?

**L.Z.** > ARRASATE

3 eta 6 urte bitartean hasi ohi dira umeak gezurrak esaten. Hasieran, inongo maltzurkeriarik gabe aritu ohi dira gezurretan. Komeni da, baina, gurasoek zuhurtziaz jokatzea eta egin beharreko lehenengo gauza da aztertzea zerk bultzatzen duen gezurretan ibiltzera. Gehienetan, zigorra edo errieta ekiditeko aritzen dira gezurretan.

**EGIA ESATERA BULTZATU**

Ume txikiek inongo maltzurkeria barik egin ohi dute gezurretan, bizitza bezain erreala den mundua dutelako, baina denborarekin gauzak aldatu egiten dira. Horrelakoetan ez da umea iraindu edo jendaurrean irrigarri utzi behar. Esan gaizki egin duela eta arauen zergatia azaldu. Gezurra esan izanagatik gaitzespena adierazi, baina kontrola galdu gabe.



Umea triste. SHKUMBIN

> HAURDUNALDIAK

### Orain arte amama, ama eta izekoen esku zegoen lana egiten dute doulek; haurdunei laguntza eman

Figura berria da gure artean baina nahikoa hedatuta omen dago beste herrialde batzuetan. Gizartearen egitura dela eta, amatasunaren aurrean galduta sentitzen diren emakumeen behar baten aurrean sortzen da gaur egungo doula. Aspaldian erraza zen eskarmentua zuten inguruko emakumeen laguntza lortzea. Egun, askotan, besoetan dugun lehendabiziko haurtxoa gure semea edo alaba da. Informazio gehiago www.doula.es

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko,
**zatoz gure webgunera**
guraso.com



**> GRAFITI JAIA**
Kulunka Haurreskolako horma margotu dute ibarreko margolariek > 30



**> ITXUNGI ROCK**
250 lagun inguru bildu ziren gaztetxean, Itxungi irratiaren alde > 30



**> GORROTO TALDEA**
Aramaioko boskotearekin egon gara, taldeaz eta euren lehen diskoaz > 31



Iñaki Igartua *Precious* filmako Lee Daniels zuzendari eta Gabourey Sidibe. IÑAKI IGARTUA



Imanol Gallego Eduardo Noriega aktore espainiarrarekin. GOIENKARIA

# Zeluloide eta izar artean, debagoiendarrak lanean

**58. EDIZIOA**
Egubakoitzean hasiko da Donostiako Zinemaldia

**DONOSTIA SARIA**
Julia Robertsi emango diote aurtengoa, hilaren 20an

**LAN ASKO**
Itzultzaile eta kazetarien artean, egongo da ibarrekorik

TXOMIN MADINA > BERGARA

Zinema izarrak, glamourrez betetako galak, pelikula handi zein txikiak, festak, autografo-ehiztariak... Horiek guztiak eta gehiago bilduko dira Donostian egubakoitzean hasi eta hilaren 25era arte iraungo duen Nazioarteko Zinemaldiaren 58. edizioan.

Denak behar bezala funtziona dezan, asko eta asko izango dira Zimenaldian lanean ariko direnak eta euren artean egongo da debagoiendarrik.

**HIRUZPALAU PELIKULA EGUNEKO**

Imanol Gallego kazetari arrasatearrarentzat seigarren Zinemaldia izango da eta aurrekoetan legez, lanez lepo ariko da. "Egunean hiru edo lau filma ikusten ditut, baina egon dira bost pelikula ikusi ditudan egunak ere. Lan erreza dirudi, baina batzuetan nahiko nekeza ere bada, esaterako hainbat hizkuntzatan azpititulatuta dauden pelikulak ikusi behar dituzunean" azaldu digu Gallegok. Onartu digu baina, askotan lankideen artean elkar laguntzeak eta autografo ehiztariek emandako informazioak lana errazten duela.

*Mondraberri*-rako egingo du lan aurten, eta prentsaurreko, elkarrizketa, mahai-inguru eta jai artean ia lo egiteko asti barik ibiliko da. Urte hauetan guztietan aurpegi ezagun asko ezagutu eta elkarrizketatu ditu. "Meryl Streep zoragarria da, Demi Moore, lotsatia, eta Antonio Banderas aldiz, beti dago laguntzeko prest, oso hurbilekoa da", kontatu digu izarrik gustukoenen inguruan galdetzean. Ezagutu al du petralik? Argi du erantzuna: "Askotan arazoak ematen dituztenak izarrak eurak baino, izarren inguruko manager, agente, laguntzaile eta bestelakoak izaten dira'.'

**PROFESIONALEN MAILA ALTUA**

Iñaki Igartua oñatiarrak beste zeregin batzuk ditu Zinemaldian: "Goizetan, kabina baten egoten naiz prentsaurrekoetan aldibereko itzultzaile lanetan, normalean ingelesetik gaztelerara eta euskarara. Arratsaldetan aldiz, aktore eta zuzendariekin egoten naiz, pelikulen inguruan ikusleekin egiten diren solasaldi eta aurkezpenetan", azaldu digu.

Zinemaldia baina, abuzturako hasten da beretzat: filmak ikusi eta *Youtube*-ri esker aktore eta zuzendarien ahoskerak aztertzen ditu orduan. John Malkovich, Quentin Tarantino, Colin Firth, *Precious* filmako zuzendari eta aktore nagusia... Guztiekin egon eta berba egin ahal izan du, baina denen gainetik, jaialdiko profesionalen lana goraipatzen du Igartuak. "Bartzelona, Madril zein Paristik datozen eta Zinemaldiko hainbat esparrutan lan egiten dutenen maila ikusteak, norbere lana ahalik eta hobekien egiteko motibatzen zaitu, sekulako energia ematen dizu", zehazten du.

**KRISIAK MARKATUTAKO ZINEMALDIA**

58.a izango da aurtengo Zinemaldia, eta askorentzat, nahiko urardotuta dator; momentuz aurreikusten den nazioarteko izar bakarra Julia Roberts da. Gallegoren ustez baina, Zinemaldia bizirik dagoen zerbait da, eta azken egunera arte edozer espero daiteke.

Igartuak argi ditu gauzak: "Batetik glamourra dago, bestetik filmak. Glamourra dagoela? Primeran; neretzat, baina jaialdia pelikulak ikusteko aukera zoragarria da". Zeluloide gosez dagoenak, menu zabala izango du egubakoitzetik hasita Donostian.

ZINEMALDIA 2010

## Ibarrekoen lanak ere ikusgai egongo dira

Zinemira sailean, Jon Andueza arrasatearraren *Simplemente*, Mireia Gabilondo bergararraren *Mugaldekoak* eta Mari Asun Pagoaga aktore duen *80 egunean* filmak ikusiko dira, baita Asier Altunaren *Artalde* film laburra ere.

.Doc, dokumentalei eskainitako sailean, Aitor Arregi oñatiarraren *Lucio* lana emango dute.

**ARTEA** > GAZTERIA

# Musikaz girotuta, hildako horma koloreekin berpiztuz


Kulunka kanpoaldeko hormak beste itxura bat du orain Debagoieneko grafitilariei esker. TXOMIN MADINA

Debagoieneko 12 grafitilarik Kulunka haur eskolako horma margotu zuten, egun osoa iraun zuen jaian

**JOKIN BEREZIARTUA** > ESKORIATZA

Kulunka haurreskola kanpoaldeko hormari kolorea eta bizitza emateko helburuarekin, Debagoieneko 12 grafitilari elkartu ziren zapatuan Eskoriatzan. 12:00ak jota hasi ziren hormari kolorea nola eman erabakitzen eta iluntzera arte jo eta ke aritu ziren euren irudimena horman islatzen. Gainera, haur eskola kanpoaldeko horma txiki geratu eta Luis Ezeiza eskola inguruko beste horma batzuk ere margotu zituzten. Gazteria Sailak haur, nerabe eta gazteendako ekintza parte-hartzaile moduan planteatu zuen jaialdia. Hala, grafitilariez gain, Barakaldoko izendapen jatorridun zuzeneko hip hopa izan zen. Xabier Silveira bertsolaria etortzekoa zen baina ez zen agertu; haren ordez herriko eta inguruko bertsolariak aritu ziren.

ESANAK

**"Haur eskolako hormari kolorea ematea zen helburua, eta ikusi dutenek diote lehen baino dezente hobeto geratu dela"**

**Maider Etxaniz** > Gazteria teknikaria

**"DEZENTE HOBETO GERATU DA"**

Maider Etxaniz Gazteria teknikariak jakinarazi duenez, jaialdiaren helburua "haurreskolako hormari kolorea ematea" zen eta horren inguruan antolatu zuten jaialdia: "Horma handia da eta nahiko zatar geratzen zen; ikusi dutenek diote lehen baino dezente hobeto geratu dela".

Bestalde, ibarreko margolariei aukera ematea pentsatu zutela azaldu du Etxanizek: "Hasieran beste margolari batzuei eskatu behar genien horma margotzeko baina konturatu ginen hemen hainbat margolari daudela. Beraz, eskualdekoei aukera ematea burutu zitzaigun".

**KRONIKA** > 'ITXUNGI ROCK' JAIALDIA

# Punk rocka nagusi, zazpi era ezberdinetan

**NON:** Arrasateko gaztetxean.
**EGUNA:** Zapatua, irailak 11.
**ZENBAT JENDE:** 250 lagun inguru.
**IRAUPENA:** Bederatzi ordu.

**J.B.** > ARRASATE

Bigarren zatiak txarrak direla dio erdarazko esaerak. Bada, Itxungi rock jaialdiarekin ez da hori gertatu, arrakasta borobila izan zeneta bigarren edizioa. Itxungi irrati libreko kideek ez zuten horrenbeste jende espero. La otra cara del rock izan zen lehena, 18:30ean; jende gutxi izan zen Arrasateko Garagartza auzokoen emanaldian. Bigarrenak, La Banda del abuelo: adinez jaialdiko zaharrenak, baina agertoki gainean talde hasiberriaren ilusio eta zoramen puntua dutela erakutsi zuten. Hirugarrenak, Interprete Desconocido: punk-oi-aren ereserkiak euren kantu propioekin tartekatu zituzten; bilakaera nabaria da taldean.

Afalorduko geldialdiaren ostean etorri zen gaueko ezustekoa: CC627. Oñati eta Arrasateko hirukotearen debuta izan zen, aurrez agertokia ondo ezagutzen zuten musikariez osatua. Etorkizun handiko talde berri bat jaio da. Gero, Las Flujo, espero baino beranduago. Izan ere, Gasteiz aldean galdu ziren Bartzelonako neskak. Azken aurrekoak Plan B: ikuslegoa geldi, baina emanaldi bikaina eman zuen hirukote donostiarrak. Aipatzekoa Stiff Little Fingers taldearen *Barbed wire love* bertsioa.

Azkenik, jaia borobiltzeko, Never Surrender: taldea eta ikuslegoa bat. Itxungi irratiak hartu du airera salto egiteko bultzada.



La Banda del abuelo-k ikuskizun berezia eskaini zuen, Australiako aborigenen instrumentu -Didjeridoo- eta guzti. JOSETXO ARANTZABAL

Iturgintza - Berogintza
Laskurain
- Etxebizitzen zaharberritzeak
- Berogailuen instalazioak
- Aire egokitua
- Bainurako altzariak, iturriak eta era guztietako osagarriak
- Edozein konponketa lan


Barrenkale 44 - Tel./Faxa:943 76 24 89 - Mugikorrak: 607 76 24 89 / 610 20 54 99

GURE TALDEAK

## Gorroto


Ezkerretik eskumara, Manex, Ander, *Abarra* (atzean), Ibai eta Agirre, Arrasateko gaztetxean. GORROTO

# "Musika egiten dugu barrua husteko helburuarekin"

Gorroto musika taldeak zuzeneko lehen diskoa kaleratu du: 'Noraino iritsiko zara'; eurek sortutako bederatzi kantu grabatu dituzte

Diskoa Aramaioko entsegu lokalean eta Bergaran grabatu dute DB Uhinak-eko Aimar eta 'Xarti' teknikarien laguntzarekin

**MIREIA BIKUÑA** > ARAMAIO

**Aramaio eta Arrasateko bost gaztek osatzen dute Gorroto taldea. *Abarra*, Ibai, Agirre, Manex eta Ander dira taldeko kideak. Diskoa kaleratu berri dute. Dagoeneko salgai dago eta hilaren 18an kontzertua egingo dute Aretxabaletan.**

***Noraino iritsiko zara* izeneko diskoa grabatu duzue. Gustura emaitzarekin?**

Bai. Guk sortutako kantuak grabatu ditugu, eta gustura gaude. Pozik gaude emaitzarekin.

**Lehen esperientzia izan da zuendako? Nolakoa izan da?**

Taldeko inork ez genuen esperientziarik grabazio munduan. Guztiok genituen baldintza berberak. Ez dugu arazorik izan, eta atzera begiratuta lan ona egin dugula uste dugu. Esperientzia positiboa izan da guretzako.

**Bederatzi kantu grabatu dituzue. Zertan oinarritzen zarete letrak idazteko?**

Letrak egiteko orduan momentu horretan buruan dugun hartzen dugu oinarri. Letra egiten dabilen kidearen momentuko sentsazioak edo ideiak idazten ditugu. Ondoren, musikaz jantzen dugu.

**Non grabatu duzue diskoa?**

Diskoa Aramaioko entsegu lokalean eta Bergaran grabatu dugu. DB Uhinak-eko *Xarti* eta Aimar izan dira teknikariak, eta asko lagundu digute. Euren lana eskertu egiten dugu.

**Nolako musika egiten duzue?**

Barru-barrutik ateratzen zaigun musika egiten dugu. Rock musika da gure oinarria.

**Zeintzuk dira zuen talde erreferenteak?**

Rock musika egiten duten taldeak hartzen ditugu erreferente, rocka zentzu zabalean hartuz. Egia esan, denetariko musika eta taldeak entzuten ditugun gazteak gara.

**Nolakoak zarete zuzenekoetan?**

Gure kontzertuetara datozenek erantzun beharko lukete galdera. Hain justu ere, kontzertua egingo dugu Aretxabaletako Urbaltz tabernan hilaren 18an, zapatuan. Aukera ona da gu ezagutu eta nolako musika egiten dugun entzuteko. Guztiak zaudete gonbidatuta!

**Beste kontzerturen bat lotu duzue?**

Oraingoz ez, baina saiatuko gara. Oraingoz, Aretxabaletakoa egingo dugu.

**Ezagutzen ez zaituztenei aurkeztu zuen burua. Zer da Gorroto?**

Zuzenekoak egin eta ondo pasatzeko asmoarekin Aramaioko eta Arrasateko bost lagunek sortutako musika taldea da. Dena den, hobeto ezagutu nahi gaituena kontzerturen batera etor daiteke, edo, bestela, *www.myspace.com/gorroto* webgunean begira dezake.

**2008an sortu zenuten taldea. Zergatik? Ze helbururekin?**

Taldea sortu genuenean gure helburu nagusiak ziren ondo pasatzea eta parranda batzuk egitea. Musikarekin barruak husten ditugu, eta, oraingoz, aurrera jarraitzeko asmoa dugu.

**Helburu horiek lortu dituzue?**

Baietz esango genuke. Taldea sortu genuenetik une onak pasa ditugu, eta parrandak ere egin ditugu... Bai, helburuak bete egin ditugu.

**Non eros daiteke diskoa?**

Oraingoz, Aramaioko eta Otxandioko tabernetan eta Aretxabaletako Urbaltzen ipini ditugu salgai. Era berean, Arrasateko Basati, Etxoste eta Irati tabernetan ere eros daiteke. Oñatin eta Bergaran ere ipiniko ditugu hainbat lekutan.




### Amorrua eta sinesgarritasuna, biak dituzte

Askotan esan dugu aspaldian bailara honetan ez dela punk talderik izan; bada, erantzuna Aramaioko GRT edo Gorroto taldea gazteak dakar.

Euskaraz eta gaztelaniaz abestutako abestiak tartekatzen dituzte, eta, nahiz eta berbagai dituzten gaiak ohikoak izan, sinesgarritasun handia transmititzen dute, hain ohikoa ez dena. Bestalde, amorru handia erakusten dute, batez ere gaztelaniaz abestutako piezetan. Tarteka, Vomito, Kañeria 13, Potrotaino eta Ingalaterrako taldeak gogora ekarri dizkidate. Ondo!

Iker Barandiaran

# iragarkilaburrak.com

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Abadiño.** Etxebizitza salgai San trokaz kalean (Zelaieta). Bi logela, trastelekua eta garajea. Ondo hornitua. Aukera ona. Telefonoa: 935-74 36 24

**Altsasu.** Etxe txikia saltzen dut Altsasun, leku lasaian, Urbasara begira, 4 logela, 4 komun, sukaldea, egongela, txokoa eta lorategirarekin. 300.000 euro. Harremanetan jartzeko deitu telefono honetara: 609-78 96 86 (Iker)

**Aramaio.** Etxebizitza berria saldu edo errentan ematen da Aita Gabirel Jauregi kalean. Lehen solairua. Bi logela, komuna, egongela-sukaldea, trastelekua, ganbara eta garajea. Beerokuntza indibiduala. Jantzia. Eguzkitsua. 664 74 90 23 edo 679 45 57 62

**Aretxabaleta.** Aukera bikaina. Guztiz eraberritutako etxebizitza salgai Muru-Bide kalean. 50 metro koadro, egongela, bi logela, sukaldea, bainugela, trastelekua eta balkoia. Oso argitsua. 23 metro koadroko ganbara eta guzti. Erdi jantzia. 214.000 euro. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 943 79 96 55 edo 685 72 46 86

**Arrasate.** 50 metro koadroko etxebizitza salgai Agerre kalean. Bi logela, egongela, sukaldea. Komuna eta leihoak berrituak. Berogailuarekin. 126.000 euro. 657 71 41 68

**Arrasate.** 90 metro koadroko etxebizitza salgai Musakolan. Hiru terraza dauzka. Igogailuarekin. Estreinatzeke. 17 metro koadroko garaje itxia. 618 00 89 17

**Arrigorriaga.** Etxea Renfe geltoki, autobus geltoki, eskola, parkea eta kiroldegien artean dago. Sarrera, sukaldea, egongela, hiru gela, bi bainugela eta ganbara ditu. Banakako gas naturala (ura eta berogailua). Altzariak barne nahi badituzue. Informazio gehiago: *ttiki.com/16470*. Prezioa: 288.000 euro.

**Bergara.** 70 metro koadroko etxea salgai Artekalen. Ganbara eta guzti. Eguzkitsua. Prezio oso interesgarria. 675-70 79 54 edo 943-76 14 01

**Bergara.** Etxebizitza salgai Bergaran, Zubieta kalean. Eraikin berria. Eguzkitsua. Hiru logela, sukaldea, egongela eta komuna. Erdi hornitua. 174.300 euro, negoziagarriak. 629-71 12 26 edo 650-10 34 93

**Durango.** Alde zaharra. 71 m2. Kanpoaldera begira. Altzariz hornituta. 2 logela. Egongela. Sukaldea. Komun bat. 2006an kanpotik guztiz berritua: fatxada, atalondoa, eskailera eta teilatua. Barrutik (2007): parketa (Elondo), sukaldea (Fagor elektrotresnak eta Junkers galdara), gres-a, gas naturala, kristal bikoitzeko leihoak, ate blindatua. Berehala bizitzera joateko aukera. 229.000 euro. Harremanetan jartzeko telefono zenbakia: 607-71 53 53

**Durango.** Atiko zoragarria salgai Durangoko Alde Zaharrean. Duela urte eta erdi erabat berritua.Erabat hornitua. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Kapritxosoa. Etorri ikustera. Harremanetan jartzeko deitu mesedez telefono zenbaki honetara: 659-42 58 90

**Elorrio.** Pisu eder bat salgai, Elorrioko Auzoa auzoan. Leku zoragarria. Harremanetarako telefonoa: 639-02 05 81

**Etxarri-Aranatz.** Pisua salgai Etxarri Aranatzen. 3 logela, sukaldea, komuna, egongela, jangela, terraza, balkoia itxia. Bizitzera sartzeko moduan. 948-46 01 76 eta 696-19 43 17.

**Guardamar del Segura (Alacant).** Aukera bikaina. Apartamentua salgai. Egongela, terraza, logela bat, amerikar sukaldea, bainugela, trastelekua, aire girotua. Guztiz jantzia eta ekipatua. Oso berria eta gutxi erabilia. 85.000 euro. 655 60 12 52

**Legazpi.** Etxebizitza salgai 74m2, altzariz hornituta.Legazpiko San Martin auzoan. Interesa dutenek deitu telefono zenbaki hautera:943-73 13 52 /678-08 63 21

Egueneko 18:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

**943 25 05 05**

**sailkatuak@goiena.com**

**www.goiena.net-en**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK:**
- ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU.
- LOKALA SALDU/ALOKATU.
- GARAJEA SALDU/ALOKATU.
- MOTORRA SALDU/ALOKATU.

**GOIENKARIA-N + ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 20,50 € (BEZ BARNE).**

**PROFESIONALEN IRAGARKIAK (MODULOA)**
**MODULU 1: GOIENKARIA-N EDO ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 21 € (+BEZ).**
**GOIENKARIA-N + ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 28 € (+BEZ).**

Iragarki partikularretan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira. GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**Luz Saint Sauvert.** Luzetik 500 metrora 58 metro koadroko duplexa salgai. Bi logela, komuna, sukaldea, antena parabolikoa. Dena egoera oso onean eta jantzita. 635 74 62 26

**Oñati.** Etxebizitza salgai Zubillaga auzoan. Guztiz eraberritua. 150.000 euro. 635-71 41 39

**Oñati.** Aukera bikaina. Etxebizitza salgai Olakuan. Egongela, hiru logela, sukaldea, bi bainugela, terraza. Laugarren solairua. Prezioa: 228.100 euro. Garajea aukeran. 945-22 26 62 edo 615-70 86 04

**Oñati.** Duplex ederra salgai erdialdean. 116 metro koadro. Aukera-aukeran orain, 276.465 euroan. 635-71 41 39

**Uharte-Arakil.** Pisua salgai Uharte Arakilen. 90 m2. 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. 165.000 euro. Deitu 687-07 89 78 telefono zenbakira.

**Zestoa.** Etxea salgai Zestoan. 3 gela, egongela, sukaldea eta bainugela. Erdigunean. Argitsua. 168.000 euro. Kontakturako telefonoa: 679-00 73 01

**Zornotza.** Etxebizitza salgai Euban. 3 logela, egongela bat, sukaldea, 2 bainugela, ganbara eta berogailua. 345 m2-ko lursailarekin. Aukera paregabea. Harremanetan jartzeko telefono zenbakia: 695-70 18 58

### 102. EROSI

**Segura.** Baserria erosiko nuke Seguran edo inguruan, konpondua edo konpontzeko. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 618-34 52 14

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan Uribarri etorbidean. Eskolatik bi minutura. Hiru logela, egongela eta bi bainugela. Berokuntza zentrala. 635-72 27 81

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan ikasleentzat. Erguinen, unibertsitatetik gertu. Laugarren solairua, igogailuarekin. Hiru logela. 943-79 83 48 edo 636-60 79 60

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan. Bi logela, sukaldea eta egongela. 600 euro hilean. 665 70 75 80

**Arrasate.** Unibertsitatetik gertu. Sukaldea, egongela, bi komun eta hiru logela. Kalefazio eta igogailuarekin. Harremanetan jartzeko telefono zenbakia: 680 48 94 04

**Arrasate.** Uribe auzoan pisua alokatzen da, unibertsitatetik gertu. Bost pertsonentzat egokitua, lau logela, bi komun, egongela eta sukaldea. 653 71 78 94 edo 697 18 30 02

**Bergara.** Etxebizitza ematen da errentan Matxiategi kalean. Jantzia. Kontakurako telefonoak: 943 76 46 15 edo 652 53 42 81

**Bergara.** Etxebizitza ematen da errentan Simon Arrietan. Hiru logela. Igogailuarekin. Berokuntza indibiduala. Kontakurako telefonoak: 664 73 49 60 edo 943 76 04 58

**Bergara.** Hiru logelako etxebizitza ematen da errentan erdigunean. Interesatuek deitu zenbaki honetara: 626-81 71 28

**Elorrio.** Elorrion etxe berri-berria alokatzen da. Leku onean kokatuta. Kontakurako telefonoak: 647-18 30 88 edo 646-37 76 87 (arratsaldez)

**Eskoriatza.** Erdialdean etxebizitza ematen da errentan. Hiru logela, egongela eta bi bainugela. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 652-70 08 00

**Etxarri-aranatz.** Pisua alokagai edo salgai Etxarri Aranatzen. Telefonoa: 654-23 41 02.

**Gasteiz.** Etxebizitza ematen da errentan ikasleentzat. Erdigunean, Jesus Guridi kaleko 1.ean. Hiru logea, egongela, sukaldea eta komuna. Trastelekua. 5. Solairua, igogailuarekin. Harremanetan jartzeko deitu mesedez telefono zenbaki hautera: 656-79 73 66 edo 943-71 46 46

**Oñati.** Etxebizitza ematen da errentan erdigunean. Sukaldea, egongela, bi komun eta hiru logela. 616-45 23 99

**Oñati.** Etxebizitza errentan ematen da hileka Olakua auzoan. Egokia behar puntualak badituzu: etxean obrak, ikasketak, e.a. 638 47 68 75

**Oñati.** Olakua auzoan etxebizitza ematen da errentan. Bostgarren solairua, igogailuaz. Jantzia. Hiru gela, egongela, sukaldea eta trastelekua. Unibertsitateko ikasleentzat egokia. 627 34 96 03

**Oñatiko** erdigunean, Lope Agirre kalean, etxebizitza ematen da errentan. Lau logela, bi komun, sukaldea eta egongela. Etxea jantzita dago. 659 64 39 63

INMOBILIARIA
**Ibargarai 3 • BERGARA**
**Tel. / Faxa: 943 76 97 97**
**www.inmokorosti.com**

ETXEBIZITZAK SALGAI

Bergara:
- Martoko 85 m$^2$. Igogailuarekin.
- Bidekurutzeta. 85 m$^2$. Berritua.
- Artekale 60 m$^2$. Berritua. 153.258 ?.
- Irizar pasealekua 70 m$^2$. Igogailuarekin.
- Zabalotegi 60m$^2$. Oso ondo
- Barrenkale 82 m$^2$. Berritua.
- Osintxu. 70 m$^2$. Igogailuarekin. 153.258 ?.
- Bidekurutzeta 103 m$^2$. Duplexa. Oso ondo.
- Lorentxoko 73 m$^2$. Eraikitzeko.
- Burdiñate 53 m$^2$. Prezio ona.
- Matxiategi 65 m$^2$. Igogailuarekin.
- Osintxu 64 m$^2$. Berritua. 114.192 ?.
- Bolu 96 m$^2$. Garajearekin.
- Simon Arrieta 70 m$^2$. Prezio ona.
- Zabalotegi 54 m$^2$. 154.761 ?.
- Osintxu 62 m$^2$. Prezio ona.
- San Lorentzo 68 m$^2$. Berritua.
- Zubiaurre 52 m$^2$. Berritua.
- Etxebizitza berrien eraikuntza Martokon, Maduran, San Pedron, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.
- Artekale. Logela bat. Berritua.
- AUKERA. Etxebizitza adosatuak salgai Elgetan. Lehen mailako materialekin. Eraikuntza bukatua. PREZIO EZIN HOBEAK: 249.210 ?tik hasita

Antzuola:
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa eta Ibarre auzoa. Etxe onak.
- Herriko plaza 95 m$^2$. Oso etxe ona.
- Beheko auzoa. Berritua. 135. 000 ?.

Elgeta:
- San Roke 72 m$^2$. Berritua.
- San Roke 80 m$^2$. 80 m$^2$-ko ganbara eta lokalarekin.
- Salbador 90 m$^2$. Berritua.

Soraluze:
- Atxuri 49 m2. 117.618 ?.

DEBA
**GARAIA**
**INMOBILIARIA**
**Telesforo Aranzadi 2**
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

ETXEBIZITZAK SALGAI

BERGARA
- Arrizuri, 97 m$^2$, garajearekin.
- Aranerreka, 80 m$^2$, oso ondo. Prezio ona.
- Matxiategi, 72 m$^2$, eguzkitsua. Prezio ona.
- Zabalotegi, 54 m$^2$, eguzkitsua, oso ondo.
- Bolu, 103 m$^2$, oso eguzkitsua.
- Burdiñate, 104 m$^2$, oso ondo.
- Ibargarai, apartamentua, 40 m$^2$, berria, garajea aukeran.
- Justo Garate, 80 m$^2$, oso ondo.
- Herrilagunak, 60 m$^2$.
- Martoko, 87 m$^2$, ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 m$^2$, ondo.
- Ibargarai, 80 m$^2$ oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 m$^2$ oso ondo.
- Zabalotegi 80 m$^2$, eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 m$^2$, terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Toki Eder plaza, 98 m$^2$, oso ondo.
- Simon Arrieta, 57 m$^2$, terrazarekin.
- Zurradero, 81 m$^2$, oso ondo.
- Zubieta, 125 m$^2$, terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 m$^2$, berritua. Oso eguzkitsua.
- Iparragirre, 190 m$^2$.
- San Antonio, 65 m$^2$, eguzkitsua.
- Masterreka, 46 m$^2$, eraikuntza berria.
- Etxebizitza berrien erainkuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren, Bidekurutzetan, Zubietan, Martokon eta San Lorentzon.
- Jatetxea erdialdean bezeroekin. Salgai edo errentan ematen da.
- Basarte. 69 m$^2$. Oso ondo.
- Toki Eder plaza. 54 m$^2$. Apartamentua. Oso ondo.
- Artekale, 48 m$^2$. Apartamentua. Oso ondo.

SORALUZE
- Baltegieta, 83 m$^2$, berria.
- Sagarerreka, 58 m$^2$, aukera ona.

ANTZUOLA
- Eguzki auzoa, Antigua auzoa eta Sagasti auzoa.

ELGETA
- San Roke, 75 m$^2$, ia berria.

**AUKERA**
***Etxe bat salgai Autolen (Errioxa),***
**Arnedillotik 20km-ra.**
**Alde zaharrean.**
**5 logela, 3 komun, egongela bat, patioa eta terraza.**
**Eguzkitsua.**
**175.000 euro**
**696-86 77 56**
***Etxebizitza bat errentan Oderitzen (Larraun Ibarra),***
**3 logela, komuna, lorategia**
**400 euro hilean**
**AUKERA**

**Zaldibar.** Logela bat dut alokagai, Zaldibarren. Harremanetan jartzeko telefonoa: 655-73 97 92

### 104. ERRENTAN HARTU

**Antzuola edo inguruan** etxebizitza hartuko nuke errentan. Bi edo hiru logelakoa. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 603 62 08 84.

**Bergara.** Etxebizitza hartuko nuke errentan. 450-500 euro ordain ditzaket hilean. 699-66 33 63

**Berriz.** Berrizen edo inguruan pisua alokatu nahi genukeen bikote bat gara. Deitu:669-95 64 50

**Donostia.** Langile oñatiar bat naiz eta irailetik aurrera donostian bizi ahal izateko etxe bila nabil. 675-00 87 58

### 105. ETXEAK OSATU

**Aretxabaleta.** Etxebizitza osatzeko logela bat daukagu errentan. Logela handia, bainugela eta guzti. 695 72 79 55

**Arrasate.** Lau logelako etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da. Bertan langileak bizi dira. Deitu: 653-71 44 57

**Arrasate.** Irakasle ikasketak egiten hasiko garen bi ikasle gara, Enara eta Amaia, eta hiru logelako etxebizitza osatzeko pertsona bat behar dugu. Etxea egoera onean dago, 200 euro izangolirateke pertsonako (gastuak aparte). Etxeak bainugela, sukaldea eta 3 logela ditu, indibidualak eta bakoitza bere idazmahaiarekin. 695-71 92 38

**Arrasate.** Etxea osatzeko gela bat edo bi ditugu errentan. 630-71 35 83

**Arrasate.** Erdigunean etxebizitza osatzeko logela daukat. Arrasatearra naiz. 688-60 86 33

**Arrasate.** Logela ematen da errentan. 619-78 63 41

**Arrasate.** Pertsona batbehar dut Erguin aldean etxebizitza osatzeko. 670-59 73 62

**Arrasate.** Pisukide baten bila gabiltza etxebizitza osatzeko. Pisua erdigunean dago, Alde Zaharrean. Handia eta argitsua da: lau logela, bi komun, sukaldea eta egongela handi eta eguzkitsua ditu. Alokairua, wifi, telefonoa, 200 euro pertsonako, hilean, gehi gastuak. Animatu eta deitu. 665-71 69 10 edo 943-77 07 00

**Azpeitia.** Alokairuan herritik hurbil, leku baketsu eta lasaian: egongela eta jangela balkoi handiarekin, sukaldea, 2 komun eta 4 logela argitsu ekipaturik. Informazio gehiago: 943-81 34 13 eta 606-07 48 31

**Bergara.** Logela ematen da errentan, prezio onean. 655 71 41 24

**Bergara.** Neskez osatutako etxebizitzaren batean logela beharko genuke errentan, 2010-2011 ikasturtean zehar, institutoko irakasle batentzat. Interesatuok deitu zenbaki honetara eta galdetu Leiregatik: 943 76 31 42

**Bilbo.** Bilboko Begoña auzoan dagoen ikasle pisu bat osatzeko pertsona bat behar dugu. Pisuak 4 logela, egongela handia, sukaldea eta bi komun ditu. 290+gastuak.*pixubila@gmail.com*

**Donostia.** Antiguon alokairu kontratudun gela argitsua eta garaje itxia eskaintzen da hilean 375 euro (errenta aitorpeneko dirulaguntzarekin 280 euro)+ 50 euro gastuak. irailak 15etik aurrera epe luzerako (12 hilabete gutxienez) 114 m2ko pisua. Beste 2 pertsona langilerekin (27 eta 29 urte, ez gara bikotea) partekatuko litzateke. 2 bainu, egongela handia, sukalde berri-berria, terraza (14m2) eta piszina. Aukera paregabea. Garrantzitsua: urte osorako banku abala eskatzen du etxearen jabeak.Hots egiguzu lehen bait lehen 626-22 92 58 telefono zenbakira.

**Oñati.** Pertsona baten bila nabil etxea osatzeko. 606-15 11 47

**Oñati.** Logela bat alokatuko nuke. Interesa baduzu deitu mesedez: 606-15 11 47

**Oñati.** Logela bat daukagu errentan emateko. Harremanetarako deitu: 617-14 39 41

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Aretxabaleta.** Garaje itxia salgai Ilargi plazan. 26 metro koadrokoa. Autoa garbitzeko lekua dago bertan. 675 70 53 79.

**Oñati.** 14 metro koadroko garajea, marra, salgai Mendiko kalean. 28.000 euro. 661 68 11 24.

## 3/ LOKALAK

### 301. SALDU

**Etxarri-Aranatz.** Borda eta lursaila saltzen dira Etxarri Aranatzen, argi indarra eta urarekin. Herritik km batera, leku paregabean. Aukera ezberdinak. Telefonoa: 630 98 36 49.

### 302. EROSI

**Azkoitia.** Azkoitian edo inguruan txabola lursailarekin edo txabola bat eraiki daitekeen lursail bat erosi edo alokatuko nuke. 686-89 77 32

## 4/ LANA

### 402. ESKAERAK

**Altsasu.** Lan egiteko prest: haurrak zaindu, etxeko lanak egin, garbiketa orokorrak egin edo arropa konponketak Deitu 948-57 62 07 edo 600-051 584 telefonoetara.

**Aretxabaleta** eta inguruko herrietan emakume gaztea etxebizitzak garbitzeko gertu. 607 73 16 78

**Aretxabaleta.** Emakumea gertu nagusiak eta umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Feli. 943 53 33 92

**Arrasate eta inguruan** emakumea gertu sukaldari lanetarako. Udan edo asteburuetan. Bost urteko esperientzia. Agu. 679 73 92 66

**Arrasate edo Bergara.** Esperientziadun emakumea gertu etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko eta baita sukalde laguntzaile lanetan jarduteko ere. 665 75 41 32

**Arrasate eta inguruko** herrietan, neska gertu zerbitzari lanetan jarduteko. Esperientziaduna. 680 53 97 54

**Arrasate.** Arrasateko neska gazte euskalduna goizetan etxeak garbitzeko prest. Esperientziaduna. 618 41 24 79

**Azpeitia.** 20 urteko neska euskalduna, haurrekin lanean esperientzia duena bai begirale moduan, zaintzaile moduan... Arratsaldez haurrak zaintzeko prest egongo nintzateke. Interesatuak deitu zenbaki honetara: 606-42 64 14

**Beasain.** Emakumea behar da etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko. Arratsaldeetan. Deitu 686-44 10 06

**Beasain.** Emakume euskalduna behar da umeak zaindu eta etxekolanetarako goizeko ordutegian. Deitu 657-70 72 74 telefono zenbakira

## sudokua

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 6 | 5 | | | | | 7 | 2 |
| | 2 | | | | | 9 | | |
| 8 | | 4 | 2 | | | | | |
| 5 | | 7 | | | | 6 | 9 | |
| 3 | 8 | | 9 | | | | | 4 |
| 4 | | 2 | 8 | | | | | |
| | | | | 2 | | 8 | | |
| 1 | 5 | | 6 | 4 | | | 2 | |
| | 7 | 9 | | | 8 | 3 | | |

## bila-bila 7





## hitz gezidunak




GOIENKARIA

## hieroglifoa

Zer egin zuen zigorra jasotzeko?




## hizki salda

Oñatiko bost musika talde.

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| F | A | E | T | G | X | M | A | T |
| S | A | L | G | A | X | Z | M | Z |
| D | R | A | K | E | S | T | O | T |
| P | O | T | E | M | K | I | N | S |
| X | H | Z | U | X | H | N | A | B |
| X | Z | E | A | E | Z | Z | L | X |
| S | Z | N | B | M | O | I | L | T |
| T | A | T | E | W | A | R | T | G |
| A | S | F | I | K | S | I | A | D |

## soluzioak





**Hieroglifoa:** Bekatua.





## asteko horoskopoa

**ARIES**
*martxoak 21-apirilak 21*

Epe motzean lanean aldaketak egiteko unea, egiten duzunaren truke gehiago merezi duzula uste duzu eta. Soldata gehitzeko eskaria edo lanpostu aldaketa izan daiteke.

**TAURUS**
*apirilak 22-maiatzak 21*

Lan handiko astea, baina baita emaitzak biltzekoa ere. Maitasun kontuak: bikote-kiderik ez baduzu, bat ezagutuko duzu, eta norbaitekin bazabiltza, une gozoak...

**GEMINI**
*maiatzak 22-ekainak 21*

Irten kalera eta ondo pasa, etxean sartuta baino hobeto ibiliko zara. Ahalegindu zure bikote-kidearekin komunikatzaileagoa izaten, bestela zuregandik urrunduko da eta

**CANCER**
*ekainak 22-uztailak 22*

Aldaketa behar duzu, baina guztia bertan behera laga eta alde eginda ez duzu ezer lortuko. Ezertan hasi aurretik ondo pentsatu egin behar duzun horretan.

**LEO**
*uztailak 23-abuztuak 22*

Lan eta estres handiak, lanean aldaketak izango dituzu eta. Zure urdailak igarri ez ditzan ahalegindu lasaitzen. Hau da, bizitza lasaiago hartzen.

**VIRGO**
*abuztuak 23-irailak 22*

Zure asmoak alde batera utzi beharko dituzu, familiak behar zaitu eta. Kontuz hanka non jartzen duzun, orkatilan zaintiratua izan baitezakezu.

**LIBRA**
*irailak 23-urriak 22*

Atseden eta lasaitasunerako astea. Familiako ospakizunak direla eta mugitu beharko duzu. Erabili bolada on hau energiaz puzteko.

**SCORPIUS**
*urriak 23-azaroak 22*

Lanean egoteko duzun joerak arazoak ekar diezazkizuke zure bikote-kidearekin. Hitz egin berarekin eta azal iezazkiozu zure beharrak.

**SAGITARIUS**
*azaroak 23-abenduak 21*

Beharrean aldaketak izango dituzu, eta ez dira zure gustukoak izango, horien ondorioz leku aldaketa izango baituzu. Gomendioa ez galdu umore ona.

**CAPRICORNIUS**
*abenduak 22-urtarrilak 20*

Zure asmoak uste bezala ez irtetearen arrazoiak bilatzeko une egokia. Beharbada, konponbidea laguntzaileren bat aldatzea izango da, inbidiak jota kalte egin baitizu

**AQUARIUS**
*urtarrilak 21-otsailak 20*

Etxean geratzeko joera izango dituzu, eta horrek zure lagunak larrituko ditu. Lanean ere, zeure kontura aritzeko gogoa, baina ez dizute utziko.

**PISCIS**
*otsailak 21-martxoak 20*

Ametsetan ibiliko zara, eta kontu garrantzitsuak erdizka uzteko joera izango duzu. Hori dela eta, liskarrak izan ditzakezu ingurukoekin.

## gazte zerbitzua

**BEKAK**

**> Lankidetza bekak.** Eusko Jaurlaritza. 175 beka emango dira unibertsitateko ikasketekin batera lankidetzan jardun nahi dutenentzat. Epea: irailak 30.

**> *Step Beyond* mugikortasun beka.** artista eta kultura alorreko langileei zuzendutako diru laguntzak dira, EBeko estaturen batera bidaiatzeko beka.

**IKASTAROAK**

**> DYA.** DYAren sorospen eta lehen sorospenetako ikastaroa Errenterian. Datak: irailaren 6-tik 24-era.

**> Begiraleak eta zuzendariak.** Aisiolak antolatzen dituen ikastaroetan izena emateko aukera duzu irailaren 21era arte. *aisiola@ikastola.net*

**LANA**

**> Eureseko lan eskaintzak.** Kontsultatu Euresek atzerrian lan egiteko dituen eskaintzak.

**LEHIAKETAK**

**> Komikia.** Euskadi Bakea eta Elkartasuna Fundazioa. Globalizazioaz eta Lan Eskubidee gaineko Komiki Lehiaketa. Epea: azaroaren 1a.

gazte informazioa

**ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:**
Biteri etorbidea 3 • 943 25 20 65.
*gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net*

**BERGARAKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:**
Kultura etxea • 943 77 91 57
*gzerbitzua@euskalnet.net*

**OÑATIKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:**
Foruen plaza 4 • 943 71 82 57
*gazteinformazioa@oinati.net*

## astea GOITBn

### Astelehena, 13



**> San Martin jaietako feria 'Magazinea'-n**
**19:45, 21:30**
Bergarako San Martin Agirre jaiak dira oraingo egunetan. Zapatuko azokaren berri luze eta zabal emango dute gaurko *Magazinea*-n.

**13:15** Marrazki bizidunak.
**13:45** Kantari.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Erloklip.
**15:45** Ikusmira.
**16:15** 28 Klip.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:45** 28 Klik.
**18:15** Marrazki bizidunak.
**18:45** Berriak.
**19:15** Kantari.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Harmailatik.
**21:30** Goiena Magazinea.
**22:30** Harmailatik.
**23:00** Gipuzkoakultura.
**23:30** Goiena Magazinea.
**00:30** Emisio amaiera.

### Martitzena, 14



**> Elkarrizketa Pello Urizar EAko idazkari nagusiari**
**19:45, 21:30**
Politikariekin egiten dabiltzan errondarekin jarraituz, Pello Urizar EAko idazkari nagusiari elkarrizketa Arritxu Barrusok eta Eneko Azkaratek.

**13:15** Marrazki bizidunak.
**13:45** Kantari.
**14:15** Onein.
**14:45** Berriak.
**15:10** Harmailatik.
**15:50** Kiroleroak.
**16:20** Erloklip.
**16:45** Berriak.
**17:10** Marrazki bizidunak.
**17:35** Eskuokin.
**17:55** Kurtulzulo.
**18:15** Marrazki bizidunak.
**18:45** Berriak.
**19:15** Kantari.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Harmailatik.
**21:30** Goiena Magazinea.
**22:30** Iragana gogoratuz.
**23:00** 28 Klip.
**23:30** Goiena Magazinea.
**00:30** Emisio amaiera.

### Eguaztena, 15



**> Ain-1 taldea, Bosniatik bueltan 'Magazinea'-n**
**19:45, 21:30**
Arrasateko Ain-1 musika taldea Bosnian izan da udan. XIII. adiskidetasunaren nazioarteko jaialdian jo eta Bosniako errealitatea ezagutu dute.

**13:15** Marrazki bizidunak.
**13:45** Kantari.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:10** Iragana gogoratuz.
**15:50** Onein.
**16:20** 28 klip.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:35** Harmailatik.
**18:15** Marrazki bizidunak.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Iragana gogoratuz.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Goiena Magazinea: tertulia.
**23:15** Goiena Magazinea
**00:15** Jazz jaialdia.
**00:45** Emisio amaiera.

### Eguena, 16




**> Litografia eta Bertze Musiken Jaialdia**
**22:15**
*GipuzkoaKultura*, saioan, Ertz (XI. Bertze Musiken jaialdia) eta Don Herbert litografoaren erakusketaren berri (Koldo Mitxelena).

**13:15** Marrazki bizidunak.
**13:45** Kantari.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Gipuzkoa kultura.
**15:45** Goiena Magazinea: tertulia.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:45** Onein.
**18:15** Marrazkibizidunak.
**18:45** Berriak.
**19:15** Kantari.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Animalia.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Gipuzkoakultura.
**22:45** Kulturzulo.
**23:00** Erloklip.
**23:30** Goiena Magazinea.
**00:45** Emisio amaiera.

### Egubakoitza, 17



**Ordiziako Euskal jaien gaineko berezia**
**22:15**
Ibarreko jaiak ez ezik, Goierri aldekoak ere jasoko ditugu. Ordiziako euskal jaiei buruzko saio berezia, Goierri Telebistak ekoiztutakoa.

**13:15** Marrazki bizidunak.
**13:45** Kantari.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Gipuzkoa kultura.
**15:45** Goiena Magazinea: tertulia.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:45** Onein.
**18:15** Marrazkibizidunak.
**18:45** Berriak.
**19:15** Kantari.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Animalia.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Gipuzkoakultura.
**22:45** Kulturzulo.
**23:00** Erloklip.
**23:30** Goiena Magazinea.
**00:45** Emisio amaiera.

## arrasate irratia

**FM 107.7**

**> Bixente Atxa, Arrasateko mendi bideak eta Maritxu**
Gaur, astelehena, 10:00etatik 11:00ak arteko albistegian, MUren ikasturte berriaren, fakultate eta zentro berrien eta erronken gainean jardungo dute Bixente Atxarekin, Goi Eskola Politeknikoko zuzendariarekin. Martitzenean, berriz, udalerriko mendi bideak izango dituzte berbagai, eta eguaztenean, Maritxu Kajoi badatorrenez, hari ere lekua egingo diote.

**Zapatua**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Domeka**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Astelehenetik egubakoitzera**
**10:00-12:00** Uda Giroan
Musika
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Donostiako Aquariumera bisita
Eguneko eta asteko protagonistekin, elkarrizketak
Inguruko igerilekuen berri
Udal Gazte Bulegoa bertatik bertara
Astearen errepasoa (GOIENKARIArekin)
Zozketak (egubakoitzean)
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 (*irratia@goiena.com* )
Agenda hitzorduak
Musika
**12:05** Euskadi Irratiko albistegia
**12:10** Izarren ordua: abesti ezagunak
**13:00** Euskadi Irratiko albistegia.
**14:00** Uda Giroan
**17:00, 19:00, 21:00, 23:00** Uda Giroan.

## telealbisteak

**TELECINCO** > SAIO BERRIA

# 'Sorpresa sorpresa' saio arrakastatsua itzul daiteke berriro ere telebistara

Gemma Garcia donostiarra edo Pilar Rubio izan daitezke saioaren aurkezleak

**ENEKO AZKARATE** > BERGARA

Telecincok errekupera dezake Antena 3 katean arrakasta handia lortu zuen *Sorpresa sorpresa* saioa. Mediaset-en kateak enkargua eman dio Boomerang produkzio-etxeari saio arrakastatsuaren antzeko saioa prestatzeko. Telecincok onartzen badu, litekeena da hilean behin emititzea saioa. Emma Garcia donostiarra izan liteke aurkezlea, baina Pilar Rubio ere bai. Oraindik erabakitzeke dute hori.

Telecincok esku artean daukan proiektua ez da zehatz-mehatz Antena 3 kateak eman zuena eta jatorria *Carramba che sorpresa!* (Rafaela Carrak aurkeztua) italiarrean duena. Antzeko formatua izango du, baina ezberdintasunak ere bai.

Edozelan ere, platoan dagoen jendeari ematen zaizkion ustekabeetan oinarrituko da eta, jakina, zuzenean emitituko da.

**'EL CONQUISTADOR'**

Isabel Gemio eta Concha Velasco izan dira Antena 3 kateak eman zuen saioaren aurkezleak. Sekulako audientziak lortu zituen bere garaian. Orain dela hiru urte berriro errekuperatu zuen Antena 3k, baina ez zuen aurreko arrakasta lortu.

**ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA**

**MUSEO BAT BAINO ASKOZ ERE GEHIAGO...**

**GUK ERE IKASTURTE BERRI BAT HASI DUGU**

2010/2011 ikasturterako, ikastetxeei zuzendutako hezkuntza eskaintza zabala dugu.
Bisita gidatu, tailer eta planetariumeko saioak lau hizkuntzetan eskeintzen ditugu (euskara, gaztelania, frantsesa eta inglesa), eta adin guztietako ikasleei zuzendutakoak dira.
Eskolan ikasitakoaren osagarri aproposa, zalantzarik gabe.




Informazio gehiago: *www.kutxaespacio.es* edo 943 01 24 78

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA

Miramon-Donostia Tel.: 943 01 24 78
*www.miramon.org*
**Ordutegia**
Astelehenetan itxita.
Asterartetik ostiralera 10:00-19:00.
Asteburu eta jai-egunetan 11:00-19:00

kutxa | www.kutxasocial.net



# UDAKO ARGAZKIEN

Argazki guztiak fotoblog honetan:



**GREZIA.** Agia Triadako monasterioa. Greziara egindako bidaian, Meteorako mendi eta monasterio ikusgarriak ikusteko aukera izan genuen. /Argazkia: Bittor Carballares /Eskoriatza



**LOSSE.** Argazkia Frantzian, Perigordean dago aterata. Losse-ko gaztelua agertzen da aurrean duen ibaiarekin. /Argazkia: Jone Arrazola /Oñati



**ARRANTZAN.** Mbour-eko hondartzan arratsaldetan arrainez betetako itsasontzixak noiz etorriko zain egoten da jende asko. /Argazkia: Maddalen Olabarria /Bergara



**MUSIKA ENTZUTEN.** Oporretan, hondartzan, musika entzuten... eta liburua esku artean? Badirudi halaxe dagoela argazkiko laguna. /Argazkia: Nekane Lazkano /Bergara



**MENDIAN.** Midi d`ossau mendia, Ayous aterpetik ikusita, ekaineko ilargi betea aurrean dugula. /Argazkia: Roberto Izagirre /Bergara



**ZISNEA LAKUAN.** Argazkian zisne bat azaltzen da lakuaren ur-bazterrean argazkilariari begira, argazkia Suitzan aterata dago. /Argazkia: Unai Kortabarria /Aramaio



**PANORAMIKOA.** Danau Maninjau-n (Indonesia), ateratako erretratu panoramikoa. Sumatran dagoen sumendi-lakuetako bat da –Toba lakua da bestea– eta herrialde hori ze ikusgarria den erakusten du inguru horrek. /Argazkia: Amaia Irizar /Debagoiena



**GURUTZEAN.** Berchtesgaden Parke nazionala (Alemania). /Argazkia: Asier Moral/Debagoiena



**NOIZ HASIKO DA AKELARREA?** 2010eko abuztuak 14, Vall d´e Aran (Pirineotan). /Argazkia: Amaia Osa /Bergara



**LEKU BILA.** Zarautzen aterata dago 2008ko udan. Itsasoak bere lekua eskatzen duenean eserlekuak ere ez dira kabitzen hondartzan. /Argazkia: Maddi Iñarra /Bergara



**ITZALETAN.** Eguzkiak bete-betean jotzen duenean edozein itzalgune izan daiteke fresko-fresko egoteko aproposa. /Argazkia: Rosa Garcia /Bergara



**HEGAN!** Argazkian Maika agertzen da, parapentearekin hegan, Annecy aintziraren gainean. /Argazkia: Malen Gallastegi /Bergara

# VI. GOIENA LEHIAKETA



*www.goiena.net/blogak/argazkiak*



**MADEIRA.** Loreak, itsasoa eta mendiak, Madeira irlako hiru ezaugarri nagusi. /Argazkia: Maialen Mtz. de Zuazo /Oñati



**ZUBIAN.** Ondarruko zubi zaharrean jendea atseden hartzen. Eguraldiak laguntzen zuen ibaira lasai-lasai begira egoteko. /Argazkia: Nebat Roo /Arrasate



**BERGARA.** Hodei eta Unax plazan egingo den entzierrorako prestatzen. /Argazkia: Maider Murgizu /Bergara



**GAIAAAA.** Argazki honetan, Suitzako Sinplopass mendatea pasa ostean aurki daitezkeen egundoko bi urtegi ikusten dirax xxxx. /Argazkia: Ainhoa Belategi /Bergara



**GREZIAN.** Munduko ilunabarrik politena bertan aurkitzen dela diote, argazkian ikus dezakezuen moduan. /Argazkia: Xabier Mondragon /Arrasate




**BARBERSHOP.** Atenasko bizartegi honen argazkia ateratzean, alboan pertsonai misteriotsu bat zegoela konturatu nintzen. /Argazkia: Mikel Maidagan /Arrasate



**LASAITASUNA.** Akitanian uztailean atera genuen erretratuan emakumezkoa eguzkia hartzen, ura bare dagoela. /Argazkia: Idurre Arbulo /Aretxabaleta



**ZUBIRA BEGIRA.** Astetxo batzuk pasau die argazkixa atara gauenetik Londresko Tower Birght-ai begira. /Argazkia: Ander Soto /Arrasate



**ZIZTU BIZIAN.** Ampuria brava-ko mutikotxo bat haundi ekiten denerako ikasten, ondoko yatea eramateko trebezia hartzen. /Argazkia: Josu Toledo /Antzuola

## Oinarriak:

- **Parte-hartzaile bakoitzeko, gehienez, 5 argazki.**
- **Argazkiarekin batera adierazi beharko dira:**
  **– Egilearen izen-abizenak eta herria.**
  **– Harremanetarako telefonoa.**
  **– Argazkia noiz eta nongoa den.**
  **– Argazkian zer eta nortzuk agertzen diren.**
- **Argazkiak jasotzeko epea: uztaila - irailaren 17a.**
- **Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta (paperean ondo erreproduzitzeko adinako bereizmenarekin).**
- Bidali argazkiak eta aipatutako datu GUZTIAK *argazkiak@goiena.com* helbidera, edo Goienara ekarri:
  ARRASATE: Otalora Lizentziaduna 31.
  BERGARA: Ibarra kalea 6
  ARETXABALETA: Durana 11, 2. solairua, edo Basabe poligonoa E-O-5.
- Egoitzara ekartzekotan, kartazal batean sartuta (egilearen izen-abizenekin), CD batean edo argazki digitalak gordetzeko beste edozein euskarritan eta JPEG formatuan.
- Udako argazkiak izango dira: berdin da aurtengo udan ateratakoak izatea edo beste uda batekoak.

## Sariak:

- **1. saria: Canon EOS 1000D** argazki kamera digitala eta KB photoestudiok emango dituen ikastaroetako batean %50eko deskontu bonoa.




- **2. saria:** Cantabriako Treceño herriko Hotel Palacio de Guevara-n astebukaera bateko egonaldia bi lagunendako. Gosaria eta larunbateko afari berezia barne. Arrasate Bidaiak-en eskutik.
- **3. saria:** bi pertsonarendako afari edo bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.

BABESLEA: gizarte kutxa
Laguntzaileak: kb photoestudio, Canon, GURE AMETSA JATETXEA, ARRASATE BIDAIAK
Goienkaria, Goitb, Goienkaria, Goiena.net, Arrasate Irratia

# zorion agurrak


ELGETA
**Nerea Canelo Ubera**
Irailaren 5ean, 6 urte. Zorionak eta muxu handi bat etxekoen partetik.


ARRASATE
**Nerea Davila**
Irailaren 5ean, 28 urte. Zorionak eta patxo bat familiakoen partetik.


ARRASATE
**Igortz Ramos Zumalde**
Irailaren 6an, 6 urte. Zorionak, pirata, eta oso ondo pasatu zure egunean! Laztan potolo bat Izadi, amatxo, aitatxo, aitaita Antton eta amama M. Asunen partetik.


ARRASATE
**Ana Bautista**
Irailaren 6an, 38 urte. Zorionak, guapa! Ederto pasatu eguna, belarri tirakada handi bat eta muxu potolopotoloak, Arrasateko laguntxo guztien partetik. Pote bat zure kontu, noiz? Patxoak.


BERGARA
**Lander Urcelay**
Irailaren 6an, urtebetetzea. Zorionak eta patxo handi bat, tio! Maren, Naia eta Jonen partetik.


ARRASATE
**Aitziber Zumalde Pagoaga**
Irailaren 6an, 32 urte. Zorionak, izeko Aitzi! Patxo potolo bat zuretako eta oso-oso ondo pasau! Igortz eta Izadi.


ARRASATE
**Carla Murillo Pildain**
Irailaren 7an, urtebetetzea. Zorionak, printzesa! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta muxu handi bat familia guztiaren partetik, bereziki aitatxo eta amatxoren partetik. Maite zaitugu.


ARRASATE
**Jose Hernandez**
Irailaren 8an, 48 urte. Zorionak eta patxo bat familiakoen partetik.


ARRASATE
**Elene Hierro Jimenez**
Irailaren 8an, 6 urte. Zorionak, sorgintxo! Muxu handi-handi bat Idoia eta Ionen partetik!


ARRASATE
**Mari Davila**
Irailaren 8an, 50 urte. Zorionak eta patxo handia zure senar eta semeen partetik!


ARRASATE
**Miren Axpe**
Irailaren 9an, 41 urte. Zorionak! Patxo potolo-potoluak Eskoriatzatik. Ondo izan guapa.


BERGARA
**Martin Da Silva Garcia**
Irailaren 9an, urtebetetzea. Zorionak, txapeldun! Oso ondo pasatu zure urtebetetzean. Muxu pila bat zure lagunen partetik: Naia, Hugo, Andoni, Ander, Iago, Nora, Iker eta Ekiñe.


ARRASATE
**Aner Iriarte Balerdi**
Irailaren 9an, 7 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Malen, Naroa, June eta familia guztiaren partetik.


BERGARA
**June Domenech Elkoro**
Irailaren 10ean, 8 urte. Zorionak eta patxo handi bat amatxo, amama Tere, tia Maider, tio Harkaitz eta amama Kontxitaren partetik. Egun ona pasa ezazula!


ARRASATE
**Iban Inda**
Irailaren 10ean, 30 urte. Zorionak eta patxo handi bat zure neskalagunaren eta lagun Oliver eta Veronikaren partetik.


ARRASATE
**Manuel Ropero**
Irailaren 10ean, 71 urte. Zorionak zure emazte, alaba eta suinaren partetik.


BERGARA
**Paula Garcia Frago**
Irailaren 10ean, 9 urte. Zorionak, polita. Ondo-ondo pasatu zure egunean. Aitatxo eta amatxoren partetik, muxu handi-handia.


OÑATI
**Izeia Ibabe**
Irailaren 10ean, 6 urte. Zorionak, printzesa! Ongi pasatu zure egunean eta muxu bero bat zure familiaren partetik.


ARRASATE
**Tania Vinagre**
Irailaren 10ean, 21 urte. Zorionak eta patxo handia familiakoen partetik.


OÑATI
**Oihan Cuesta Billar**
Irailaren 11n, urtebete. Zorionak, pottoki! Ondo-ondo pasatu zure lehenengo urtebetetzian eta patxo handi bat familixa danan partetik.


ARRASATE
**Naiara Garcia Bolinaga**
Irailaren 12an, urtebetetzea.Zorionak, izeba! Oso ondo pasatu egune! Politte bezain jatorra izeten jarraitu! Behimuxua zuretako, izeba! Anartz, Jon eta Iban.


ARRASATE
**Haizea Zulueta**
Irailaren 12an, 3 urte. Zorionak, Arrasateko Printzesa! Ondo-ondo pasatu eguna eta muxu handi-handi bat etxeko guztion partetik.


BERGARA
**Itziar Ibarra Udabe**
Irailaren 13an, urtebetetzea. Zorionak, ama, zure urtebetzean! Muxu handi bat aita, Jasone, Ane Miren eta amamaren partetik. Egiten dituzun bazkari eder horietako baten zain egongo gara!


ARETXABALETA
**Danel Lanzos Erostarbe**
Irailaren 13an, 4 urte. Zorionak, mutiko handi! Ondo-ondo ospatu urtebetetze eguna eta muxu handi bat etxeko guztien partetik, bereziki Agerren partetik.


ARETXABALETA
**Iker Arias Axpe**
Irailaren 13an, 7 urte. Zorionak,txapeldun! Ondo-ondo pasatu eguna eta muxu handi bat etxeko guztien partetik eta bereziki Unai eta Eiderren partetik. Aupa Iker!


ESKORIATZA
**Arantxa Eizmendi**
Irailaren 13an, urtebetetzea. Zorionak, amatxo! Patxo handi-handi bat eta ondo pasatu eguna Ekaitzen eta etxeko guztien partetik.


ESKORIATZA
**June Larzabal**
Irailaren 14an, 11 urte. Zorionak, poxpolina! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetzea. Patxo asko eta besarkada handia etxeko danan partetik.


ARRASATE
**Jon Eraña Garcia**
Irailaren 15ean, 4 urte. Zorionak, txikitxo! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetzien! Muxu handi bat danon partetik eta batez be Anartz, Unai, Urko eta Manexen aldetik.


BERGARA
**Oihan Larrañaga Larrañaga**
Irailaren 15ean, 4 urte. Zorionak, Oihan! Ondo pasatu zure egunean, familiaren partetik. Muxu potolo-potolo bat!


ARRASATE
**Imanol Loiti Montero**
Irailaren 15ean, 6 urte. Bigarren eskuarekin zenbatzen hasi behar! Zorionak, margolari, eta milaka patxo potolo eta kilo zorion etxeko guztien partetik.


ARRASATE
**Iosu Pereda**
Irailaren 15ean, 44 urte. Arrasateko suhiltzaile sexiari, zorionak eta patxo potolo-potoluak, Eskoriatzatik, noski... *kar, kar, kar*!


ARRASATE
**Alaitz Luengo Guezmes**
Irailaren 15ean, 5 urte. Zorionak eta patxo handia etxeko danon partetik.


OÑATI
**Olatz Irizar Elorza**
Irailaren 16an, 5 urte. Zorionak! Handi egin zara! Ondo pasatu zure eguna. Muxu pila bat denon partetik.


ARRASATE
**Haizea Arenaza Pagaldai**
Irailaren 16an, 4 urte. Zorionak, potxola. Muxu pilo bat etxekoen eta, batez ere, Ikerren partetik. Ondo pasatu, laztana.


ARRASATE
**Unax Aranzabal Vitoria**
Irailaren 18an, 6 urte. Zorionak, mutikote. Zure urtebetetze egunean ondo pasa dezazula maite zaituzten guztien artean. Muxuak Jon, Ane, aitatxo eta amatxoren partetik.


BERGARA
**Eneko Azkarate**
Irailaren 18an, urtebetetzea. Zorionak eta urte askotarako lankideen partetik.


ARAMAIO
**Jone Inuntziaga**
Irailaren 19an, urtebetetzea.Patatak gustoko dituzun arren, zorixonak gure lankide bizkaitar errubia gogokoenari gipuzkoa aldetik. Mosu handi bat eta eta espuma gabeko kafeak zure kontura!

## ZORIONAK!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak Asteleheneko Goienkariaren bidez! Hiru bide dituzu:

**Internet bidez**
Goiena.net atariko Zorion agurren tartean sartu.
Aukeratu zein herritan gehitu nahi duzun eta eskatzen diren datuak bete.

**e-postaz**
Mezu bat bidali *zorionagurrak@goiena.com* helbidera.
Honako datuak emanez: Izen abizenak, herria, urteak noiz betetzen dituen, zenbat urte betetzen dituen eta nahi duzun mezua.

**Edo etor zaitez Goienako ordezkaritza batera.**

Egubakoitz 11:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera jasotakoak datorren hurrengo astean argitaratuko ditugu.

## ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu,
deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:

**943 25 05 05**

Edo zatoz ordezkaritza batera.

**Eskelaren prezioa: 122.50 euro.**
Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn,
bietan, argitaratuz gero, **163** euro.

**GOIENKARIA: astero, 34.000 irakurle (CIES) Gipuzkoan.**




1. URTEURRENA

## Marini Elkorobarrutia Perez

*Maite zaitugu, tia Marini.*



Iker eta Oier.
Arrasaten, 2010eko irailaren 13an.

1. URTEURRENA

## Marini Elkorobarrutia Perez

*Gogoan zaitugu, maitia.*



Etxekoak.
Arrasaten, 2010eko irailaren 13an.

## asteburuko albuma



**Atzeko Kaleko jaiak.** Egitarau zabala prestatu dute aurten Oñatiko Atzeko Kaleko jaietako antolatzaileek, tartean, egubakoitz gauean egon zen kontzertu sorta. Bertan aritu zen Ze Esatek! ska banda, eta euren doinu eta mugimenduekin dantzan jarri zituzten kontzertura joandakoak.



**Alegria zirkua Arrasaten.** Aragon familiaren zirkuak geldialdia egin du asteburuon Arrasaten, eta arrakasta handia lortu dute prestatutako ikuskizunekin. Akrobatak, Gaby eta Lara pailazoak, *Madagascar* filmeko protagonistak... Guztiak ere handi eta txikien gozamenerako.



**Kurtzeberri Egun lainotsua.** Eguraldiak gehiegi lagundu ez arren, jende asko joan zen atzo Kurtzebarrira bertako eguna ospatzera. Lainoaren erruz, ez zen erreza gurutzea bera ikustea, baina asko igo ziren berau ukitzera. Meza eta mokadutxoaren ostean, trikiti doinuekin bueltatu ziren herrira.

## jaiotakoak



**Jare Gaztañaga Ugarte**
Oñati > 2,500 kilo. Irailaren 6an. Gurasoak: Edurne (Oñati) eta Enrike (Zumarraga). Argazkian, Jare jaioberria, sehaskan lo.



**Mirari Alcaraz Caballero**
Eskoriatza > 3,600 kilo. Irailaren 7an. Gurasoak: Miryam (Eskoriatza) eta Roberto (Eskoriatza). Argazkian, Mirari jaioberria, gurasoekin.



**Malen Bengoa Muxika**
Eskoriatza > 2,810 kilo. Irailaren 7an. Gurasoak: Iratxe (Arrasate) eta Andoni (Arrasate). Argazkian, Malen jaioberria, amarekin.



**Elene Etxezarreta Irizar**
Oñati > 3,250 kilo. Irailaren 8an. Gurasoak: Ainhoa (Oñati) eta Jon (Oñati). Argazkian, Elene jaioberria, Sehaskan lo.



**Jokin Agirre Biritxinaga**
Abadiño > 3,820 kilo. Irailaren 6an. Gurasoak: Estibalitz (Abadiño) eta Alex (Abadiño). Argazkian, Jokin jaioberria, sehaskan lo.



**Manex Erle Igartua**
Oñati > 3,260 kilo. Irailaren 8an. Gurasoak: Maite (Oñati) eta Bittor (Oñati). Argazkian, Manex jaioberria, amarekin.



**Magali Lazpiur Eraña**
Arrasate > 3,620 kilo. Irailaren 8an. Gurasoak: Judith (Aretxabaleta) eta Xabier (Aretxabaleta). Argazkian, Magali jaioberria, aitarekin.



**Nora Irizar Bidezabal**
Azpeitia > 3,000 kilo. Irailaren 2an. Gurasoak: Mikel (Oñati) eta Maite (Azpeitia). Argazkian, Nora jaioberria, sehaskan lo.



**Enaitz Telleria Aldasoro**
Oñati > 3,165 kilo. Irailaren 8an. Gurasoak: Jose Mari (Oñati) eta Karmele (Idiazabal). Argazkian, Enaitz jaioberria, sehaskan lo.



**Laia Garcia Arrieta**
Debagoiena > Irailaren 9n. Gurasoak: Onintza (Bergara) eta Mikel (Oñati). Argazkian, Laia jaioberria, aitarekin.




Goienkaria ASTELEHENEKO
EGOITZA NAGUSIA
Ibarra kalea 6, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
Harpidetza: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
2010-09-13

**David de Jorge** > Sukaldaria

# "Plazer hutsa da ortozik kozinatzea"

JON BEREZIBAR > ARRASATE

**Argiñano telebistako sutegiez jabetu zenetik ez da egon halako asaldura piztu duen sukaldaririk. *Robin Food* gaitzizenarekin sukaldaritza *ganberroagoa* ekarri du Euskal Telebistara.**

**Krisiak goi-mailako sutegietako "kursiladetan" murrizketak ekarri ditu?**

Krisiak chefa dagokion tokian ipini du; hau da, sukaldean frijitukiari eragiten.

**Probatu duzun gauzarik kursiena zein izan da?**

Sentsazionalismo gastronomikoak munstroak sortzen ditu: cava, suspentsioan dauden urre partikulekin; mahai-apaingarri jangarriak edonon; odoloste piruletak Teruelera begira, eta abar. Ordea, gauzarik zitalena zera da, oinarrizko hezkuntza amaituta ere ez duten sukaldaritxoei filosofia eta tentelkeriaz jarduten entzun behar izatea.

**Euskaldunak ez gara transzendentalegi jartzen mahai kontuetan?**

Zalantzarik gabe. Horregatik da irreberentzia sukalde-tentelkeriaren aurkako antidotorik onena. Eta ez sinistu sukaldarioi: handinahiz puzturiko gezurti konpultsiboak besterik ez gara.

**Zer gertatuko zenieke "ego-chef" deritzezun horiei?**

Whiskas pote bat mikrouhin labean sartu, zakur pate oinarri baten gainean ipini eta gozagarri zukutsu hori saltsa etereo eta hanpatu batekin osatuko nuke oturuntza primerakoa borobiltzeko. Baietz hatzak zurrupatu bateren batek eta konparatu monje maoista baten kantuak behin emandako plazerarekin Txinako Wong-Tong eskualdeko goi-mendiko tren baten zebilela...

**Zenbaitzuek diote ez ote zaren *zikineroegia* sukaldean.**

Astean behin dutxatzen hasi beharko dut.

**Eta ezkaratzean ortozik?**

Plazer hutsa da ortozik kozinatzea eta hobeto sentiarazten nau. Txoratzeko moduko gisatuak ateratzen zaizkit. Garrantzitsua da oinak lurrean izanda sukaldatzea.

**"Viva la Rusia"?**

Nire erreboltari deiadarra da. Orain 40 urte kartzelara sartzen zintuzten ozen esateagatik. Gaur egun barrea eragiten du, baina neu errebelatu egiten naiz. Denboraren tunelean harrapaturiko brigadista naiz.

SOSLAIA

## Su eta lagun artean

Herriko jai barik geratu da beste urte batez De Jorge (Hondarribia, 1970), baina argi utzi gura du bera sutegi arteko bikingoa dela. Sukaldaritzak, telebista eta argitaletxea. Alboan beti dauka lagun eta bazkide duen Martin Berasategi. Haren taldeko promozio eta kudeaketa lanak egiten ditu De Jorgek. Subijana eta Arbelaitzen ikasle izandakoa da sukaldaria.

Oporretatik bueltan, itzuli da eguneroko parrillara; telebistakora ere bai.



David de Jorge. EITB

## ai, ene!



### Homer gosez da

Sormenak ez du mugarik, eta marrazki honen egileak beste ukitu bat eman die, zer eta eskailera mekaniko batzuei. Eraikin serio baterako akaso ez du balioko, baina jolas denda batean eskailerak izanez gero...

http://www.yupifotos.com

## biharamuna

Iñigo Biain

### Jainkoek aitortuta harrapa gaitzatela!

Ostegunean Estatu Batuetan **Terry Jones** apaiz protestanteak Koranak erretzeko deialdia egiten zuen bitartean, Arantzazuko basilikan **José Ignacio Munilla** gotzainak meza nagusia antzezten zuen politikari eta herritarren aurrean, **Joxe Arregi** frantziskotar ohiaren auzia isiltasunezko zapi batekin estaliz.

Hamabi ordu geroago, eta erlijioen nahasmahas honetan, hor ikusten ditut **Iñaki Azkuna** Bilboko alkate jeltzalea eta **Txema Oleaga** sozialista, milaka musulmanekin batera, ramadanaren amaiera ospatzen Bilboko La Casillan. Eta hau ikusita, berriz datozkit burura **Jones** eta **Munilla**, eta bereziki azken honek Arantzazuko mezan ETAri bidalitako mezua, baldintzarik gabe eta behin betiko desagertzeko, alegia.



Nik munduko erlijio guztiei ere hori eskatuko nieke, behin betiko eta baldintzarik gabe desagertzea, eta diren eta izango diren Lehendakariei, **Patxi Lopezek** ostegunean Oñatin egin zuena egitea: guztion ordezkari bezala, ekimen erlijiosoetara ez agertzea.

Izan ere, sinesmen ezberdinen izenean, mila ETAk baino askoz jende gehiago hil dute erlijio eta jainko horien jarraitzaileek. Historia lekuko.

## eguraldia



| MAXIMOA | MINIMOA |
|---|---|
| +23 | +15 |

Ipar partean oraindik zerua hodeitsu ikusiko dugu eta hanhemenka euri arina egin dezake. Arratsaldean hobera.

www.euskalmet.net

